


20 URTE ZUEKIN. goiena



GIPUZKOAKO FUTBOLA, GARAI BERRIETARANTZ

Manu Diaz bergararraren hautagitzak irabazi ditu Gipuzkoako Futbol Federazioko hauteskondeak, eta hura izango da presidentea; karguan 33 urte eman dituen Juan Luis Larrea ordezkatu du / 38

Gipuzkoako Futbol Federazioko zuzendaritza berrian izango direnak, ezkerretik eskumara: Javi Ibarra, Manu Diaz –presidentea– eta Iosu Elorza. XABIER URZELAI



Gabonetan hondakin kopurua handitu egiten dela eta, aholkuak eman ditu Mankomunitateak / 4

Oñatiko rock musika taldeen historia jaso du Iñigo Biainek 'Alanbre-hotsa eta jazbana' liburuan / 40



GABONAK 2020
+ SANTAMASAK / 21

SINADURAK

	GAIZKA ERAÑA / 11
	VALEN MOÑUX / 6
	MIEL GURIDI / 37
	IOSU LIZARRALDE / 8
	AGURNE BARRUSO / 48

Sdenka Huaranca migratzailearen ustez, "migratzaileak ez dira arazo", aukera baizik / 37



Iñaki Garitaonandia 'Gari' musikariari elkarrizketa

Euskara: egindakoak badira, baita egitekoak ere

Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com


SEAT ATECA

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT



Maialen Santos ARRASATE

Joan den egunetik eguazten honetara arte, 237 koronabirus kasu positibo berri baieztatu dituzte Debagoienean, aurreko astean baino 22 gehiago -215 izan ziren-. Bailarako herri guztietan izan dituzte positiboak azken astean, eta Arrasate izan da gehien baieztatu dituen: 117. Halere, azken astean baino hemezortzi kasu gutxiago dira horiek, eta egunotan baheketa masiboa egiten dihardute herri horretan. Aretxabaletan 39 kasu baieztatu dituzte joan den egunetik eguazten honetara; horietako gehienak, GSR Debagoiena adinekoren egoitzan.

Azpimarratzekoa da Bergarak 1.000 kutsatuen langa gainditu duela azken egunetan, eta Eskoriatzak, aldiz, 200ekoa. Horretaz gain, Osasun Sailaren semaforoaren sisteman, herri gorrien zerrendara batu da Aretxabaleta -Arrasate ere hor dago-, eta laranjaz jarraitzen dute Oñatik eta Bergarak. Gauzak horrela, gaurtik itxita daude Eskoriatzako eta Aretxabaletako tabernak.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte hiru pertsona daude koronabirusaren ondorioz ingratsuta.

GABONAK

NEURRIAK GEHIAGO ZORROZTU AHAL IZANGO DITUZTE ERKIDEGOAK

Iñigo Urkullu lehendakariak eguaztenean iragarri zuen azken asteetako egoera epidemiologikoak hobera egin ez duela ikusita Gabonen aurretik neurriak gogortzea "aukera bat" dela. Hain justu, gaur bertan bilduko da LABI Aholku Batzordea eraba-

Azken asteetako joera hautsiz, gora egin dute positiboek eskualdean

Azken astean, 237 kutsatu hauteman dituzte bailaran, aurrekoan baino 22 gehiago. Establezimenduek itxita egon beharko dute, gaurtik, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Arrasateko baheketa gaur amaitzen da, eta parte hartzera deitu dituzte herritarrak

kiak hartu eta Gabonei begira ezarritako neurriak errepasatzeko. Urtarrilaren 11n ziren bilera hori egitekoak, baina datuen bilakaera ikusita erabaki dute aurreratzea.

Egun berean, eguaztenean, bildu zen Espainiako Gobernu-ko Osasun Ministerioa erkidegoetako ordezkariekin, eta horren ostean iragarri zuen Salvador Illa Osasun ministroak Gabonei begira ezarritako neurriak gogortzeko aukera izango dutela erkidegoek, "tokiko egoera epidemiologikoaren arabera". Hala egitekotan, Gabonetako ospakizunetan hamar lagun baino gutxiago elkartzeko erabakia har dezakete erkidegoek. Bestetik, erkidegoen arteko mugikortasuna gehiago mugatzeko aukera ere izango dute. Azkenik, abenduaren 24an eta 31n 01:30era arte atzeratu daitekeen etxeratze-agindua aurreratzeko baimena ere badute. Edozelan ere, ministroak azaldu zuen aurten-go Gabonetarako mezua "argia" dela: etxean geratzea, alegia.

Ildo horretatik, zehaztu zuen azken asteetan erkidego batzuetan intzidentzia-tasak behera egin duela, baina beherakada hori nabarmen "moteldu" dela. Beste lurralde batzuetan, aldiz, goraka egin dute zenbatutako kasu positibo berriek.

ADINEKOEN EGOITZAK

ARETXABALETAKO ADINEKOEN EGOITZAN 53 EGOILIAR ETA 24 LANGILE KUTSATUTA

Gipuzkoako Foru Aldundiak aditzera emandako datuen arabera, egun bakarrean, martitzenean, 35 kutsatu berri erregistratu zituzten Aretxabaletako

Bailarako ostalari askok itxita dituzte tabernak



IGOR EZKIBEL
ORLY TABERNA, ARETXABALETA

"Taberna ireki orduko behartu naute ixtera"


"Tabernak itxita izanda, datuek okerrera egiten jarraitu dute; beraz, argi dago errua ez dela ostalariena. Astelehenean ireki nuen taberna, horrek dakarren gastuekin, eta guztia martxan jarri orduko berriro behartu naute ixtera. Azken egunetako kutsatuak zaharren egoitzan hauteman dituzte; beraz, ez dut ulertzen zergatik itxi behar ditugun tabernak. Ez naiz errua eurei botatzen ari, agintariak jarraitzen dituzten irizpideei baizik. Hau jakingo banu, itxita mantenduko nuke taberna".



AITOR ETXAGIBEL
MONTE TABERNA, ARRASATE

"Oso urte txarra izan da, eta larritzen hasita nago"

"Arrasateko azken egunetako intzidentzia-tasa ikusita, uste dut urtarril amaierara arte ez dudala taberna zabaltzerik izango. Larritzen hasita nago; izan ere, orain eta martxoan tabernak itxita izan ditugu, baina gainontzeko hilabeteak ere oso txarrak izan dira; ez da mugimendu handirik egon. Herriko jai garrantzitsuak ospatu ez izanak ere eragin dit. Bestalde, Gabonak izaten dira urteko sasoi onena, fakturazio altuena izaten dudana, baina aurtan, ezin aprobetxatu".



DUNI OLABARRIA
POL POL TABERNA, BERGARA

"Taberna irekitzeko dirua galtzea esan gura du"

"Tabernak irekitzeko baimena izan arren, itxita jarraitzeko erabakia hartu nuen, uste dudalako tabernak irekitzea dirua galtzea dela, ez dabilelako jenderik. Hori gutxi balitz, taberna irekiko banu, langileak ERTEtik atera beharko nituzke, eta, beraz, diru-sarrerak urriak izanda ere soldadak ordaindu. Gainera, atea berriz itxekotan ezingo lirakeke berriro ERTEra sartu; eta hori oso arriskatua dela uste dut. Ateak itxita izan arren, gastu finkoak ordaintzen jarraitzen dut".



Urola kalea 8 • Legazpi • info@comercialjube.com
Eskera ere whatsapppe: 683 23 82 73

HANBURGESA NATURALAK ETA OKELA ZURE ETXERAINO! *Okm* Egin eskaera!

Behi-hanburgesa. Zortzi aleko kaxa: 17 €
Txuleta-hanburgesa. Zortzi aleko kaxa: 22 €
'Etxekoa' txistorra: 3,30 €/aleko
Azpizun osoa, hiru kilotik gorakoa: 16,90 €/kg
Arkumea, erdia edo osorik, bururik eta barrukirik gabe: 11,90 €/kg.
Antxumea, erdia edo osorik, bururik eta barrukirik gabe: 15 €/kg.
Txerrikumea. Prezioa: 54 €/aleko

PACKA

1 kg txahal edo behi xerra
1 kg oilasko-bularki
1 kg haragi txikitu
1 kg solomo fresko edo adobatu
1 oilasko

Pack osoa: 38 €

ARDO SORTA: 49,90 €

Viña Bujanda (Oion)
2 botila, ondua
2 botila, erreserbakoa
2 botila, erreserba handikoa

GSR Debagoiena adinekoen egoitzan. Eguaztenara arteko datuen arabera, 53 ziren egoitza hartan kutsatutako egoiliarak, azken orduetan bat sendatu eta beste bat hil eta gero. Langileei dagokienez, egun berera arte, 24 ziren kutsatutako egoitza horretan. Eskoriatzako Jose Aranan, bestetik, kasu aktibo bakarra zuten eguaztenean, gainontzeko bost kutsatuek gaixotasuna gainditu dute eta.

Aita Menni ospitalean, bestalde, zortzi koronabirus kasu aktibo dituzte eguenera arte: lau-na psikiatria legaleko unitatean eta Aranzazu leian. Bestetik, Benito Menni unitatean kutsatuta zeuden 35 egoiliarrek gainditu dute gaixotasuna. Azkenik, Aita Menni egoitza-unitatean pertsona batek jarraitzen du birusak kutsatuta.

ARRASATEKO BAHEKETA

GAUR AMAITUKO DEN BAHEKETAN PARTE HARTZEKO DEI EGIN DUTE OSPITALETIK


Astelehenaz geroztik eta gaur arte baheketa masiboa egiten dihardute Debagoieneko Ospitaleko kanpo kontsulten eraikinean. Herri horretan egiten duten bigarren baheketa da, eta 6 urtetik gorako arrasatear eta aramaioar guztiak daude PCR proba egitera deituta: 22.000 eta 1.500 lagun, hurrenez hurren. Deitutakoen artean, 5.500 ikasle inguru ere badaude, tartean, bertakoak ez izan arren Arrasaten ikasten dutenak.

Debagoieneko ESItik adierazi dute baheketaren helburua dela Debagoieneko "komunitate-transmisioa geldiaraztea", eta horretan ari dira lanean 30 profesional baino gehiago.

Eguen goizera arte, 16.707 pertsonak zuten hitzordua hartuta astelehenetik egubakoitzera proba egiteko; horietako gehienek dagoeneko egin dute PCRa, eta besteek datozen orduetan egingo dute. "Azpimarratu nahi dugu bigarren olatu honetan intzidentzia handiena 10 eta 40 urte bitartekoan artean egon dela, eta, hain zuzen ere, adin-tarte horretan ari gara parte-hartze gutxien izaten. Beraz, herritarrei dei egin nahi diegu gurekin harremanetan jartzeko", zehaztu dute ospitaleetik. Horretarako, Arrasateko Osasun Zen-

Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



trora (943 03 52 50) edo Osarean-ekora (900 20 30 50) dei daiteke.

OSTALARITZA

ARETXABALETAKO ETA ESKORIATZAKO TABERNAK ITXITA DAUDE, GAURTIK

Azken asteetan, Debagoieneko zenbait herritan egin dituzte ostalarien protestak, sektoreak bizi duen egoera zaila kalera atera eta dirulaguntza zuzenak eskatzeko. Horren harira, joan den egubakoitzean bilera egin zuten Arrasateko ostalariak eta Udalak, eta dirulaguntza zuzenak adostu zituzten. Hala, Arrasateko Udalak 1.000 eta 1.400 euro arteko laguntzak emango dizkie hilerro herriko 90 taberna eta jatetxeri, itxita dauden bitartean. Hori ez ezik, herri horretako 75 lokalek eta 300 langilek osatzen duten Arrasateko Ostalariak taldea sortu dute, pandemiaren hasieratik jasan duten "ezinegonari aurre egiteko".

Aretxabaletako eta Eskoriatzako ostalaritza-estabazimenduek itxita egon beharko dute, gaurtik, eguenean intzidentzia-tasa 718,51koa eta 516,61koa zelako, hurrenez hurren. Ostalaritza itxita izan beharko dituzten herrien zerrenda atzo eguneratu zuen Osasun Sailak, eta bailaran bi herri horiek batu dira Arrasate eta Aramaio dagoeneko sartuta dauden zerrenda horretara.

Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	117	136	1.882	85,32
Bergara	42	22	1.008	67,18
Aretxabaleta	39	12	371	52,27
Oñati	20	17	542	47,73
Eskoriatza	9	12	203	49,94
Aramaio	6	8	72	47,81
Antzuola	2	1	143	64,97
Elgeta	1	6	47	41,26
Gatzaga	1	1	4	16,00
GUZTIRA	237	215	4.272	66,05

OHARRA: EGUAZTENARA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA



LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK

%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE

FABRIKAZIO MEKANIKOA

IKASTARDEN IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0876	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKAK. PLANOAK	60	2021/01/18-2021/02/23
UF0883	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZAZIUTAKO PRODUKTUA. EGIAZTATZEA	30	1.Hiru hilabetean
UF0878	TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK. PRESTATZEA. KONBENTZIONALA	80	2021/01/11-2021/02/25
FMEM00400H	NEUMATIKA.	40	2021/01/18-2021/02/09
	MCOSMOS EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA	30	2021/03/01-2021/03/16

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

ELE100050H	S7 PROFIBUS	20	2021/01/18-2021/01/27
ELE100040H	S7 ETHERNET ETA PROFINET	30	2021/04/13-2021/04/28
OC20202889	ROBOTKA DINARRIAK	50	2021/02/01-2021/03/03

ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

UF0314	KONTABILITATE-KUDEAKETA	90	2021/01/25-2021/03/18
OC20202880	ORDENAGAILU BIDEZKO MEKANOGRAFIA	50	2021/01/25-2021/02/24
OC20202889	OFIMATIKA (WORD-EXCEL-ACCESS-POWERPOINT)	100	2021/03/22-2021/06/03

GAITASUN ZIURTAGIRIAK (PARTZIALA)
 FMEE0108 FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK - LANGABETUENTZAKO SOILIK

FMEED108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	400	2021/02
----------	--	-----	---------



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



Fp
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
LANBIDE SERBITZUA



Unión Europea
Fondo Social Europeo
"El FSE ayuda a las personas"

Agirrebidea,2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 89 92 72 - 943 89 92 73 - ikastaroak@maltuna.eus



Hondakinak batzeko edukiontzia Bergarako kale batean, aste honetan. J.O.

Aldaketak hondakinen bilketan Gabonetarako

Bergaran eta Arrasaten izan ezik, Gabon egunei begira eguaztenetan jasoko dira traste zaharrak bailarako herrietan. Oñatiren kasuan, hilaren 24an eta 31n eguerdian egingo da ohiko hondakin bilketa. Garbiguneak goizez arituko dira, baita ibiltariak ere

Jone Olabarria ARRASATE

Gabon eta jaiegunei begira hondakinen bilketa zerbitzuan aldatetako iragarri ditu Debagoieneko Mankomunitateko hondakinen kudeaketa bulegoak. Sasoi honetan sortzen den hondakinen kopurua "nabarmen" igotzen dela kontuan hartuta, "batez ere otordueta sorturiko organikoa eta baita paper-kartoi eta plastikozko bilgarriak", Mankomunitateak hainbat gomendio helarazi nahi izan dizkie herritarrei: "Hondakinak murrizte aldera, erabilera bakarreko materialak ekidin eta kudeaketa arduratsua egin, hondakinak berezi, eta gai bakoitza dagokion atalean bota".

Gogorarazi dute edukiontzien eta esekitokien kanpoaldean hondakin ezin dela utzi, "kaleak txukun mantentzea guztion ardua baita". Gabonetan soilik ez, baina azpimarratu dute organikoa poltsa konpostagarrian edo poltsarik gabe zuzenean bota behar dela.

Traste zaharren bilketa

Eguenak izan ohi dira traste zaharrak biltzeko egunak bailarako herri guztietan, Arrasaten eta Bergaran izan ezik. Gabon jaiei begira, eguaztenetan, hilak 23 eta 30, jasoko dituzte traste zaharrak Aretxabaletan, Eskoriatzan, Elgetan, Leintz Gatzagan, Antzuolan eta Oñatin, ohiko ordutegian. Traste zaharrak kalera atera aurretik, 943 71 19 38 erantzungailuan mezua utzi behar da abisua ematen. Bergaran eta Arrasaten ohiko bilketa egunak bere horretan mantenduko dira, martitzenetan.

Partikularrak eta garbigunea

Oñatin, abenduaren 24an eta 31n ez da gauean bilketa zerbi-

"GABON SASOIAN NABARMEN IGOTZEN DA ZABOR KOPURUA; BATEZ ERE, ORGANIKO ETA BILGARRIKIN"

tzurik izango. Egun horietan, 13:00etarako atera beharko dira hondakinak. Gainerako herrietan normaltasunez mantenduko da zerbitzua.

Garbiguneak zabalik egongo dira abenduaren 24an eta 31n, baina goizeko zerbitzua soilik eskainiko dute, 09:00etatik 13:30era. Abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an, itxita egongo dira. Garbigune ibiltariari dagokienez, abenduaren 24an Arrasaten izango da, hilaren 31n Oñatin eta urtarrilaren 5ean Eskoriatzan. Denetan ere, 14:00ak arte eskainiko du zerbitzua.

Industrialdeetako bilketa zerbitzuaren kasuan, Debagoieneko enpresei bilketa zerbitzuan izango diren aldateten berri eman zaiela jakinarazi du Debagoieneko Mankomunitateko hondakin zerbitzuak, posta elektronikoz bidez. Mezurik jaso ez dutenek argibideak jasotzeko 943 50 47 21 telefonora deitu dezaketela azaldu dute.

'Puntua'-ren 'Suizidioa' azala, Tokikom sarietako azalik onena

"Elementu gutxirekin asko iradokitzen duen azala" dela azpimarratu du epaimahaiak, "exekuzio bikaina" duena

J.O. ARRASATE

Tokikom sariak eman zituen atzo, bosgarren urtez jarraian, Toki Komunikabideen Batera-guneak. Sarioren helburua da "toki komunikabideetan egiten den eta, sarritan, ezkutuan geratzen den kazetaritza lana aldarrikatu eta gizarteratzea". Urtero bezala, komunikazioaren munduko adituek osatutako epaimahai batek hiru sari eman zituen, azken urtean euskarazko toki komunikabideetan argitaratutako lanik onenak aitortzeko.



Saria irabazi duen *Suizidioa* azala.

Bukaera, "irekia"

Horien artean dago, hain zuzen, *Puntua* aldizkariako *Suizidioa* azala. *Guaixe* aldizkariaren *Mozorratu zaitez gurekin* eta *Maxixatzen* aldizkariaren *Auzoa arnas* azalekin batera izan zen finalista, eta epaimahaiak *Puntua*-ren azalari eman dio sari nagusia. Epaimahaikideek nabarmendu dutenez, "oso elementu gutxirekin eta era egokian konbinatuz, asko transmititzen eta iradokitzen duen azala da". Gaineratu dutenez, "ideia ona izateaz gain, exekuzioa ere bikaina da, eta emaitza oso dotorea, bolumenen konposizio orkatuarekin, eta soiltasuna erabiliz dramatismoa gehitzeko".

Era berean, *Puntua*-ko diseinuaren arduradun Iñaki Iturbek adierazi du ezaugarri aipagarriena dela "gaia zein den erakusten duela", baina, hala ere, "bukaera irekia" lagatzen duela:

"Ez dakigu pertsona horrek zer egingo duen; izan ere, ikusten dugun pertsona horrek aukera du, oraindik, buelta eman eta atzera egiteko".

Ezohiko sari banaketa

Aurten, saio berezi bat ekoiztu dute sari banaketara begira, atzo 19:00etan hainbat toki komunikabideetan ikusgai izan zena. *Puntua*-z gain, *Anboto*-ren *Zaldibar* erreportaje bereziak jaso zuen edukirik onenaren saria, eta Baleikek eta Erlo Telebistak ekoiztutako *Marea errotaren arrastoaren bila* erreportajeak eraman zuen ikusentzunezko onenaren saria. Aurten lehenengoz banatu duten eta herritarren botoen bidez aukeratu den Komunitatearen sarian, *Aiurri* aldizkariaren *#Bertsovid19* ikus-entzunezkoa izan da garaile.

Zortzi atxilotu Bergaran, emakumeen sexu esplotazioagatik

Begarako, Tolosako eta Beasaingo etxebizitzetan emakumeak sexualki esplotatzen zituen sare bateko kideak atxilotu ditu Polizia Nazionalak. Jakinarazi dutenez, prostituzioaren abuzuzko baldintzetan jardutera behartzen zituzten emakumeak. Sexu esplotazioa, proxenetismoa, estupefazianteen trafikoa eta kapital-zuriketara leporatzen zaizkie.

Mobilizazioak, bihar, herrietan, Bateragune auzia dela eta

Bateragune auzia berriz ere epaitzeko erabakiaren aurka eta Euskal Herriak "konponbidea eta demokrazia" behar duela aldarrikatuz, sindikatu, eragile sozial eta alderdi politiko ugari egindako deira batu dira bailarako udalerrriak ere. Biharko, zapatua, eguerdirako deitu dituzte mobilizazioak, Euskal Herriko herrietan, 12:00etan.

**GURE
GARIA**

**GURE
OGIA**

EUSKAL OGIA

**GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN**



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

ARETXABALETA

BEROA OKINDEGIA - Basabe Kalea, 2

BEROA OKINDEGIA - Loramendi, 6

DANONA OKINDEGIA - Durana, 2

Euskadi, auzolana, bien común



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



ZABALIK

VALEN MOÑUX

Hurbileko izarrak

Konfinamendu zorrotzean telebistako pelikula eta serie ugari ikusi eta gero gehien eskertu dudana gauzetako bat da berriz ere esertzea antzokietako eserlekuetan. Seminarixoko ikusle ohikoa naiz, baina are gehiago orain, lekuz aldatzeko aukerak asko murriztu baitira. Horri esker, hurbilekoa, bertakoa, gehiago estimatu ahal izan dut.

Ezusteko bat Kepa Errasti aretxabaletarraren *Fadoak entzuten zituen gizona* antzerkia ikustea izan zen. Berak idatzitako obra horretan, interpretazio eta kantu erakustaldia egiten du. *Erlauntza*-ren bertsio zinematografikoa ere ikusi nuen, aspaldian ikusi dudana komediarik onenetakoa; aurkezpenean jakin nuen jatorrizko gidoia Keparena ere badela –jenioa!-. Zuzendaria, Mireia Gabilondo, Bergarakoa da, eta Zinemaldiko ikusle sutsu sentitu ginen estreinaldira hiru aktoreekin etorri zenean. Kixi Altunak ere aurkeztu zuen Zinemaldirako lan bat Bergaran.

MIREIA GABILONDO, JUNE NOGUEIRAS, MIKEL LASKURAIN, JON OLIVARES... IZAR ASKO DAUDE HERRIAN

Beste gertaera zoragarri bat *Akelarre*-ren estreinaldia ikustea izan zen June Nogueirasen eskutik. Ia mila hautagairen artean bere papererako aukeratua izan zen aktore gazte bergararra. Garai

txarrean estreinatu den filma da, baina ziur nago telebista-plataformetan ibilbide luzea izango duela.


HBO plataforman, hain zuzen, azpimarratzekoa da Mikel Laskurain aktore bergararraren lan bikaina. *Patria* telesailean paper gogorra egin du, baina, nire ustez, Bergarako antzerki mugimenduaren historia bizia den artista hau kotsakratu egin da. Jon Olivares osintxuerra beste belaunaldi batean kokatuta dago, baina telesail honetan ere aparteko papera egin du. Oraindik ez dut ikusi *Altsasu* telesailean, baina jarraituko dut.

Hurbileko izar gehiago badaude: Aitor Luna eta Ion Gonzalez abizen ezberdineko anaiak. Ez dira herrikideak bakarrik, auzokideak ere badira. Oso proiektu garrantzitsuetan ikusten ditugu, eta irrikan nago Ionek *Érase una vez... Euskadi* filmean egindako lana ikusteko, Arrasaten eta Bergaran filmatutakoa.

Hurbilago ezin.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



Kutsatutako langile baten argazki bakarra. Arrasate, 2020.

HANDIK ETA HEMENDIK

Madriren euskaraz

ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATU

Madriren bizi nintzela, duela ez hainbeste, kalean, terraza batean, metroan, beste norbaitekin euskaraz ari nintzela, galdera bitxiak egin izan dizkirate. Modu adeitsuan, suerte hori izan baitut.

¿Habla usted armenio?, ¿habla usted ruso?, ¿habla usted turco?

Eta antzeko beste hainbat.

Hasieran, grazia egiten zidan, hau bitxikeria.

Ondoren, haserre pittin bat: alderantziz izan beharko luke, Madriren norbait

hizkuntza ezezagun bat erabiltzen entzun –ez ingelesa, ez alemana, ez frantsesa– eta armeniarri edo errusiarrari euskaraz ari ote zen galdetu.

Azkenean, ulertu nuen euskaldunok ere bagenuela erantzukizunik ezjakintasun horretan.

Sarritan antzematen digute jatorria gaztelaniaz ari garenean –hori bai, pentsatzen dute guk *azentua* dugula eta beraien hizkera neutroa dela–, baina ez dute apenas euskararik entzun.

Vasco ugari Madriren, baina euskaldun gutxi, eta, gainera, gugandik heltzen zaizkien mezuak ia beti dira

gaztelera; politikariengandik, batez ere.

Edonork entzun ditu katalanak katalanez mintzatzen, baina gurea ez dute entzun, besteak beste Legebiltzarrean debekatua dagoelako.

Ikasiak ezagutzen dute gure idazleren bat, baina itzulpenaren bitartez, eta gure abeslariak ez dituzte apenas entzuten.

Hain erraz jotzen dugu gaztelaniara, hain gara adeitsuak beste hizkuntzekin.

Eta hain alferrikako iruditzen zaie norberaren hizkuntzaren erabilera, txikikeriarik txikiena, Konstituzio santuak besterik badio ere.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Aldaketak behar dira; klimaren joera berotzea da"

IÑAKI PETXARROMAN KAZETARIA

Karme Uribesalgo OÑATI

Astintzen dinamikaren baitan, klima larrialdiari buruzko hitzaldia egin zuen Iñaki Petxarroman kazetariak martitzenean Oñatin.

Klimari dagokionez, zer egoeratan gaude?

Egoera larrian gaude. Nazio Batuen Erakundeak esan du klima larrialdia iragarri beharko litzatekeela mundu osoan. Temperatura 1,2 gradu igo da industria aurreko arotik, eta, besteak beste, aldatzen ari dira euriaren parametroak. Larrialdi egoeran gaude, eta ez klimaren aldaketaren aldetik bakarrik, baita ekologiari dagokionez ere; sekulako galerak ditugu bioaniztasunean.

Zerk eragin du egungo egoerara iristea?

Faktore asko izan dira, baina nik uste dut gehienbat izan dela indarrean izan dugun sistema ekonomikoa. Izan ere, erregai fosilen erabilera oinarritu du bere hazkundera,



Iñaki Petxarroman, *Ezezagunerako bidaia* liburuaren egilea. GORKA RUBIO/FOKU

eta isurketak areagotu egin dira. Zientziak iragarrita zeukan egoera hau, gutxienez duela 50 urte. Negazionismo klimatikoaren adarra izan dira erregai fosilen industriako kideak, agintari

politiko asko, baita hedabide batzuk ere.

Orain arteko erritmoan jarraituta, egoerak ez du hobera egingo.

Ez bada aldaketarik egiten, NBEk egindako txosten batek dio hiru eta lau gradu

bitarteko berotze baten aurrean egon gaitezkeela. Nik uste dut doiketa batzuk gertatzen ari direla trantsizio ekologikoa hasita dagoelako, baina ez dakit noraino iritsiko garen. Aurten, %7 jaitsi dira CO2 isurketak, baina begira zer-nolako urtea izan dugun; mugikortasuna asko gutxitu da, eta hori kontuan izanda kopurua txikia da. Izan ere, eskatzen digute urtero portzentaje hori jaisteko hemendik mende erdira karbono neutraltasunean egon ahal izateko. Horretarako, aldaketak egin behar dira sektore guztietan, eta horrek dakarren iraultza teknologiko eta industrialak sekulakoa da. Hori egin ezean, gero eta hondamendi gehiago gertatuko dira.

Komentatu duzu egoera doitzen doala, baina bide luzea egongo da egiteko.

Oso bide luzea. Bizpahiru hamarkada pasatu ditugu kasik ezer egin gabe. Doitze batean gaude, baina hori duela hamarkada batzuk hasi izan balitz, askoz ere egoera hobean egongo ginen. Orain, gauzak azkar egin behar ditugu, korrika eta presaka, eta ez dakigu garaiz iritsiko garen. Aldaketak behar dira; izan ere, klimaren joera berotzea da.

Zer aldaketa egin beharko liriteke?

Ekoizpen sistema aldatu behar da, baita kontsumo modua ere; jaitsi egin behar dugu daramagun erritmoa. Horrez gain, natura errespetatzen ahalegindu behar dugu. Oihanik gabe ari gara gelditzen, deforestazioa ikaragarria da, eta atmosferak eta ozeanoak CO2a gordetzeko daukaten gaitasuna kasik agortu dugu. Batzuek diote kapitalismo berdearen bitartez lortu daitezkeela isurketak murriztea, *Green New Deal* itun berde berriaren bidez. Hala ere, niri oso zaila iruditzen zait modu horretara egitea. Uste dut paradigma aldaketa bat behar dugula.

Herritarren kontzientzia eragitea garrantzitsua izango da.

Inportantea da, bai. Jendeak aldaketarako giltzak ditu; ez guztiak, baina batzuk badituzte. Giltza horiek aktibatzea garrantzitsua da beste batzuk aktibatu daitezten. Esango nuke azken urteetan herritarren aldetik kontzientziario bat gertatzen ari dela. Kontu hau denon ardura da, baina batzuenare gehiago. Horiek mugiarazteko herritarren aktibazioa beharrezkoa da; bestela, gertatuko diren aldaketak antzukoak izango dira eta.

ITURRI ONETIK

AGAKOk 30 urte, liburu bat eta bideo bat aterata

Arrasateko Gazte Alternatiboan Kofradia Organizatuak (AGAKO) 30 urte beteko ditu 2021eko apirillean. Urteurren borobil horren harira, liburu bat eta bideo bat ekoizten dabilta, eta horietan, herrian egon diren hiru gaztetxeen ibilbideak jasoko dituzte: Gurea zinemakoa, ospitale zaharrekoa eta Uarkapekoa. Urteurrenerako bukatuta egongo dira bideoa eta liburua. Bultzagileek aurreratu dutenez, "beste sorpresa batzuk" ere izango dira ospakizunetarako.

ALBISTE IZAN ZEN



2010-12-18

Aranburu eta Aristi nabarmen ziklo-krosean

Gaurko egunez, orain dela hamar urte, Oñatiko San Martingo belardi lokaztuan jokatu zen ziklo-kros txapelketa. 1953an Munduko Txapelketaren lekuko izan zen toki berean eta 1966an azkeneko lasterketa bat egin zuten toki berean. Gaur egun euskal txirrindularitzako izen ezagun diren Alex Aranburu ezkiotarrak eta Mikel Aristi bergararrak irabazi zuten kadete eta gazte mailetan. Ikusmin handia sortu zuen lasterketak.

HAU BE BADOGU!

Olentzero, 'trending topic' European

Traol erabiliaren artean egon da asteon #olentzero, Europa mailan. Izan ere, Espainiako ultraeskuinak hauspotu egin du "Olentzerok umeak euskaraz egitera" behartzen dituela:

@Josuarraiz: "PAI, Halloween eta Santa Klaus bultzatzen eta ospatzen ditugu gure tradizioak maite ditugulako. D eredia eta Olentzero errefusatzeko ditugu baskoen inposizioak direlako".

@negukobaratza: "Utzi olentzero bakean, ala Errege Magoak Juan Karlos eta Sofia direla esango diegu zuen seme-alabei".



D2030: IRITZIA

IOSU LIZARRALDE / MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA ETA SAIOLANeko ETA DEBAGOIENA2030-EKO KIDEA

Garapen endogenoa eta ikerketa-ekintza

Garapen endogenoaz hitz egiten dugunean, tokiko eskualde edo komunitate baten barne-gaitasunak sustatu nahi dituen garapen-eredu batez ari gara, gizartea eta bere ekonomia barrutik kanpora indartzeko erabiltzeaz gain, denboran zehar sostengarria eta iraunkorra den garapen ereduaz, hain zuzen ere.

Garrantzitsua da azpimarratzea garapen endogenoan alderdi ekonomikoa garrantzitsua dela, baina komunitatearen eta gizabanakoaren garapen integralak hartzen du garrantzi handiagoa: esparru moralean, kulturean, sozialean, politikoan eta teknologikoan.

Dagoeneko jakina denez D2030 ekimena eskualdearen eraldaketa eta dinamika kolaboratiboa sustatzeko sortu da, lurraldearen garapen komunitarioan sakonduz, 2050. urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den eskualdea bisio gisa duela.

Hainbat prototipo martxan

Bisio horretako posizioak – lanaren etorkizuna, energia, elikadura sistemak, hezkuntza, komunitatearen parte hartzea...– eta azpizposizioak – enpleagarritasuna, ekosistemen transformazioa, energia eredu...– finkatu ondoren, hauek elikatu eta euren artean elkarrekintzan arituko diren prototipoen portfolioa onartu da. Orotara, eta hasiera batean, 14 prototipo bultzatzeko finantzazio aukerak, bidelaguntza eta elkarlan markoa sustatuko ditu D2030ak.

D2030 proiektuaren baitan aktibatutako prototipo bakoitza prest dago, garapen endogenoaren logikaren baitan, bakoitzaren ezagutza partikular hori plataformako



PIXABAY / GIMK

kide diren beste kideen eskura jartzeko, guztien hazkunderako/garapenerako borondatezko ezagutza, ikastea eta esperientziaren transferentzia helburu hartuta. Horrek norbanakoen gaitasunak indartzea, zabaltzea, integratzea eta garatzea dakar, eta, ondorioz, diziplina anitzeko lantaldeak modu naturalean eratzea.

Komunitatea protagonista

Garapen eredu edo ikuspegi tradizionalen, gizartea/komunitatea garapenaren objektu izan ohi da. D2030ek sustatu nahi duen garapen ereduaren, aldiz, komunitate bat bere ingurunearekin harmonian hedatzea – garatzea– da helburua; hau da, hedapen hori komunitate horretako kide diren gizaki guztien hedapena bermatzean datzala ulertzea. Alde horretatik, gizartea/komunitatea garapen-objektu izatetik garapen-subjektu izatera igaroko da.

GARAPEN ENDOGENOAN GIZABANAKOAREN GARAPEN INTEGRALAK DU GARRANTZIA

Aldaketa sistemikoa

D2030en baitan ireki berri den prototipazio fase berri honetan eta erronka konplexuek ezaugarritzen duten garaiotan, eremu eta eragile anitzen arteko lankidetzak markoa eraikitzea eta identifikatutako erronkak sakon ezagututa bakoitzari erpin ezberdinetatik eragiteko aukerak irekitzea gakoa izango da.

Prototipo hauetako bakoitzak bere helburu eta balio propioa izateaz gain, prozesu honetan, eskualdea eta bere aukera zein erronkak sakonago ezagutu eta eraldaketa sistemikoz ikastea dinamika eraikitzea ere baditugu helburu.

Ikerketa-ekintza

Horretarako, ikerketa-ekintza izango da lehenetsiko dugun metodoa. Baina zer da ikerketa-ekintza

ERRONKEI ERPIN EZBERDINETATIK ERAGITEKO AUKERAK IREKITZEA GAKOA IZANGO DA

prototipazio fase baten ikuspuntutik?

Ikerketa-ekintza gizarte-egoeretan parte hartzen dutenek abiarazitako azterketa introspektibo kolektibo bat da, beren gizarte praktiken arrazionaltasuna eta justizia –bere kontzepzio zabalenean– hobetzeko helburua duena, bai eta praktika horiek eta horiek gertatzen diren egoerak ulertzeko modua ere.

Funtsean, ikerketa-ekintzaren hiru ezaugarri garrantzitsuenak hauek dira: izaera parte-hartzailea, haren bultzada demokratikoa eta gizarte-zientzietan aldi berean ezagutzari egiten dion ekarpena. Hain zuzen ere, paradigma kritiko-proposatzailean kokatzen den metodologia da, eta, aztertutako gaikako kezkek dituzten pertsonen parte-hartzea eskatzen du. Horrela, inplikaturako eragileak errealitatearen gaineko ezagutza eta esku-hartzea

GUSTATZEN EZ ZAIGUNA ALDATZEKO, EZINBESTEKOAK DIRA KONPROMISOA ETA EKINTZA

eraikitze prozesuaren protagonista bihurtzen dira.

Prototipoen garapenean ere ikerketa-ekintzak planteatzen duen paradigma –ezaugarri, prozesu eta metodologia– hori jarraitzea izango da helburua, bertako erronka eta aukerei buruz jasotako ikasketa eskualdearen eraldaketaren mesedetan jartzeko.

Loturak bilatzea gakoa

Bestalde, eskualdearen eraldaketa sakona bultzatzeko, prototipoen zein eskualdeko beste eragileen eta dinamiken arteko interkonexioa bilatuko da, portfolioaren parte diren eragileen arteko elkarlana eta sinergiak sustatuz, eta eskualdeko beste eragile eta dinamika ere portfolioarekin konektatuz, eraldaketa inpaktu altuagoa lortu ahal izateko.

Sortzen dugun pentsamendu, sentimendu eta ekintza bakoitza gure errealitatea eraldatzen ari dela konturatu eta kontzientzia hartu behar dugu. Gustatzen ez zaiguna eraldatzeko konpromisoa behar da, eta konprometitzeko, ekintza ezinbestekoa da. Ez dugu erronka makala.

Bilbotik eta Baionatik Elmako etorbidera, etorri bidera!

ILLART AZKARATE ITURBE ETA GARAZI AZKARATE ARRIZABALAGA

ARRASATEKO SARE
ARRASATE

Azken urteetan, Bilbon eta Baionan antolatatu den mobilizazioa bereziki garrantzitsua izan da; bertan, 100.000 herritar inguru batu izan gara presoen eta iheslarien auziari aterabidea ematea aldarrikatu eta

elkarbizitzaren eta bakearen alde urratsak egiteko.

Aurtengo ezohiko egoera dela eta, urtarrilaren 9an ezingo gara Bilbon eta Baionan elkartu. Horren ordez, bertan urtez urte batu garenok gure herri eta auzoetan elkartzeko gara.

Urte garrantzitsu baten aurrean gaudela uste dugu. Salbuespen legediaren amaieraren aldeko gehiengo politiko, sindikal,

instituzional eta sozialari, espetxe politikan Espainian zein Frantzian ematen diren aldaketak gehitu zaizkio. Oraindik aurretik bide luzea izan arren, egindako urratsak aintzat hartuta, Euskal Herritik bide horri bultzada ematea ezinbestekoa dela uste dugu. Hori horrela, benetan garrantzitsua deritzogu urtarrilaren 9an Arrasatetik Bilbora joan izan garen guztiok, eta

gehiago, Arrasaten elkartzeari.

Arrasaten, arratsaldeko bostetan bi zutabe irtengo dira: bat, Zigarrolako San Isidroitik; eta bestea, Arimazubitik. Bi zutabeak Gipuzkoa etorbidean elkartzeko dira, eta 17:30ean bertan entzungo dugu Euskal Herri osoan batera irakurriko den idatzia.

Horrez gain, mobilizazio hauetan jaso izan dugun laguntza ekonomikoa

ezinbestekoa izan da dispertsioak sortzen dituen gastuei aurre egiteko.

Arrasaten autobus txartel sinboliko batzuk aterako ditugu, 5 eurotan, herritarron elkartasun ekonomikoa jasotzeko. Ea zenbat autobus betetzeko gai garen!

Salbuespen legedia amaitzeko, presoen etxeratzean urratsak egiteko, urtarrilaren 9an etorri bidera, Elmako etorbidera.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



Udalak dirulaguntzak emango dizkie ostalariei

100.000 biztanleko tasa 500etik gorakoa den bitartean, ezin izango dute zabaldu eta Gobernuak azaldu du "oso kontziente" dela sektoreak bizi duen egoeraz; hala, 1.000 eta 1.400 euro arteko laguntzak emango dizkie hilero, langile kopuruaren arabera

Eneko Azurmendi ARRASATE

Abenduaren 10ean Udalak eta ostalariek egin zuten bileran hainbat dirulaguntza adostu zituzten, "elkarlanean", Maria Ubarretxena alkateak azpimarratu duenez, eta ostalarien jarrera azpimarratu eta eskertu egin du, era berean. "Haien egoera oso zaila den arren, oso ondo hartu gintuzten, eta elkarlanean dirulaguntza batzuk adostu ditugu. Laguntza zuzenak izango dira, itxita dauden ostalaritza negoziandoak. Hala, hilabeteko dirulaguntza bat jasoko dute itxita pasatzen duten hilabete bakoitzeko", gaineratu du.

Modu horretan, hilabetero laguntza bana jasoko dute itxita dauden ostalaritzako negozioek, eta hiru laguntza egongo dira: langile bat eta hiru artean dituzten negoziandoak laguntza 1.000 eurokoa izango da; lau eta sei langileko artekoendako, 1.200 eurokoa; eta sei langiletik gorakoendako, 1.400 eurokoa.

90 taberna eta jatetxe

Alkateak nabarmendu duenez, 90 taberna eta jatetxe inguruk jasoko dituzte dirulaguntza horiek eta 300.000 euro inguruko partida izango da, momentuz. Halaber, urtarriletik aurrera banatuko diren arren, azaroko



Ezkiña taberna, eramateko janaria zerbitzatzeko bakarrik zabalik. E.A.

ordainketak egingo dira lehenengo. Bestalde, 2021eko udal aurrekontuak ere aintzat hartuko ditu dirulaguntza horiek, eta ez dago zehaztuta noiz arte iraungo duen. "Elkarlanean jarrapen bilerak egingo ditugu sektorearekin, eta Gabonak pasa ostean, urtarrilean, berriro elkartuko gara, neurri hauei jarrapena emateko", dio alkateak.

"Urgentziatzeko laguntza" horiek tramite administratibo bat pasa beharko dute lehenik, eta, beraz, ostalariek oraindik ezin dute eskaera egin.

Bestelako laguntzak ere bai

2020an, establezimenduek kaleko terrazetan zerbitzua emateko egin dituzten inbertsioetarako dirulaguntzak ere eman ditu Udalak, eta urtarriletik aurrera beste deialdi bat zabalduko duela aurreratu du. "Era berean, 2021ean ere hobariak izango dira ur eta zabor tasetan eta terrazen kuotan, eta terrazen azalerak handitu egingo dira".

"Laguntzak berandu datoz"

EH Bilduk, laguntzak begi onez ikusi arren, Gobernuak gehia-



Aurreko egubakoitzean ostalariek egindako prentsa agerraldia. E.A.

Arrasateko Ostalariak sortu dute

Herriko 75 lokalek eta 300 langilek osatzen duten Arrasateko Ostalariak taldea sortu dute: "Pandemiaren hasieratik jasan dugun ezinegonari aurre egiteko". Taldearen helburua, kideen esanetan, Arrasateko ostalaritzak dituen beharrak identifikatzea eta asetzea izango da: "Gure partez inork egingo ez duela ikusi dugu eta". Era berean, adierazi dute ostalarien eguneroko beharrak defendatzeko, administrazioarekin elkarlana ziurtatzeko eta herriko talde, komertzio eta elkarteekin kolaboratzeko egingo dutela lan, eta herritarrei eskerrak eman gura izan dizkiete, "bihotzez", adierazitako babesagatik.

Pozik azaldu dira Udalarekin egindako lehen bilerarekin. "Aspalditik marjinatuta eta abandonatuta sentitu izan gara kolore guztietako politikarien zein udal teknikarien aldetik. Diskriminatuta sentitu izan gara beste sektoreekin alderatuz. Hala ere, orain arteko egoera aldatu daitekeelakoan gaude. Lehenengo pausoa eman dugu, baina, oraindik ere, bide luzea dago aurretik", diote.

Azaldu dutenez, hainbat konpromiso adostu zituzten, elkarlanean, urtarrilean martxan jarriko diren bileretan lantzeko, hala nola "COVID-19 garaia jarraitzen duen bitartean ostalari guztiak erraztasunak izatea terraza jartzeko, orain martxan diren terrazetan eginiko inbertsioetarako laguntzek luzapena izatea 2021ean ere eta terraza ordenantza egokia sortzea".

go egin zezakeela uste du. "Kredituak eta alokairuak ordaintzeko dirurik ez da emango, likidezia aldetik formularik ez da planteatu eta diru kantitatea handiagoa izan zitekeen". Era

berean, diote apirilean hiru orriko txostena aurkeztu ziotela Gobernuari: "Kaltetuak artatzeko informazio, aholkularitza eta laguntza bulego bat sortzea proposatu genuen".

Lau eguneko artisau azoka, Eskuarlean taldearen eskutik

Abenduaren 21ean (11:00-14:00), 22an (11:00-14:00 eta 16:00-20:00), 23an (11:00-14:00) eta 24an (11:00-14:00) izango da azoka, Biteri plazako karpan. "Azoka honetan artisau-artikulu asko daude, hala nola txotxongiloak, bitxiak, ilustrazioak, osagarriak, dekorazioa, zeramika, ehungintza eta beste gauza asko", azaldu dute taldeko kideek.

Dagoeneko eskuratu daiteke San Felipeko txartel eguneratua

Txartela eguneratu eta modernizatu egin du San Felipe Elkarlaguntzak, eta, txartel berria eskuratzeko, hitzordua eskatu beharko da aurrez, 943 77 30 22 telefonora deituta. "Era berean, jakinarazten da urteko kuotari dagokion ordainagiria, orain arte martxoan bidaltzen zena, datorren urtetik aurrera urtarrilean bidaliko dela", diote.

Txatxilipurdiren eskutik, Txikilandia eta GazteEkin

Txatxilipurdik bi egitarau antolatu ditu urtarrilaren 2tik 4ra: haur eta familientzako Txikilandia, batetik, eta 9 urtetik aurrerakoek gozatzeko GazteEkin, bestetik. Ekintzetan parte hartzeko, aurrez sarrerak erosi beharko dira, euro batean, informazio puntuan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Urtarrilaren 2tik 4ra, askotarikoko ekintzak egingo dituzte bi egitarau horien baitan: ipuin kontaketak, jolasak, irteerak, esperimazio txokoak, ginkanak, tailerrak eta bestelakoak (Egitarau osoa *Goiena.eus* webgunean dago ikusgai).

Sarrerak, informazio-puntuan

Ekintzetan parte hartzeko, sarrera eskuratu beharko da aurrez, kalean jarriko duten informazio-puntuan. Prezioa euro bat da, ekintzako eta pertsonako. Abenduaren 21ean, 22an eta 23an, Seber Altuben egongo da informazio-puntua, 12:00etatik 14:00etara; eta hilaren 28an, 29an eta 30ean, Biteri plazan, 18:00etatik 20:00etara. Sarrerak mugatuak izango dira, eta, agortzen doazen heinean, Txatxilipurdiko sare sozialen bitartez jakinaraziko diete herritarrei. Edozelan ere, ekintzaren egunean oraindik saldu gabeko sarrerak badaude

momentuan bertan eskuratzeko aukera egongo dela aurreratu dute. Horrez gain, familia zaurgarriek hiru ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute euro bat ordainduta.

Ekintzak, Uarkapetik kanpo

Aurten, ekintzak Uarkape pilotalekuan izan beharrean, besteak beste, herriko kaleetan, gaztetxean, ludoteketan, gazte txokoetan eta Biteri plazako karpan egingo dituzte. Horrez gain, osasun neurriak bermatze aldera, talde txikietan izango dira ekintzak, eta parte-hartzaile kopurua mugatuta egongo da. Hala ere, azaldu dutenez, hainbat txanda antolatzen ahaleginduko dira, "pertsona gehiagok parte hartu ahal izateko".

Azkenik, hainbat neurri hartuko dituzte, guztien segurtasuna bermatzeko, eta parte-hartzaile guztien konpromisoa beharrezkoa izango dela azpimarratu dute.



Martitzenean egin zuten prentsa agerraldia, ekintzen berri emateko. K.U.

NIRE USTEZ



GAIZKA ERAÑA

Bixer eta berandu

Estudiantetan, Bilbotik Arrasatera etozen autobusak San Frantzisko auzoko geltokittik urteten zien. Bilbon aste dana egindako askok egubakoitzian hartzen gauen etxerako autobusa. Oindion akorduen dauket, halako egubakoitz baten, geltoki sarreran pegautako papeliaren irakurritakue: *Autobuses mañana y tarde* eta aldemenien beste papel baten euskarara itzulitte, *Autobusak bihar eta berandu*.

Pandemiako atzeneko hillabete honeittan buruen ate joka euki dot gaztetako pasadizuoi. Agerixen gelditu da oso gatxa dala gaixotasun gogor honi aurre egittie eta sarritan takarraran hamaika neurri hartu bihar izan dittuauea. Hala eta guztiz be, esan biharra dauket baillarako herrixon erantzune oso desberdiñe izan dala, eta batzuk beste batzuk baiño hobeto moldatu diela.

Geurien, Arrasaten, Udala oso motel ibilli da konponbidiak emuteko orduen eta ez dattu ondo kudeatu bere esku dauzen baliabidiak. Espero deigun, ba, hemetik aurrera, laguntzak bixer eta berandu baiño, goixez eta atsaldetz emungo dittuala.

Gabonetako 50 otarreren zozketa



edo



edo



edo



edo



Sartu **ibaiarte.eus** webgunean eta utzi zure posta elektronikoa.

Erosketa-tiketari argazkia atera eta bidali **688 73 41 49ra**.

Erosi gure dendetan

Sartu gure Instagram kontuan eta partekatu gure argitalpena.

Sartu gure Facebook kontuan eta partekatu gure argitalpena.

▲ **Aukeratu saskia lortzeko modua.**



www.ibaiarte.eus





Mondrateko jokalariek eta Jon Zabala entrenatzailea, asteon, Musakolako kantxan. E.A.

Taldea indartuta, helburu argiekin

Atzerapenarekin, baina ekin dio 2020-2021 denboraldiari Mondratek, eta, lehenengo bi partiduetan lau puntu eskuratuta, "sentsazio onekin" dago taldea, igoera faserako sailkatzeko helburuari begira; aurtan, gainera, talde osatuagoa dute arrasatearrek

Eneko Azurmendi ARRASATE Normalean, urrian hasten dute denboraldia, baina pandemia dela-eta atzerapenarekin ekin diote sasoiari aurtan. "Lehenik, bi partidu atzeratu zituzten, eta, hasiera gindoazenean, beste hiru

partidu atzeratu zituzten", adierazi du Jon Zabala entrenatzaileak. Hala, abenduaren 6an ekin zioten denboraldiari. Lehenengo partidua launa berdindu zuten eta bigarreanean, berriz, erraz irabazi zioten Uxo tal-

deari: 8-2. "Araian jokatu genuen lehenengoa, Zirauntza taldearen kontra. 1-3 eta 2-4 irabazten joan ginen, eta irabazi genezakeen, baina nahiago dut lortutako puntua positiboki baloratu. Lau punturekin, hasiera ona egin

dugu eta sentsazioak ere onak dira", azaldu du Zabalak.

Talde osatua eta zabala

Aurtan, gainera, talde osoagoa eta zabalagoa daukatela azpimarratu du entrenatzaileak. "Hiru jokalariek deialditik kanpo geratzen dira astero. Niretzako ez da erraza aukeraketa egitea, baina uste dut taldearendako ona dela hori. Iaz, gutxiago ginen, eta lesioak zirela-eta bigarren taldeetik jokalariek igotzen aritu ginen. Horrek eragina du behereko taldean ere. Horregatik, aurtan, pozik gaude, talde osoagoa izateaz gain, lehiakortasun handiagoa ere badagoelako. Bestalde, jokalariek gazteak eta beterrak ditugu taldean, eta fusio hori ere oso inportantea da, oreka edukitzeko". Era berean, "ilusioz" eta "denboraldi ona egiteko gogoz" dago Zabala entrenatzaile lanetan bizi izaten ari den bigarren aldi honetan.

Igoera fasea jokatzea helburu

Arrasatearren lehenengo helburua igoera faserako sailkatzea da. "Bi multzotan banatuta gaude: batean, Bizkaiko zortzi talde daude; eta bestean, Gipuzkoako eta Arabako taldeak. Multzo bakoitzeko lehenengo laurak sailkatzen dira igoera faserako. Nik uste dut talde ona daukagula eta helburua lortzeko gai garela; hau da, lehenengo lauren artean sailkatzea. Behin hori lortuta, ikusiko dugu noraino hel gaitzkeen".


Babesle guztiei eskerrak

Aurtan, Etxoste eta Taupa tabernak eta Okoretegi kafetegia dira babesle nagusiak, eta baita beste hainbat ere: Iluntz taberna, Ingou, Kabuena baserria, Goxoa, Bar Nuevo, Azul ile-apaindegia eta Josu kafetegia. "Eskerrak eman nahi dizkiegu emandako babesagatik, babesle barik ezinezkoa izango litzateke eta taldea aurrera eramatea".

Goierri aurkari zuzenaren aurka


Domekan, 11:00etan, Zumarragan, Goierri taldearen kontra jokatuko dute, berez lehen jardunaldia izan beharko litzatekeena. "Atzeratutako partiduak ditugu orain. Aurkari zuzena da Goierri, haiek ere lehenengo lau postuetan sailkatzea dute eta helburu. Beraz, partidu gogorra eta zaila izango da, baina emaitza ona lortzera joango gara".

Lau taldekide batu dira aurtan




IBAN GALEANO
ATEZAINA

"Erronka moduan hartu dut, taldeari ahalik eta gehien laguntzeko asmoz. Gazteen errotimoa hartzen saiatuko naiz, nahiz eta zaila izan; ea denboraldi txukuna egiten dugun".




JOKIN ZEZIAGA
JOKALARIA

"Esperientzia handiko jokalariek ditugu taldean, eta haiengandik ikasi gura dut, ahalik eta gehien hobetzeko. Mailaz igotzeko lehen egotea espero dut, hori da helburua".



CHRISTIAN GALAN
JOKALARIA

"UDAn futbolearen aritu ostean, areto-futbolarekiko ilusioa piztu zait berriz eta Mondratera itzuli naiz. Taldekideek animatu ninduten bueltatzera, eta oso gustura ari naiz orain".



EROS CHINARRO
JOKALARIA

"Pozik nago, ilusio handia egiten dit lehen taldearekin jokatzeak aukera izateak. Taldekideek esperientzia handia dute Euskal Ligan eta haiengandik asko daukat ikasteko oraindik".



AS Reformak

• ERREFORMAK OROKORREAN
• BIZKAIAKUNTZA

Tel.: 607 95 79 11

www.asreformak.net
ARRASATE

*Hoberena opa dizuegu.
Urte berri on!*



Hirukotea, aurreko egubakoitzean Iruñeko Totem aretoan eskainitako kontzertuan. 'FOKUA.EUS'

'Duguna esateko' diskoa aurkeztuko du Perlatak

Gaur, arratsaldeko zazpitan, konfinamenduan argitaratutako abesti berriak eskainiko dizkie Perlata hirukoteak arrasatearrei, Biteriko karpan, santamasetako egitarauaren baitan. Kontzertua ikusi nahi duenak ordubete lehenago egon beharko du karpan

Hasier Larrea ARRASATE

Punk-rock talde batek diskoa argitaratzen duenean zuzenekoak izaten ditu jomugan, eta Perlatarena ez da salbuespena. Joan den martxorako gertu zeukaten hamaika abestiz osatutako lan berria, baita aurkezpen kontzertua ere, baina pandemiak gauzak "pentsatu bezala" egitea galarazi zien. Emanaldiak atzeratu egin zituzten; ez, ordea, abestien banaketa: kaleko presentzia galduta, Interneten elkarbanatu zuten disko osoa, lagunekin etxetik grabatutako bideoklip eta guzti. Garai hartan, bateri-jole berriaren bila zebiltzan Ane Garai eta Maialen Oleaga taldeburuak, eta Mario Cruz elorria-

rrarekin egin zuten topo. "2020ak eman digun onena izan da Mario, momentuz", diote Garaik eta Oleagak, eta jadanik hasiak dira hirurak batera konposatzen.

"Barruan dutena" ateratzeko

Sortzeko orduan "ezer konkreturik" bilatzen ez dutela adierazi dute Perlatako ordezkariak. Aitzitik, disko bakoitzak "bere momentua" daukala defendatzen dute: "Gure lanetako abestiek, askotan, ez dute elkarren artean zerikusirik, baina tokia egiten diegu nahi dutenean eta nahi duten moduan ateratzeko, hori da gure filosofia".

Era berean, argi daukate eurak bakarrik ez doazela inora, eta

"orain inoiz baino inportanteagoa" dela kulturatik elikatzen diren pertsona guztien lana eta konpromisoa. Ahotsenea egitasmoa jarri dute adibide gisa: "Egoera arraro honetara moldatzen jakin dute, egitarau indartsu bat osatuz". Santamasetako Komisiñuaren inguruan ere antzera mintzatu dira, antolatzaileen lana "eskertzekoa" dela esatea ahaztu gabe.

Aulkiak eta maskarak gustuko ez dituzten arren, jo dituzten kontzertuetan "asko" disfrutatu dutela ez dute ukatzen. Hala ere, gogoia dute lehengo berotasuna berreskuratzeko: "Kultur espazioak beharrezkoak ditugu; Biteri plazan ikusiko dugu elkar".

Orkestrak hari-instrumentuen kontzertua eskainiko du gaur

San Frantzisko elizan joko du Arrasate Musikaleko orkestrak haize-instrumenturik gabeko emanaldia

H.L. ARRASATE

Seber Altubeko elizak ez zuen jaso azaroan Santa Zeziliaren omenez bandak egin ohi duen urteroko kontzertua, baina hutsune hori betetzeko saiakera egingo du, bandaren orde, Arrasate Musikaleko orkestrak gaur, 19:30ean hasita.

Segurtasun distantziak errespetatzeko, haize-instrumentuak jotzen dituzten musikariak ez dira oholtzara igoko; soilik hari-instrumentuak jotzen dituztenek izango dute tokia, 30ek, eta 95 ikusle baino ezingo dira gerturatu. Arrasate Musikaleko bazkideen artean banatu dira sarrera gehienak, baina oraindik badago eskuratzeko aukera.

Estilo askotariko erreperitorioa egongo da entzungai Iker Olazabalek zuzenduko duen emanaldian: *concerto grosso* eta serenata bana, lau kantu alaiz

osatutako suitea eta Carlos Gardel argentinarraren *Por una cabeza* eta *El día que me quieras* tango ezagunak, zehatz esanda.

Abenduaren 26an, berriz, Big Bandaren hamabost partaidek eskainiko dute kontzertua, Amaia antzokian, Ibai-arteren eskutik. Doako sarrerak agortzeaz daude eta merkatarien elkarte horren webgunean eskura daitezke.

COVID-19a, oztopo

Hainbat eragozpen jarri dizkie koronabirusak urte osoan zehar Arrasate Musikaleko partaideei. Orkestrak lehen hiruhilekoan eskaini ohi duen zarzuela ez zen egin, eta musikari baten positiboagatik zenbait kidek konfinatu behar izan zuten bi astez.

Bandak, gainera, La Mercedesko eraikinean entseatu du azken asteetan, beste bi entsegu lokal txiki gelditu zaizkiolako.

Bertso saioa Amaian eta doinu akustikoak gaztetxean, bihar

Santamasetako egitarauaren eskutik, kulturaz gozatzeko arratsaldea izango da zapatukoa. 19:00etan, punta-puntako bertsolariak egongo dira Amaia antzokian; tartean, Ane Zuazubiskar arrasatearra, Uxue Alberdi, Beñat Gaztelumendi eta Aitor Sarriegirekin batera. Bertso saioa AEDk antolatu du eta Saroi Jauregik jarriko ditu gaiak.

Ordubete lehenago, gaztetxeko emanaldiak hasiko dira, Fito Skins bikotearen eta Sukena hirukotearen abestiek. Gitarra akustikoak eta ahotsak izango dira, beraz, nagusiki entzungo direnak. Fito Skins azkenaldian nahiko aktibo dabil eta inguruko talde ezagunen bertsoiak eskaintzen ditu, Sukena taldeak bezala. Azken horiek oñatiarrak dira, eta, herrikideekin egiten duten bezala, gaztetxera hurbiltzen direnak kantuan jartzen saiatuko dira.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gu ere arrasatearrekin!

Iturriotz 21 • Tel.: 943 79 03 84 • eya@telefonica.net
ARRASATE

arbolapeta

&

arrasate

beinke



Olentzero umeei opariak banatzen. ARTXIBOKO IRUDIA

Guztiek gozatzeko eskaintza egongo da ezohiko Gabonetan

12 urtetik gorakoei zuzendutako bi tailer egingo dituzte; horrez gain, etxeko txikienek antzerkiaz, ipuinez eta puzgarriez gozatzeko aukera izango dute. Trikiti eskolako ikasleek, bestalde, emanaldia eskainiko dute eguaztenean, 3 euroren truke

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Ekintzak beteta egongo dira Gabon egunak. Bestelako Gabonak izango diren honetan, adin tarte gutxiei bideratutako egitaraua antolatu dute.

"Orain arte, umeei antolatutako ekintzak egin izan dira Gabonetan; baina aurten, erabaki dugu gazteei ere euren tartetxo eskaintzea", azaldu du Kultura teknikari Itsaso Aspiak. Hori kontuan hartuta, 12 urtetik gorakoentzako tailerrak egingo dituzte, "eurendako erakargarriak" izango direnak.

Kirol eta arte eskaintza

Egoerara egokitutako tailerrak izango dira: plaza kopurua mugatua izango da eta indarrean dauden segurtasun neurriak errespetatu beharko dira. Gainera, tailerrak aire librean egi- tea lehenetsiko dute.

Nabarmendu behar da abenduaren 26rako aurreikusita zegoen *celografiti* tailerra bertan behera utzi behar izan dutela.

Abenduaren 29an, martitzena, *kangoo jumping* tailerra egingo dute, kiroldegian. Hanketan oinetako berezi batzuk jantzita jauzika koreografia ezberdinak egitea da *kangoo jumping* delakoa. 17:00etan izango da eta izena eman beharko da, abenduaren 22rako, udaletxean: "Gainera, izena ematerakoan esan beharko du bakoitzak ze oinetako zenbaki duen eta zenbat pisatzen duen; horren arabera,

'KANGOO JUMPING'-A EGITEKO, OINETAKO ZENBAKIA ETA NORBERAREN PISUA ESAN BEHAR DIRA

pertsona bakoitzarendako egokienak diren oinetako bereziak ekarriko ditu Jostari enpresak".

Urtarrilaren 4an, *slackline* tailerra egingo dute, parkean, 17:00etan. Orelatu elkarteak izango du tailerra antolatzeke ardura: zuhaitz batetik bestera zinta bat jarri eta zinta gainean oreka lortzea izango da helburua. Gazteen abileziak agerian jarriko dituen ekintza izango da. Abenduaren 29a baino lehen eman beharko da izena *slackline* tailerrean parte hartzeko.

Aipatutako hiru tailerrak 12 urtetik gorakoei zuzendutakoak izango dira eta plaza mugatuak izango dira.

Txikiendako eskaintza

Ohiko Gabonak izango ez diren arren, ohiko egitarauan jaso izan diren beste hainbat ekintzak ere izango dute lekua aurten.

Bertso saioa: sarrerak erreserbatu

Gaur, barikua, egingo dute Gabonetako bertso saioa, kultura etxean. Lau bertsolari ibiliko dira kantuan: Aitor Ugarte, Oihana Iguaran, Aitor Sarriegi eta Xabi Igoa. Gai-jartzaile lanetan Aramaio bertso eskolakoak ibiliko dira. Eskarmentu handiko bertsolariak eta gazteak, denak batuko dira oholtzaren gainean gaurko bertso saioan. Aitor Sarriegi beasaindarra izango da saioko beteranoena; ondoan izango du Oihana Iguaran Villabona-Amasako bertsolaria. Etxeko bertsolariak ere izango dute tokia: Xabi Igoak eta Aitor Ugartek abestuko dute kultura etxeko oholtzan.

Saioa 19:00etan izango da eta sarrerak aurrez erreserbatu beharko dira, Internet bitartez. *Entradium.com* atarian eskuratu beharko dira sarrerak: Internet bitartez erreserbatu egingo dira; izan ere, ordaindu leihatilan bertan egin beharko da – 5 euro–, momentuan. Azkenaldian egin izan diren kultur ekitaldietan moduan, antolatzaileek ezarritako arauak jarraitu beharko dira segurtasunari dagokionez.

Kultura etxeko edukiera mugatuta dagoela kontuan hartuta, azkeneko bertso saiorako sarrera guztiak berehala agortu ziren; hala, Kultura Saileko ordezkariak adierazi dute gaurko bertso saiorako oraindik geratzen direla sarrerak –lerro hauek idazterakoan, bazeuden sarrerak–.

Olentzero mezuarekin etorriko da?

San Martin Eskolako Guraso Elkarteak antolatu ohi du abenduaren 24an egiten den kalejira eta ondoren Sastiñan egin ohi den Olentzeroren eta Mari Domingiren ekitaldia. Aurten, baina, osasun egoera ikusita, erabaki dute ez dutela horrelakorik antolatuko. Hala ere, badute asmoa zerbait egiteko, eta azkeneko egun hauetan horretan lanean ibiliko dira.

Beharbada, etxeko txikienek izango dute Olentzeroren eta Mari Domingiren berri. Izan ere, Euskal Herriko ikazkin ezagunena teknologia berrietan trebatu dela dirudi eta horiek baliatuz Aramaio haurrei mezu bat bidali nahi die. Hain zuzen, bai gurasoak eta baita etxeko txikiak ere adi egoteko eskatu dute San Martin Eskolako Guraso Elkarteko kideek.

Etxeko txikienei zuzendutako ekintzen kasuan, urtero antolatu izan dituzten ekintzekin aurrrera egitea erabaki dute. Hiru ekintza egongo dira: ipuin kontalaria, puzgarriak eta antzerkia. Umeendako bi tailer antolatu dituzte: abenduaren 28an Olentzero egiten ikasiko dute, kultura etxean, 12:00etan. 4 urtetik gorako haurrendako izango da, eta izena eman beharko da ludoetean abenduaren 22a baino lehen; bigarren tailerrean Gabonetako apaingarriak egingo dituzte. Kultura etxean izango da, abenduaren 30ean, 12:00etan.

ABENDUAREN 23AN, TRIKITI ESKOLAKOEK EMANALDIA ESKAINIKO DUTE KULTURA ETXEAN

4 urtetik gorakoendako, eta ludoetean eman beharko da izena abenduaren 22a baino lehen.

Abenduaren 29an, umeei zuzendutako antzerkia eskainiko dute kultura etxean: *Oparia*. 17:00etan izango da. Abenduaren 31n, eguena, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria izango da kultura etxean. Bi saio eskainiko ditu: 11:30ean, 3 eta 5 urte bitarteko umeendako; eta 12:30ean, 6 urtetik gorakoendako. 2021eko urtarrilaren 4an, puzgarriak jarriko dituzte kiroldegian, txikieneen gozamenarako. 16:30ean izango dute hizordua.

Trikiti eskolako emanaldia

Trikiti eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute abenduaren 23an, eguaztana, 19:00etan, kultura etxean. Sarrera 3 euro izango da.

"Zuri-beltzeko argazkiak zuzenagoak dira"

ALEX MENDIKUTE ARGAZKILARIA

'Aramaioarrak' argazki proiektioa eskainiko du Alex Mendikute argazkilariak bihar, kultura etxean. 2019an herritarrei egindako argazkien bilduma erakutsiko du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
"Lapuritutako" argazkiak izango dira biharko proiektioan erakutsiko dituen gehienak; herritarrei Aramaion bertan egindakoak. Urteroko hitzordu bilakatu da Mendikuteraren argazki proiektioa. Herritarrek ondo baino hobeto ezagutzen dute Mendikutek zuri-beltzeko argazkiekiko duen maitasuna. 18:00etan izango da saioa, kultura etxean.

Zer eskainiko duzu biharko proiektioan?

Nik egindako argazkiak erakutsiko ditut. Argazkien bilduma bat osatzen dut eta musikarekin lagunduta proiektioa osatzen dut. Garai batean, proiektioa tabernetan ere egiten nuen, baina orain ezin da horrelakorik egin.

Herrian egindako argazkiak izango dira, eta herritarrei egindakoak?

Bai, aramaioarrak izango dira argazkietako protagonistak. 2019an egindako argazkiak izango dira. Proiektioak 24 bat minutu iraungo du.

"Lapuritutako" argazkiak direla diozu. Non egindakoak dira?

Dagoeneko herritarrek ezagutzen naute eta badakite zer argazki mota egiten dudun. Proiektioak argazki asko dira lapuritutakoak; hau da, ekitaldietan edo beste-lako ekintzaren batean herritarrei ateratako argazkiak. Horrez gain, badaude herrian zehar, auzoetan egindako argazkiak: izan daitezke auzo lanean dabilzanean egindakoak, paseoan dabilzanean egindakoak...

Musikak lagundutako proiektioa izango da?

Bai, hala da. Musikak lagunduko die argazkiei.

2010ean hasi zenuen lehenengo saioa eta ordutik ez duzu hutsik egin.

Urtero egiten dut, eta, esan bezala, 2010ean hasi nintzen. Aurtengo urtea berezia izan da, baina, hala ere, ibili naiz ar-



Argazkilaria, kamera eskuetan duela. ARTXIBOA

"AURTEN ERE IBILI NAIZ ARGAZKIAK EGITEN ETA ESPERO DUT 2021EAN ERE PROIEKTIOA EGITEA"

gazkiak egiten eta espero dut datorren urtean ere proiektioa egitea.

Hala ere, konfinamendu garaian egin zenuen muntaia txiki bat.

Bai, konfinatuta egon ginenean egin nituen argazki batzuk eta horiekin muntaia berezi bat egin nuen. Ikus daitezke herriko kaleak hutsik, jendea balkoietan, jendea dendara erosketa egitera doala... Egindako muntaia Udalaren webgunean jarri genuen eta esan behar da arrakasta handia izan zuela.

2021ean ere egongo da, hortaz, beste proiektio bat?

Bai; ahaleginduko gara zerbait egiten. Egia da aurtengo urtean ez dela ekitaldirik, jairik edo bestelako ekintzarik egon, baina, hala ere, esan bezala, ibili naiz argazkiak egiten, eta horiek guztiak batu eta zerbait egingo dugula uste dut.

Zure argazkiak zuri-beltzean egindakoak izaten dira. Zergatik duzu gustuko ezaugarri hori?

Niretako zuzenagoak izaten dira zuri-beltzeko argazkiak. Garrantzia ematen zaio momentuari, argia non dagoen... Begirada eramaten duzu esan nahi duzun horretara, eta ez horrenbeste koloreek esan nahi dutenera. Ez diezu arretarik jartzen jantzien koloreei, margoei... Garrantzia ematen diozu esan nahi duzun horri.

Argazkilari moduan hori da zure ezaugarria?

Bai, esango nuke baietz, eta hemen, Aramaion, badakite nire ezaugarria zein den.

Ze adinetako jendea joaten da proiektioa ikustera?

Denetarik etortzen dira; izan ere, argazkietan adin guztietako jendea agertzen da.

Aurten, kultura etxean izango da saioa, eta edukiera mugatuarekin.

Bai, segurtasun neurriak bete beharko dira. Esan didate kultura etxean 80 lagunendako tokia dagoela; baina, egia esan, proiektioetara ez da horrenbeste jende etortzen. Espero dut jendea etortzea eta argazkiak gustuko izatea.

Urtea umorez amaitzeko, meme lehiaketa egingo dute

Abenduaren 29a baino lehen bidali beharko dira sortutako memeak 'itxasokultura@gorbeialdea.eus'-era

A.E. ARAMAIO

Aramaioako Udalak meme lehiaketa antolatu du. 2020a umorez amaitzeko modu egokia izango da. 12 urtetik gorakoei zuzendutako lehiaketa izango da. Parte hartzeko aramaioarra izan beharko da, ezinbestean.

Hiru kategoriatan banatuko dute lehiaketa: A multzoan, 12 eta 15 urte bitartekoak egongo dira; B multzoan, 16 urtetik 18 urtera bitartekoak; eta C multzoan, 19 urtetik gorakoak.

Gaia librea izango da

Interneteko kulturaren, memea umorezko mezu sinplea da, zabalakuntza handi eta azkarrekoa, eta oinarrian, gehienetan, irudi bat izaten du.

Lehiaketara aurkezteko erabiliko den irudia norberarena edo beste nonbaiten eskuratua izan daiteke. Memea sortzeko

gaia librea izango da, eta irudi bakarra edo sekuentzia bakarra osatzen duen irudi bat baino gehiago izan dezake. Ez dituzte onartuko pertsonaren askatasunaren eta duintasunaren aurkako mezuak.

Sariak: 50 euro kategoriako

Sortutako memeak bidaltzeko epea abenduaren 29an amaituko da. Posta elektronikoz bidali beharko dira, itxasokultura@gorbeialdea.eus helbidera.

Mezu horretan, sortuta lanaz gain, parte hartzailearen izen-abizenak, jaiotza-data eta kontakturako telefono zenbaki bat ere jarri beharko dira.

Kategoria bakoitzeko sari bakarra egongo da: 50 euro banatuko dituzte kategoriako. Lehiaketa antolatzeko laguntza Vital Fundazioetik jaso du Aramaioako Udalak.

Obrak hasi dituzte San Martin eskolako musika gelan

San Martin eskolan obretan dihardute azken asteetan. Izan ere, musika gela handitu egingo dute –musika gela eta ondoko bildegia batuta–, eta, modu horretan, erabilera askotariko gela bat egokituko dute. Lanek hila-bete inguru iraungo dute. Aipatutako lanak egiteko Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango du Aramaioako Udalak.



Obrak musika gelan. ESKOLA

'Mari-mutil handi baten bluesa' aztergai urtarrilean

Irakurle klub feministak dagoeneko aukeratu du urtarrileko liburua: *Mari-mutil handi baten bluesa* irakurri beharko dute, eta ondoren aztertu. Urtarrilaren 18an izango da hurrengo solasaldia.

Interesa dutenek liburua maileguan eskatu ahal izango dute liburutegian; gainera, hurrengo solasaldietarako ere sistema

bera erabiltzeko aukera izango dute; hau da, mailegua.

Mari-mutil handi baten bluesa Leslie Feinberg aktibistak idatzitako eleberria da, 1993an –jatorrizko izenburua: *Stone Butch Blues*–. 1970eko hamarkadako AEBetan kokatzen da nobela, eta Jess Goldberg pertsonaiaren bizitza agertzen da. Genero identitatea da gai nagusia, eta eleberrian agertzen da, besteak beste, garai hartan AEBetan LGBT+ jendearen kontra zegoen errepresio bortitza.



Herriko artisau, ekoizle eta merkatari batzuk Durana kalean. MIRARI ALTUBE

Berritasunekin dator seigarren Neguko Azoka

Herriko 24 artisau, ekoizle eta merkatari elkartuko dira bihar, zapatua, Durana eta Mitarte kaleetan, eta goizez eta arratsaldean izango dituzte postuak zabalik. Gainera, umek Olentzerori eta Mari Domingiri idatzitako gutunak utzi ahal izango dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Egun bakarrean egingo da aurtengo Neguko Azoka; bihar, zapatua, hain zuzen ere. Egun osoan izango dira postuak zabalik, honako ordutegi honetan: 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Herriko Plazan beharrez bi kaletan banatuko dituzte postu horiek: Duranan eta Mitarten. "Formatu berria pentsatu behar izan dugu, ezohiko egoera honek behartuta. Era berean, uste dugu aukera bat dela azoka erdiko kaleetara zabaltzeko", adierazi du Ainhoa Cabero zinegotziak. Segurtasun neurriak bete eta pilaketarik ez egotea bermatu gura dute aldatetarekin.

Gabonen atarian izanik, Olentzero eta Mari Domingi ere bertan izango dira; horien irudiak

Herriko Plazako erakusleihotik kalera eroango dituzte, neska-mutikoei idatzitako gutunak bertan utzi ahal izateko.

Herria kontsumitzea helburu

Aretxabaleako ekoizleek eta artisauak ekoiztutako produktuen eta herriko merkatariaren erakusleio izan gura du, beste behin, Neguko Azokak. "Ea Aretxabalean bertan kontsumitzeak duen garrantziaz jabetzen garen guztiok. Gainera, artista mordoa ditugu gure herrian", azaldu du Caberok.

Askotariko eskaintzak izango direla aurreratu du; besteak beste, postuetan izango dituzte larrua, zilarra, pintura-lanak, ilarako osagarriak eta arropa; baita jakete produktu batzuk ere: gazta, urdaiazpikoa eta ezta, esaterako.

Hona hemen azokan parte hartuko dutenak: Hanka beltz, Kiloka, Belar Meta, Tak, Txillarra, Amaia ume denda, Iban Urreta, Nerea Maskariano, Lara Gonzalez, Amaia Otadui, Izaro Sanchez, Maria Zubillaga, Eloisa Arribas, Ariane Unanue, Itsaso Aldai, Miriam Carretero, Almila Shop, Mari Gonzalez, Idoia Elexpuru, Lur Pagoaga, Lara Garcia eta Mari Luz Osorio. UDAko kideak ere izango dira, urtero legez, eta Zaporeak GKEk dirua batzeko ateratako materiala ere jarriko dute salgai.

Postuendako karpak jarriko dituzte, batetik, eta, bestetik, merkatariak erakusmahaiak aterako dituzte saltokien aurrera. Herriarren joan-etorrietarako ibilbide bat zehaztuko dute.

Gaztelekuaren pleguen gaineko Udal Gobernuaren argibideak

Erabilitako irizpideak ekonomikoak izan direla argi utzi dute, eta beste zerbitzu batzuetan ere erabiliko dituzte

M.A. ARETXABALETAKO

Gaztelekuaren zerbitzuaren esleipen pleguei EH Bilduk joan den astean egindako "kritikari" erantzun gura izan dio Udal Gobernuak. Argitu du erabilitako irizpideak beste zerbitzu batzuetan ere erabiliko dituztela: "Lehenik eta behin, esan beharra daukagu ez gurela gazteleku zerbitzuaren balorazioarekin sartuko, halaberrez tokatu baita irizpide berriekin lehen lizitazioa izatea. Aurreratu genezake kiroldetako kasuan, hurrengo lizitazioa izango dena, irizpide bera erabiliko dugula".

Irizpide horien helburua ekonomikoa dela ere argi utzi gura izan dute: "Garbi esaten dugu ematen ez diren zerbitzuak ez ordaintzea dela helburua. Beharrezko deritzogu, batez ere, aurten bezala, diru sarrera murrizketa sakonak jasaten direnean. Ez gure nahi, eta ez dugu uste gertatuko denik, baina martxoko murrizketak berriz ezarriko balira udal ekonomia babesteko neurriak ezartzen ari gara".

Ukatu egin dute Udal Gobernuak ETT baten antzik duenik edo lehen eta bigarren mailako

langileak daudenik, EH Bilduk "leporatu" bezala: "EH Bilduri galdetu nahi genioke ea zein den langile hauen eta administratzaileentzat lan egiten ez duen gehiengoak jasango lukeen kaltean alde. Nor da langileen artean lehentasunak jartzen dituenak? Non geratzen dira %80ko soldaterekin lanean segitzen duten kooperatibako kideak? Non langabeziara joan direnak? Edo egoera bereberetan ERTEan daudenak? Zergatik dira gutxiago? Ez dezagun ahaztu horiek direla administrazioak lan egin ahal izateko aberastasuna sortzen dutenak. Zein langile defendatzen du EH Bilduk?".

Azken urteetako kudeaketa "bikaina" izan delako Udalaren egoera "ona" dela adierazi dute, eta horregatik aurten gai izan direla "estatusunik gabe" aurrera egiteko, behar handiena dutenei zerbitzuak "indartzeko" eta kaltetueni dirulaguntzak bidertatzeko. "Ikuspegi ankerra behar da benetan ostalaritzaren dirulaguntzak gai honekin nahasteko, nahiko lukete antzeko egoera bat izatea. Zuek atera kontuak nor den lehen eta bigarren mailan sailkatzen dituen langileak".

Neguko ekintzak antolatu dituzte gaztelekuan

Atxagazte gaztelekuak hainbat ekintza antolatu ditu Gabon sasoirako, 12 eta 16 urte arteko nerabeendako. Izena emateko epea zabalik dago –azken eguna abenduaren 20a, domeka, izango da– eta horretarako honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 688 84 38 15.

Abenduaren 26tik 30era bitartean *Gabon konkis* izeneko jarduera izango dute lehen ziklokoek, 12 eta 14 urte artekoek. Eta urtarrilaren 4an eta 5ean ere atek zabalik izango dituztela iragarri dute bertako kideek. Bigarren ziklokoek, 14 eta 16 urte artekoek, eurek erabakitako ekintzak egiteko aukera izango dute bi egun horietan.

OHARRAK

Liburu aurkezpena

Oihana Arana Cardenal eskoriatzarrak *Portuak* lehen liburua aurkeztuko du, Ane Zuazubiskar kazetariak lagun eginda. Gaur, egubakoitza, izango da, Arkupen (19:00).

Organo kontzertua

Aitor Olea organo-jotzaileak emanaldia eskainiko du bihar, zapatua, parrokiaren (20:00). Gabon ukituko kantuak joko ditu, besteak beste.


'Esnatu naiz' kabareta

Dantza eta musika batzen dituen *show*-arekin izango da Andoni Mutiloa domekan (19:00), Arkupen. Identitatea eta sexualitatea landuko ditu, besteak beste.



LUR PAGOAGA
EKOIZLEA

"Baserriko produktuak ekarriko ditut: gazta, txorizoa, intxaurrek... Gogorra izaten dabil urtea, eta aprobetxatu egingo dut azoka hau".



MARIA ZUBILLAGA
ARTISAUA

"Oihalez egindako produktuak izango ditut: diademak, umeendako kontuak, poltsak... Nik neuk eskuz egindakoa da guztia".

Erakusleio lehiaketa

Erakusleio dotoreenek sariak izango dituzte aurten ere eta horietako bat herritarrek aukeratu ahal izango dute, hilaren 16tik 23ra bitartean botoa emanda –horien artean 50 euroko bonua zozketatuko dute–. Abenduaren 28an banatuko dituzte sariak.

Adinekoei errespetua lantzen nerabeekin

Aretxabaeta Lagunkoiak deitutako idazlan lehiaketan hartu dute parte Kurtzebarri institutuko ikasleek. Astelehenean banatu zizkieten sariak lan onenak idatzitako 22 gaztetxoei, eta antolatzaileak "oso gustura" agertu dira emaitzarekin

Mirari Altube ARETXABAETA

Adinekoei errespetua gai hartuta, idazlan lehiaketa deitu zuen Aretxabaeta Lagunkoia taldeak martxo inguruan, eta Kurtzebarri institutuko 140 ikasleek baino gehiagok hartu zuten parte. Astelehenean banatu zituzten sariak, eta 22 ikaslek jaso zuten aipamena; sari nagusia Larraitz Lasarendako izan zen, bigarrena Arantzazu Blazquezendako eta hirugarrena, Maia Etxebarriarendako.

Konfinamenduan idatzitakoak

"Pertsonen arteko errespetua eta maitasuna oso garrantzitsuak dira guretako", azaldu zien Aretxabaeta Lagunkoia kide Pedro Etxebarriak Arkupe kultur etxeko aretoan elkartutako gaztetxoei. Otsail inguruan joan ziren talde horretako hainbat kide institutura, zelan jorratzen duten hori ezagutzera: "Elkarbizitzari dagozkion hainbat gai lantzen ditugu, adinekoena ez izan arren zehazki, eta horren berri eman genien", dio Juan Carlos Pascual *Pasku* zuzendaria. "Pozik" entzun zituzten azalpenak, eta hortik abiatuta elkarlanari ekin zioten: "Konfinamendua iritsi zen orduan. Eta mugarrria izan zen hura; izan ere, erabaki zen idazlan lehiaketa deitzea, ikasleek etxean zeuden bitartean egin zezaten".



Hiru irabazleak eta eskolako, Udaleko eta Aretxabaeta Lagunkoia ordezkariek. M.A.

keta deitzea, ikasleek etxean zeuden bitartean egin zezaten".

Aukeraketa lan "zaila"

Adineko baten lekuan jarri eta haren egunerokoa kontatu dute idazlanetan. 140 baino gehiago jaso zituzten eta sekulako lana izan dute horiek guztiak irakurri eta onenak hautatzen. "Lan zaila", Etxebarriak onartu zenez: "Zoragarria izan da. Lan ederrak izan dira eta 22 aukeratzea ere kosta egin zaigu. Lehen saria irakurtzean batek baino gehiagok negar egin du".

Balioa eman taldeari

Aretxabaeta herri oraindik eta atseginagoa eta erosoagoa izan dadin dihardu lanean Aretxabaeta Lagunkoia, eta Karmele Uribarri Ongizate zinegotziak balioa eman zion horri ikasleen aurrean: "Interesgarria da, adinekoak eurak direlako protagonistak, batetik, eta ikuspuntu integrala dutelako, bestetik". Eta horiekin elkarlanean jarraitzeko asmoa agertu zuen: "Pozik gaude ekimen horrekin, eta, hala, jarraituko dugu haien lana sustatzen".

Ostalariak laguntza zuzenekin lagundu gura ditu Udalak

Ostalaritza zerbitzu bakoitzari 300 euro emango dizkio eta 600 euro lantaldeko langile autonomo bakoitzeko

M.A. ARETXABAETA

Herriko ostalariak oso kezkatuta daude bizi duten egoerarekin. Askok zabaldu zituzten atek zapatuan, baina gaur berriz itxi beharrean izan dira, azken hamalau egunetako intzidentzia tasa 500etik gora duelako Aretxabaetarako. Udala kezka horren jakitun da; izan ere, ostalariak manifestazioa egin zuten azaroaren 27an, eta ondoren, bilera alkatearekin, abenduaren 7an. Horiek guztiak jakinik, ezohiko dirulaguntza lerro bat abian jartzea erabaki du.

60.000 euroko partida

Eguaztenean egindako Gobernu batzordean onartu zuten laguntza lerro hori. "Ostalaritzako enpleguari eta jarduerari eusten laguntzea eta sektorearen itxierak eragindako galerak arintzea izango du helburu", adierazi du Unai Elkoro alkateak.

60.000 euroko partida bat da onartu dutena, eta honela banatuko dute diru hori: establezimendu bakoitzak 300 euroko zenbateko finkoa; langile autonomo bakoitzeko, 600 euro; eta soldatapeko langile bakoitzeko, azaroari dagokion Gizarte Segurantzako kuotaren kostua, 600 euroko mugarekin. "Lanpostuak mantentzea da guretzat garrantzitsuenak, eta, horregatik, langile kopuruaren arabera banatzea dirua erabaki dugu", dio Elkorok.

Laguntzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jarriko dira indarrean, eta

abenduaren 31 bitartean egin ahal izango dituzte eskaerak ostalariak.

Terrazak eta zaborra

Udalak beste neurri batzuk ere hartuta ditu ostalaritzari laguntzeko; terrazen tasak, esaterako, aurten bezala datorren urte osoan ere ez dituzte kobratuko. Gainera, 2021eko aurrekontuetan terrazak egokitzeko inbertsioei laguntzeko dirulaguntza lerro bat sartzea aurreikusitako dute.

Bestetik, zaborraren tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira 2020ko laugarren hiruhilekoan. Horretarako, ordenantza fiskalak aldatuko dituzte hurrengo osoko bilkuran. 2021ean, oster, tasa horren hiruhileko ordainagiriaren %50 ordainduko dute. Ura, oster, kontsumoaren arabera ordaintzen dabilta.

Laguntzeko borondatea Udalak

Igor Ezkibel ostalaria gustura agertu da Udalaren erantzunarekin: "Beti egon da gertu ostalariokin batera laguntzak adosteko eta laguntzeko borondatea erakutsi du. Baina laguntzak dira; eta horiekin ez gara iristen ditugun zorrak ordaintzera". Kontu honetan Udalak zenbateko ardura duen ere zalantza dauka, murrizketak Espainiako Gobernuak eta Jaurlaritzak agintzen dituzte eta. Gaineratu du egoera "oso txarrean" dagoela herriko ostalaritza: "Zorpetzen gabiltza, jakin barik bihar negozioa izango dugun edo ez".



ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

Fiskala • Kontablea • Juridikoa eta laborala

LEKUZ ALDATU GARA!

Araba ibilbidea 20A, behea • Aretxabaeta • 943 79 29 26 • joseluis@asesoriaandramari.com

Gabonetako kultura egitarauan, musika ardatz

Zaldibar antzokian eta Manuel Muñoz kiroldegian zenbait hitzordu antolatu dituzte gaur hasi eta urtarrila bitartean. Batez ere, musikak izango du protagonismoa, eta guztietarako gonbidapena beharko da –zehaztasun gehiago, udal webgunean–

Imanol Beloki ESKORIATZA

Musikak izango du protagonismo handien gaurko hitzordutik hasi eta urtea bukatu aurretik Eskoriatzan izango direnetan. Gaur, esaterako, ez da musika zuzenean entzuteko aukera izango, baina Enrique Villarreal *El Drogas* musikari nafarrari buruzko dokumentala izango da ikusgai Zaldibarren. Hala, Barricada rock taldean egindako 30 urteen gaineko errebasoa ezagutu ahal izango dute bertaraten direnek. 19:00etan izango da proiektzioa, eta dokumentala ikusi nahi dutenek gonbidapena eska dezakete; Whatsappez (650 49 51 66) eskatu beharko dira sarrerak. Banatzen ez dituzten gonbidapenak, berriz, leihatilan jarriko dituzte salgai, dokumentala hasi baino ordu erdi lehenago.

Musika bandaren saioa

Zapatuan, aldiz, musika eskolako bandak kontzertua eskainiko du Manuel Muñoz kiroldegian, 19:30ean. Kasu horretan ere, gonbidapena beharko da hitzordura joateko. Horretarako, hain zuzen, musika eskolara joan edo telefonoz deitu beharko da, gonbidapenak eskuratzeko. Besteak beste, *Highlights from Harry Potter*, *Return*



Pauline & Juliette, Iparraldeko musikari gazteak. PAULINE & JULIETTE

GONBIDAPENA BEHARKO DA GABONETAKO KULTURA HITZORDU GUZTIETARAKO

of the Crusaders eta *Shut up and dance* piezak entzuteko aukera izango da.

Gaurko eta biharko saio hauekin batera, martitzenean, Iparraldetik etorritako Pauline & Juliette musikari gazteek mu-

sika emanaldi goxoa eskainiko dute Zaldibar antzokian. Bi artistek *Veloma* lan berriko kantak aurkeztuko dituzte.

Xabier Leteren gogoan

Xabier Leteren heriotzaren 10. urteurrena gogoratzeko emanaldia eskainiko du Jon Sarasuak. Leteren ibilbidearen interpretazio pertsonal bat taularatuko du, Leteren kantagintza laburbiltzen duten hamabi kanta interpretatuz. Hitza eta kantua nahastuko ditu, gitarrarekin eta pianoarekin jantzita.

GORA ETA BEHERA



IRATXE ARRESE

Lur-jausia Marin auzoko harri-lubetan

Duela bi hilabete inguru Marin auzoko kanposantura bidean egindako harri-lubetan lur-jausia izan berri da. Bertatik egunero pasatzen direnek "arriku handia" dagoela adierazi dute.



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Enpresentzako dirulaguntzak eskatzeko epea luzatu egin dute

Urtarrilaren 14ra arte luzatu dute pandemiak sortutako ondorioei aurre egiteko bi dirulaguntzak eskatzeko epea

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak, 2020ko azaroaren 18ko alkate erabakiz, COVID-19ak sortutako krisi ekonomiko eta sozialaren eraginpean dauden enpresei laguntzeko bi dirulaguntza argitaratu zituen. Batetik, higiene eta babes neurriak ezartzeko dirulaguntzak; eta, bestetik, enpleguari eusteko hagei langile baino gutxiagoko enpresentzako dirulaguntzak.

Iragarkiari publikatu zirenean dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea 2020ko abenduaren 11n bukatzea erabaki bazen ere,

alkateak abenduaren 4an hartutako erabaki bitartez eskaera epea luzatzea erabaki du; hori horrela, aipatutako bi dirulaguntzak eskatzeko epea 2021eko urtarrilaren 14ra arte izango da.

Informazio gehiago jaso eta dirulaguntzak eskatzeko bete beharreko oinarriak eta eskaera orria eskuratu nahi dituenak Eskoriatzako udal webgunera jo dezake. Hain zuzen ere, eskabideak eta agiriak Eskoriatzako udaletxean bertan edo egoitza elektronikokoan aurkeztu beharko dira.

Gabonetako kultura egitaraua

Gabonetako kultura egitarauko hitzorduetara joan nahi duenak gonbidapena eskatu beharko du, Whatsappez: 650 49 51 66. Banatzen ez diren gonbidapenak, aldiz, leihatilan jarriko dira salgai, emanaldia hasi aurretik.

Abenduak 18

- 'El Drogas' dokumentala 19:00etan, Zaldibar antzokian.

Abenduak 19

- Musika eskolako bandaren Gabonetako kontzertua 19:30ean, Manuel Muñoz kiroldegian.

Abenduak 22

- Pauline & Juliette musikari gazteen kontzertua 19:00etan, Zaldibar antzokian.

Abenduak 26

- Xabier Leteren heriotzaren X. urteurreneko kontzertua 19:00etan, Zaldibar antzokian

Abenduak 28

- Tor magoa 18:30ean, Zaldibar antzokian.

Urtarrilak 3

- Ganbara abesbatza 19:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian.





Udaberriarri Gaztekonkis-en, Apotzagan proba batean. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

Neguko ekintzen barruan, 'Gabon konkis' gaztelekuan

Whatsappez eman beharko dute izena nerabeek, eta horretarako azken eguna abenduaren 20a izango da

I.B. ESKORIATZA

Gaztelekuak *Gabon konkis* egitasmoa antolatu du herriko nerabeentzat. DBH-1eko eta DBH-2ko gazteei zuzenduta, abenduaren 26an hasiko dira eta abenduaren 29an amaituko dute. Bigarren ziklokoentzat, aldiz, hau da, DBH-3 eta DBH-4 mailako gazteentzat, bestelako ekintzak antolatuko dituzte abenduaren 30erako eta urtaririlaren 4rako eta 5erako.

Gabon konkis-erako izen-ematea zabalik dago eta parte hartu gura dutenek abenduaren 20aren aurretik 688 84 38 21 telefono

zenbakira *whatsapp*-a bidali beharko dute.

Gazteekin erabakitako ekintzak *Gabon konkis*-en, herriko txoko ezberdinetan egingo dituzte probak eta taldeka arituko dira: "Eguneko hiru edo lau orduko ekintzak prestatuko ditugu; hala ere, izena ematen duen talde kopuruaren arabera izango da hori. Bigarren zikloko nerabeentzat, aldiz, bestelako ekintzak egingo ditugu, beraiekin batera zehaztuko ditugunak", adierazi du Miren Zubillagak, Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileak.

Buruarinak egiteko tailerra antolatu dute hilaren 29rako

Joseba Iñurrategi pilotalekuan izango den ikastaroa 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago

I.B. ESKORIATZA

Eskuz egingo dituzte buruarinak, abenduaren 29an, frontoian egingo den tailerlean parte hartzen duten gaztetxoek. Izenak dioen bezala, buruhandiak dira, baina arinak, pisurik gabekoak.

Hori horrela, 17:00etatik 19:00etara bitartean izango da aukera buruarinak egiteko, eta izen-ematea abenduaren 23ra arte dago irekita. Horretarako, gazteria@eskoriatza.eus helbide elektronikora idatzi edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deitu beharko da.

Segurtasun distantziak bermatzeko frontoian egingo dela ikastaroa adierazi du Eskoriatzako Udalak, eta antolatzaileek eramango dute material guztia. Haur bakoitzak buruarin eredu bat aukeratu beharko du izena ematerakoan, eta, nork berea amaitzen duenean, etxera eramango du beretzat.

Hala ere, 4 eta 9 urte bitarteko haurrek heldu batekin lagunduta joan beharko dute buruarina egiten laguntzeko. Prezioa buruarin bakoitzeko, berriz, bost eurokoa izango da.

Zakarrrez beteta daude Arlabango bazterrak

Dorleta Santutegira bideko errepidean dagoen zuloa konpontzea gura du Gatzagako Udalak. Horrekin batera, Arlabango zoruaren egoeraz Foru Aldundiarekin hitz egin, eta errepide horretan zakarrak ez botatzeko eskaera egin du Eugenio Otsoa alkateak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

COVID-19ak herrian izandako eraginaz eta herritarren laguntzeko prestutasunaz, aurrera begira dituzten proiektuez... aritu zen berbetan Eugenio Otsoa Leintz Gatzagako alkatea, martitzenean, Goiena telebistan.

"Pandemia iritsi eta zazpi hilabete aguantatu genuen lehenengo kasua etorri arte. Hala ere, kutsatu gutxi izan ditugu, eta 65 urtetik gorako inor ez da kutsatu. Horiei laguntzeko, gainera, *Gatzitzen* plataforma ere badugu, Whatsapp bitartez funtzionatzen duena, eta adinekoek beharra badute laguntzeko prest egoten da jendea, leku batetik bestera autoz eramateko, erosketak egiteko..."

"Kalte handia" arlo ekonomikoan Udalean, bestalde, arlo ekonomikoan eragin handia izan du COVID-19ak. "Diru sarrera gutxiago izan ditugu. Aldunditik jasotzen dugunaren %20 kentzea, esate baterako. Horrez gain, ehiztariengandik urtero jasotzen ditugun 47.000 euroak erdian geratu zaizkigu, eta, beste herri guztietan moduan, laguntzak eman behar dira, baina geldi dauden aktibitateei; hau da, errentak ez kobratzea... Horrekin batera, ia ekintza guztiak bertan behera utzi genituen; hala ere, guraso taldeak herria koloreztatu zuen loreontzi batzuekin, ibilbide batzuk egin ditugu... Eta, aste honetan, Mendi Asteaz ari gara".

Turismoan eragina

Soran Etxea itxi izana, Gaztainuzketa mendi-etxeetako jabe berrien proiektu berriaz, bizikleta elektrikoaren alokairu zerbitzuaz, Labideaz eta Gatz Museoko berrikuntzez ere mintzatu da Otsoa: "Soran Etxea itxi izanak hutsunea eragin du. Ea zortea dugun eta norbaitek hartzen duen. Mendi-etxeetan, be-



Eugenio Otsoa, Leintz Gatzagako alkatea, martitzenean, Goienako platoan. I.B.

65 URTETIK GORAKO INOR EZ DA KUTSATU; HERRITARREN LAGUNTZAK ERAGIN DU HORRETAN

rriz, dinamika berri batekin ari dira, ea hemendik aurrera zorte hobea daukaten. Labideak, bestalde, arrakasta handia dauka; denda moduan funtzionatzen du, taberna moduan, herritarrek elkartzeko gunea ere bada... Guk *GG Galerias Gatzaga* deitzen diogu, aktibitate handia duelako. Gainera, bertan, *GatzEbike* zerbitzua ezarri dute. Herriko inork ez du alokatu bizikleta elektrikorik, baina harrera ona izan du eta aurrera begira funtzionatuko duela uste dut. Gatz Museoa, berriz, ermita berritu genuen, ikus-entzunezkoak egin eta ekintzak gauzatzeko eremu berri bat izatearekin asko irabaziko dugu. Horren harira, aipamena egin nahiko nioke museoaren historiaren bueltan ikus-entzunezkoa egin zuen Luis Ugartebururi, egingako lan politagatik".

Orain arte Gatz Museoa eraman dutenek euren ibilbidea amaituta, museoaren kudeaketa eta gatz produkzioa eta bere komertzializazioa esleitzeko lizitazioa ireki du Udalak: "Museoa eramatearekin batera, beste zenbait ardura izango dira, denbora gehiagorako izango dena. Salmenta, berriz, handitu guran ari gara. Añanakoekin batera eusko labela ateratzeko bidean gaude, eta horrek bultzada emango digu. Urtean 300 kilo gatz inguru produzitzen ditugu, ez dago gaizki".

Aurrera begirako lanak

Egokitu egin dute autobus geltokiaren goiko eremua eta alde bietarako noranzkoan jarri dute geralekua, ingurua argizatuta. Horretarako, 47.000 euroko inbertsioa egin du Diputazioak. "Autobus zerbitzua hobetzeaz batera, aurrera begira, Dorleta Santutegirako errepidea konpandu gura genuke, eta Arlabango bidean dagoen zoruaren egoeraz hitz egin. Arlabanen, gainera, jende askok zabor ugari botatzen du errepide bazterrerera, eta zabortege inkontrolatu bihurtzen ari da ingurua".

"Bertako basoa oinarri duen eredua nahi dugu"

ION ARANGUREN NEKAZARITZA ETA INGURUMEN ZINEGOTZIA

Banda marroiaren gaitzak basogintzaren eredua mahai gainean jarri du. Hori dela eta, bertakoa den basogintza jasangarriaren aldeko apustua egin Udalak

MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Antzuolako Udalak basogintza jasangarriaren aldeko apustua egin du, eta erronka nahiz eredu berriei heltzeko prest dago. Ion Aranguren Nekazaritza eta Ingurumen zinegotziak dio bertako basoa sustatuta eta pinu-oreka mantenduta, baso-oreka bilatzearen aldeko bidea jorratu gura dutela.

Zein da Antzuolako basogintzaren egoera, gaur-gaurkoz?

Antzuolako baso-lur jabetzaren %90 pribatua da. *Insignis* pinu asko dago landatuta, eta, banda marroiaren gaitza sartzean, egurraren balioa asko jaitsi da. Kultibo bakarra izatean, gaitzaren hedapena zabalagoa izatea eta ia herri osoa kaltetzea ekarri du, eta basoendako oso kaltegarria da.

Belaunaldi aldaketa ere arazoa da?

Gazteei basogintzarekiko ilusioa piztu behar zaie eredu berrien bitartez. Guztia eztabaidatzeko dago; Antzuolan badugu, gainera, beste arazo bat: goi-tentsioko linearena. Gorlatik Deskargaraino 100 metroko zabaleran dagoen basoa botata baitago. Guztia hartu behar dugu kontuan eredu berri bat lantzeko. Oraindik ikasten ari gara, ez dago-eta garbi zein espeziekin duen etorkizuna gaitz berrien aurrean.



Ion Aranguren, Nekazaritza eta Ingurumen zinegotzia. MAIDER ARREGI

"KOOPERATIBA SORTUTA, BASO-LURREN KUDEAKETA ELKARLANEAN EGITEA DA GURE IDEIA"

Bertako basogintzaren aldeko apustua egin duzue?

Bai; bertako egurraren aldekoak eta basoa bertako espeziekin egiten uztearen aldekoak gara. Basoa entresaka bidez ondo zaintzea gure gure asmoa.

Kooperatiba sortzearen eredua duzue buruan.

Bai; baso-lurren kudeaketa elkarlanean egitea da gure ideia. Lur-jabe asko daude partzela txikiekin, eta horrek kudeatzeko orduan zailtasunak eragiten dizkie baserritarrei. Hala, kooperatiba sortuz gero, kudeaketa bateratua izango lukete norbera parte izanez. Denborak esango du bertako basoa oinarri duen eredu mota honek zein emaitza ekarriko duen. Oraindik ere, ikasten, eztabaidatzen eta aztertzen ari gara.



Antiguako zebra-bideko galtzada-harria kendu egingo dute. VALEN MOÑUX

Hainbat asfaltatze-lan egingo dituzte datorren egunean

30.000 euroko aurrekontua du obrak eta herriguneko hiru gunetan egingo dituzte errepideko asfaltatze-lanak

MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Herriko hainbat auzotako errepideetan konponketa-lanak egingo dituzte datorren astean hasita -eguraldiak aukera emango balu, behinik behin-. Hala, Beheko auzoan, Antigua eta udal biltegiaren aurrealdean egingo dituzte lan horiek. Obrak pare bat egun iraungo duela adierazi du Valen Moñux udal aparejadoreak. "Datorren egunean dira hastekoak asfalto lanak egiten. Asmoa da bi egunean egitea, baina dena eguraldiaren arabera izaten da. Obra handiena Beheko auzoan dago.

Izan ere, Beheko auzoko 5. zenbakiaren eta erreken artean galtzada-harria dago. Kendu egingo dute, eta asfalto jarri bertan. Lurpeko aparkalekuen sarrera ere konponduko dute. Antigua dagoen zebra-bidean antzerako lana egingo dute: galtzada-harria kendu eta asfalto bota. Udal biltegi aurrea ere konponduko dute", kontatu du Valen Moñuxek.

Orsak egingo ditu asfaltatze lanak; seinaleen pintaketa lanak, berriz, Paskinek. Biak Gipuzkoakoak. Aurrekontu osoa 30.000 euro ingurukoa da.

GORA ETA BEHERA



Pintura, bizikletak garbitzeko gunean



Bizikletak garbitzeko gunearen erabilera okerra salatu gura izan du herritar batek. Bertan pintura zuria dago botata eta gune hori ez dela horretarako gogorazti gura izan du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Basogintzaren erronkak hizpide, gaur

Basogintzaren egoeraz eta erronkez hausnartzeko, solasaldia egingo dute gaur, 18:00etan, Torresoroan. "Aramaioko Errez Kooperatibak darabilen ereduaz jardungo du, eta Aritz Kortabariak banda marroiaren hedapenez egindako ikerketa azalduko du. Eredua bat lantzeko, baina, gure nagusiei entzun eta haien esperientziak baliatu nahiko genuke".



Uzarraga auzoko basoa. MAIDER ARREGI

GABONAK 2020 + SANTAMASAK



Txoronpia, Txoronpio, Olentzero,
Mari Domingi, Bizarzuri, Erregeak...
modu berezian aurten

•
Gabonetako elkartasun jaialdia
zaharren egoitzetan

•
Santamasak: baseritarren azoka eta
karpa Gabonetako jaiegunetarako

IBAI ZABALA



OPEL CROSSLAND X BERRIA



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D • Tel: 943 77 30 10

Moldatu egin dituzte bisitak Olentzerok, Mari Domingik eta Erregegek

Egoera dela eta, Olentzerok, Mari Domingik eta Errege Magoek ezingo dituzte ohiko harrerak eta desfileak egin. Dena den, topatu dute herritarrengana gerturatzeko era

Karme Uribesalgo ARRASATE

Aurtengo Gabonak ezohikoak izango dira. Tradizio bilakatu diren hainbat ekintza bertan behera gelditu behar izan dira COVID-19aren pandemiaren eraginez. Izan ere, aurten, hilaren 24an ez da posible izango etxe edo, besterik gabe, kalean kantuan aritzea. Bazkari eta afarietako bilerak ere mugatuak izango dira, eta kaleko ekintza asko ezin izan dira antolatu. Olentzeroren eta Mari Domingiren bisitei ere eragingo die egungo osasun egoerak, bai-

ta Errege Magoen desfileei ere. Dena den, ahaleginduko dira hurrekin harremanetan egoten, betiere, neurriak hartuta, aurtengoan ere inor opari barik gelditu ez dadin.

Arrasaten Olentzero eta Mari Domingirentzako gutunak jaso ohi dituzten Txoronpio eta Txorontzia aurreratu egin dira. Normalean, abenduaren 24an gerturatu dira arrasatearrengana, baina aurten, egoera dela eta, martitzen eta eguazten honetan, hilaren 15ean eta 16an, herriko ikastetxeetara joan dira. Horre-

la egin diete bisita Arrasateko hurrei, eta jaso dituzte jada umeen eskaerak. Horrez gain, abenduaren 24an, Olentzero herrian zehar ibiliko da, 20:00etan, "zerua argituko duen arte".

Gutunak eta postontzia

Bergaran, berriz, ez dira kalera aterako eta ez da euren harrekarik egongo, baina jasoko dituzte herritarren eskakizunak. Udaletxeko atarian daude Olentzeroren eta Mari Domingiren panpinak, eta nahi duenak bertan utzi ditzake eskutitzak. Gai-

nera, 2011 eta 2019. urteen artean jaiotako hurrek Olentzeroren eta Mari Domingiren gutuna jasoko dute etxean.

Oñatin ere egongo da postontzi berezi bat, ilusioa mantentzeko eta eskaerak egiteko. Lazarraga parkearen sarreran jarri duten egurrezko etxolan dago Olentzerok eta Mari Domingik jasoko dituzten gutunak uzteko tokia. 09:30etik 19:00etara egongo da zabalik etxola, hilaren 24ra arte. Kalera, ordea, ez dira aterako; aurten ez dira herriko plazan egongo abenduaren 24an,

ezta aurretik egin ohi den kalejiran ere. Jende pilaketarik ez egoteko erabaki dute ekitaldi hori bertan behera uztea.

Aretxabaletan ere ez da egongo Olentzeroren eta Mari Domingiren desfilerik. Hala ere, 10 urtetik beherako neska-mutiko guztiek gutuna jasoko dute haien partetik. Gainera, ezustekoren bat ere izango dute umeek. Eguaztenean hasi ziren eskutitz horiek Aretxabaletako haurren etxeetara iristen, eta abenduaren 23ra bitartean jasoko dituzte. Gainera, postontzi bat jarri dute



Txoronpio eta Txorontzia, Arrasateko ikastetxe batean, gutunak jasotzen. IBAI ZABALA

ALDEDI

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu



Mari Domingi, Eskoriatzako Ibarraundi museoko erakusketan. IMANOL BELOKI

Arkupe kultura etxean, Gabonetako pertsonaia horiei gutunak bidali ahal izateko.

Olentzeroren etxea

Eskoriatzan, abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingi ez dira urtero moduan kalez kale ibiliko, eta laguntzaileek ez dituzte goizean plazan eskutitzak jasoko. Hala ere, Ibarraundi museoa Olentzeroren etxea balitz bezala atondu dute. Ikatza egiteko txondorra ikusgai egongo da, baita Mari Domingiren ortua ere. Dena den, ez dira

bakarrrik egongo; aukera egongo da euskal mitologiako beste pertsonaia batzuk ere ezagutzeko. Besteak beste, Basajaun, galtzagorriak, Tartalo eta Anbotoko Mari izango dira. Horrez gain, museoaren sarreran saski bat jarriko dute, Olentzerorentzako eta Mari Domingirentzako gutunak uzteko.

Astelehena ezker dago zabalik Ibarraundi museoan prestatu duten etxea, eta abenduaren 23ra arte egongo da bisitatzeko aukera. Gaur arte, herriko ikastetxeetako haurrek goizez egin

dituzte bisitak, baina bestela ere izango da bertara gerturatzeko beta. Gaur, egubakoitza, 15:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. Bihartik eguaztenera, berriz, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Bisita egiteko, beharrezkoa izango da hitzordua hartzea. Horretarako hiru modu daude: *kultura@eskoriata.eus* helbidera idatzita, 943 71 46 88 telefonora deituta edo Whatsapp bidez, 650 49 51 66 zenbakian. Bisita bakoitzak 15 minutuko iraupena izango du eta gehienez sei laguneko taldeetan sartuko dira herritarrrak. Haurrek, derrigorrez, heldu batekin joan beharko dute eta Udaletik eskatu dute, ahal dela, haurrentzako karrotxorik ez eramateko.

Horrez gain, erakusketaren inguruko ipuin bat idatzi du Miren Diaz de Gereñu eskoria-

ESKORIATZAKO IBARRAUNDI MUSEOA OLENTZEROREN ETXEA BALITZ BEZALA ATONDU DUTE

tzarrak. Eskoriatzako Udaleko webgunean deskargatu daiteke, eta liburutegian hainbat ale daude, maileguan hartu ahal izateko.

Antzuolara, ordea, kamioi baten gainean iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi. Abenduaren 24an, 09:30ean, Beheko auzotik hasita, auzoz auzo joango dira herritarrrak agurtzen. Hori dela eta, balkoietatik adi egoteko eskatu diete antzuolarrei.

Panpina lehiaketa

Elgetan, berezitasun moduan, Olentzero eta Mari Domingi panpina lehiaketa egingo dute. Edozein material eta itxurarekin egin daitezke panpinok. Lanak aurkezteko eguna datorren martitzena izango da, hilak 22, Espaloia kafe antzokian, 16:00etatik 18:00etara. Sariak egongo dira: lehenengoa, 80 eurokoa; bigarrena, 60 eurokoa; eta hirugarrena, 40koa. Gainera, aurkeztutako lanak erakusgai jarriko dituzte.

Horretaz aparte, hurrengo egunean, abenduaren 23an, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera egingo dute Espaloian.

Aurten ez dira Intxortatik jaitziko, eta zuzenean kafe antzokira joango dira. 16:00etatik 19:00rak arte egongo dira bertan. Adinaren arabera ordu tarte bat izango dute haurrek Espaloira gerturatu, Olentzero eta Mari Domingi ikusi eta gutuna uzteko. Gonbidapena izatea beharrezkoa izango da. Elgetako ume guztiek jasoko dute horrelako bat etxean, eta bertan zehaztuko diete zer ordutan joatea dagokien.

Aramaion zerbait egin daitekeen aztertzen ari dira, eta Leintz Gatzagan ez dago aurreikusita gisa horretako ekitaldirik.

Erregeak ere, moldaketekin

Olentzerori eta Mari Domingiri ez ezik, Errege Magoei ere eragin die pandemiak, eta moldatu egin behar izan dute euren urteroko bisita. Arrasaten, esaterako, Biteriko plazako karpan egingo diete harrera umei, urtarrilaren 5ean, 18:00etatik 20:00etara. Bergaran ere ez da desfilerik egingo. Edozelan ere, Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek agurra bidaliko diete, sare sozialen bitartez, Bergarako ume guztiei.

Bazkidea bazara bigarren unitatea

-30%

Eroski Seleqtia produktu guztietan

* Zenbateko balkearen %30 Erakundearen zuzen erabilera. Pasaian edo online gabe erositate produktuetan, lehen unitateak %15eko deskontua aplikatuko da.

KONBINATU

EROSKI SELEQTIA
Mahaspasa-birikorda
intxaurduna, 450g

10,50
€/kg
23.33€/kg

EROSKI SELEQTIA
Turroi biguna, 300 g

5
€/alea
16.67€/kg

EROSKI SELEQTIA
Bakailao gezatuaren
sakomok MSC, 400 g

15,90
€/alea
39.75

EROSKI SELEQTIA
Foie gras osoa
chate-micuita, 100 g

8,50
€/alea
85.00€/kg

EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

*Kuxatik pasatzean, zure Eroski Club Txartlearen berehala sartuko dituzgu erositate produktuetan deskontuaren zenbateko baliokidea. Zenbateko hori hurrengo erosketetan tratatu ahal izango dugu. Deskontu honek ez du baliu "azken unitateak" seinaleztatutako produktuetan.

Jone Olabarria ARRASATE

Pandemiak eragin berezia izan du adineko pertsonen egoitzetan eta askok hilabeteak eman dituzte etxekoen bisitarik jaso gabe. Gabonei begira ere hainbat izango dira aurten egoitzatik ezin irtenda jarraituko duten egoiliarak. "Bakardade horri aurre egiteko" eta "musikak berriz ere elkartzeko" asmoarekin abiarazi duten "kontzertu berezia" da azken asteetan Mundukide Fundazioaren ekimenez Kulturaten grabatzen eta lantzen aritu direna: "Gabonek elkartasunaren eta alaitasunaren sinbolo izaten jarraitzea nahi dugu. Horregatik, hainbat pertsonaren eta erakunderen lan altruistaren bidez, Eguberrietako kontzertu solidarioa antolatu dugu".

Hain zuzen ere, hainbat erakunde eta elkarte dira helburu solidarioarekin parte hartzerantz animatu direnak: Arrasate Musikal, Goikobalu Abesbatza, Arrasateko Udala, Mondragon Taldea, Fair Saturday, Harreman ONGD Arrasate, Gipuzkoako Foru Aldundia, GSR kooperatiba eta Mundukide Fundazioa bera ere.



Azken asteetan aritu dira emanaldiaren oinarri musikala eta irudiak grabatzen; adibidez, Kulturaten. MUNDUKIDE

Gipuzkoako egoiliarrei elkartasuna helarazteko kontzertu berezia, prest

'Elkartasuna ezin da gelditu' lelopean, hilaren 24an eskainiko dute. "Adinekoei elkartasuna bidali" eta "lankidetzat programei laguntza eskaintzea" da helburua

Helburu solidarioekin

Mundukide Fundazioko ordezkariek azaldu dutenez, "pertsonen arteko maitasuna, elkartasuna eta itxaro-pena sustatzeko gai izango den" emanaldi berezia bi asmo nagusirekin jaio zen. Adineko pertsonen gizar-tearen "elkartasuna eta eskertona" erakustez gain, beste asmo bat ere baduela azaldu du Mundukideko zuzendariak, Josu Urrutiak: "Kontzertuaren bigarreneko herrialdeetako pertsonak gogoan izatea da, haien zatitza pandemia ez delako arazorik garrantzitsuen; gatazka, desplazamendu, gose, gaixotasun eta bestelako arazoak zerrenda luze bati gehitutako beste zailtasun bat baizik... Horregatik, ezin ditugu ahaztu. Haien itxaropena ez da txertoa, gure elkartasuna baizik".

Eguberrietarako prestatutako klipak, musika soilik ez, mundu osoko testigantzak batzen ditu, adinekoei prestatuta eta egoiliarrei zuzenduta: "Gipuzkoako egoiliarrek mezuak grabatu dituzte, egoitza guztietan zehar zabaltzeko. Munduan zehar





Goikobalu abesbatzako kideak, Eguberriko kontzertu bereziari ahotsa jartzeko entseguan. MUNDUKIDE

dauden Mundukideko koope-ranteek ere euren hitzak helaraziko dituzte, hainbat proiektutan parte hartzen duten lagunekin batera".

Egoitzetan, baita online ere

Kontzertua adinekoen egoitza eta zentroetan, erretiratuen etxeetan, eguneko zentroetan eta osasun mentaleko egoitzetan bizi diren edo parte hartzen duten pertsona guztiei zuzenduta dago. Izan ere, aitortu dute hasiera batean Arrasateko egoitzetara bideratzea aurreikusten

zuten arren, azkenean Gipuzkoa osoko egoiliarrek izango dutela kontzertuaz "gozatzeko" aukera. "Behin grabaketa bukatu eta prozesu osoa eginda, Arrasatek eta ingurutik harago zabaltzeko aproposa zela ikusi genuen, eta, Gipuzkoako Foru Aldundia tarteko, bere menpeko egoitza guztietan ikusi ahal izango da".

Hala ere, aukeratutako egoitzetan kontzertua online eta doan emateaz gain, publiko orokorrak norberak nahi duen ekarpenaren truke ikusi ahal

izango du kontzertua. Hain zuzen ere, emanaldia online emango da mundukide.fsnext.org web helbidearen bidez, abenduaren 24an, 11:00etan eta 18:00etan; eta abenduaren 25etik aurrera, berriz, edonoiz ikusi ahal izango da sarean.

Gorengo mailako musikariak

Ekimenera batu diren artisten artean dauden Eñaut Elorrieta, Idoia Asurmendi aramaioarra, Pedro Muñoz, Goikobalu abesbatza eta Mundukideren orkestra sinfonikoa.

Musikariaren gidaritza Fernando Velazquezen lana izanda. Getxoztarrak esperientzia zabala du gidaritzan eta konposizioan; eta horren adibide garbia da azkeneko urteetan jasotako aitortza: 2017an, jatorrizko musika onenaren Goya saria irabazi zuen, *Un monstruo viene a verme* filmaren musikari esker. Filmen soinu bandetan soilik ez, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Madrilgo Erkidegoko Orkestra eta abesbatza, London Metropolitan Orchestra eta Budapesteko Irratiko Orkestra Sinfonikoa zuzendu ditu, besteak beste.

Askotariko doinuak entzungai

Gabonetarako prestatutako kontzertuak hainbat musika estilo eta doinu batuko ditu, hala nola *We wish you a merry christmas* Mari Carmen Egurolaren eskutik, *Canção da terra* Pedro Muñozek interpretatua, *Mendigoizalearena* Eñaut Elorrietaren bidez eta Idoia Asurmendiren *Viejo refranero*.

Emanaldirako bereziki eraturtako Mundukide orkestra sinfonikoa osatu duten musi-

kariak lau orduz aritu ziren Kulturaten, emanaldian eskainiko dituzten abestiei doinu eta oinarria jarriz. Horri aho-tsa jartzeko lan egin duten gainerako taldeek eta abeslari-ek euren kontura jarri dituzte ahotsak, ostean grabatuta.

'Fair Saturday'-ren baitan

Gabonetarako prestatutako kontzertuak bat egingo du *Fair Saturday* kultur mobilizazioarekin. "Fenomenoa azaro amaieran agertu zen, eta mundu osoko artistek eta kultur erakundeek parte hartzen dute, ekitaldiaren bidez hautatutako proiektu sozialei laguntzeko". *Fair Saturday* mugimenduak proiektu artistikoak sortzeko plataforma teknologikoa jarriko du Gabonetako kontzertuaren antolatzaileen eskura. Programa ikusi ezin eta Mundukideri ekarpena egin nahi izanez gero, Bizum eta kontu korronteak erabili ahal direla gogorarazi dute. Informazioa gehiago eskura dago ekimenaren webgunean.

CITROËN BERLINGO URBANCAMPER

DAGOENEO EZ DIOZU UKO EGINGO TURISMO BATI ZURE CAMPER ESPERIENTZIAK GEHITZEKO!

- Sabai altxagarria ohearekin
- Sabai altxagarriari esker, barruan zutik egoteko adinako altuera
- Lo egiteko gehienez 4 pertsona
- Berlingo M eta XL kanperizatze aukera
- Zure Berlingo ere kanperizatzen dugu

CHAPIME TAILERRETAN IKUSGAI, ZATOK EZAGUTZERA! HITZORDUA HARTZEKO 943 79 45 22



CHAPIME TAILERRAK

Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5, Arrasate Tel.: 943 79 45 22

Zapatukoa, santamas kutsurik gabeko azoka

Hileko hirugarren asteari dagokion merkatu "arrunta" plazaratuko dute bihar baserritarrek Seber Altuben. Pilaketak saihesteko, hileroko egon ohi diren ekoizleak bakarrik azalduko dira, santamasetan postua jarri ohi duen herrikideren bat salbu

Hasier Larrea ARRASATE

"Azoka egingo da zapatu honetan, baina ez du santamasekin inongo loturarik izango", adierazi du, argi eta garbi, Nerea Lazpiurrek, Arrasateko Udaleko Tokiko Garapen Saileko teknikariak. Bihar Seber Altube plazan egongo den merkatu irekia urteko beste edozein hilabetetan aurki daitekeena bezalakoa izango dela baieztatzeko mintzatu da gisa horretan, "jendeak ez dezan pentsa santamas feria egiten ari garenik".

Horrek ez du esan nahi herriarrek produktu fresko ugari aurkituko ez dituztenik bertan. Aitzitik, sendabelarrak, sasoiko

barazkiak, gaztak, pastelak, konsterbak, egurrezko artisau lanak... egongo dira salgai, baina, Lazpiurrek gaineratu duenez, "talo arteko txorizorik ez da egongo, ezta baserritar jantzitako ekoizlerik ere".

Hala ere, izango du biharkoak gainontzeko hileroko azokek ez duten bereizgarririk, soilik santamasetan kalera jaisten diren herriko ekoizleei postua jartzeko gonbidapena egin die eta Udalak. Gauzak horrela, 19 saltokiri egingo zaie tokia Seber Altube plazan; normalean egon ohi dena baino eskaintza handiagoa egongo da, ondorioz, hileko hirugarren asteko azokan.

Gozogileak, "modan"

Bitxikeria modura, azken hila-beteetan tokiko produktuak sustatzeko egitasmora "herriko lau gozogile" batu direla aipatu du Lazpiurrek. Saltzaile berriak arrasatearren aldetik "erantzun ona" jasotzen ari direla gehitu du Udaleko teknikariak: "Erosketei erreparatuta, pentsatzekoa da herritarrei asko gustatzen zaizkiela jaki azukredunak".

Lau gozogile horien artean Oubsal izeneko marokoarra dago, bere herrialdean egiten diren gozoak gerturatzen dituen. Glutenik gabeko ogiak eta pastelak ere egongo dira erosgai, Errastikua jatetxeko eskutik.

"Herritarrek azoka-egun arrunta balitz bezala portatzea nahi dugu"

RAKEL PEREZ DE ARENAZA NEKAZARITZA-EKOIZLEA

Seber Altubeko merkatutik pasatzen denak ezagutuko du Askasibar baserriko Rakel Perez de Arenaza barazki saltzailea. Beti agertzen da hileroko zitara, eta, santamas azoka tokatzen denean, bere lurretik ereindako barazki koloretsuz apaintzen du postua. Kolore nahasketa deigarri horiengatik lortu du, hein batean, edizio ugari, iaz barne, santamas ferriako saltoki onenaren saria eskuratzea.

Santamas eguna urtero "ilusioz" itxaroten duela aipatu du Perez de Arenazak; are gehiago, jaiaren bilakaera nolakoa izan den gogoratzen duenean: "Txikiak ginenean, desagertuta zegoen santamas azoka, baina batzuk erreperatu nahian hasi ziren. Lehen, gainera, nire auzoan,



GOIENA

Meatzerrekan, ospatzen zen, gertaera batzuen ondorioz kalera eramateko erabakia hartu zuten arte".

Urtea bezala, uzta "arraroa"

"Eguraldi-aldaketa bortitzek" ortuko jaki ugari hondatu dituela esan du ekoizleak. Edozelan ere, jendeak hileroko azokari "harrera ona" egin diola uste du: "Azoka-egunetako eguraldi onak herritarrek erakarri ditu".

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIK GABE

Geurriak geurreta



IRATI · TAUPA · OSORIK · BASATI
ILUNTZ · JAI ZALE · DAT · ETXOSTE

"Glutenik gabeko gozoak egiten ditut; jendeari gustatzen zaizkio"

AINARA ABASOLO ERRASTIKUA JATETXEA

Bedoñako Ainara Abasolok ere santamasetan aparteko giroa egoten dela ez du ukatzen. Aurtengo azoka "gutziz desberdina" izango dela argi dauka, nahiz eta espero duen baserritar azokarekin "herria zertxobait alaitzea".


Hileroko azokari eskaintza berezia gehitzen dio Abasolok: glutenik gabeko jaki gozo eta ekologikoak. Bere semea eta bera zeliakoak direlako hasi zen halako janariak eskuz egiten. "Elaborazioa eta emaitza, biak" gustatu zitzaizkionez, ingurukoei euren iritzia emateko eskatu zien, eta, haiei ere gustatu zitzaieenez, bezeroei eskaintzea erabaki zuen: "Jende askok ditu arazoak glutenarekin, eta komertzio handietako produktuak ez dira ekologikoak bezain osasuntsuak. Ondorioz,



AINARA ABASOLO

nik egiten ditudan gozoek harrera ona izaten dute herritarren artean; batez ere, batatazko donutsek. Horiek saltzen dira gehien.

Azukrea, azukrearekin
Kikara industrialak ortuko barazki eta frutekin ordezkaten ditu Errastikua jatetxeko ugazabak: "Kalabaza, kalabazin, datil, platano edo batatarekin eransten diet gozoei behar duten azukrea".



ITZIAR EGIDAZU

"Aurten ez zaigu joatea tokatzen"

ITZIAR EGIDAZU ETA
ARATZ ZUBELDIA
OKINAK

Bikotea 2017an hasi zen Larraunen (Nafarroa) ogia egiteko bizitzera. Aipamen bereziaren saria jaso dute azken hiru edizioetan, baina aurten Leitzako azokan egongo dira: "Hurrengo urtean santamas azokan izango gara, ikusiko dugu elkar!".

"Jendeak ematen digun indarra da guretzat aurrera egiteko erregaia"

FELIX ETXAGIBEL NEKAZARITZA EKOIZLEA

Merkatu azokara jaisten da ostialero, amarekin eta arrebarekin batera, Bedoña auzoko Artazubiaga baserrian bizi den Felix Etxagibel nekazaria. Erretiratu zenetik denbora gehiago eskaintzen dio baratze ekologikoari, baita basoan hezten dituen txerriei ere. Baserrian egindako lanak kaleko jendearen erantzuna jasotzen duela adierazi du, eta bezeroei "eskerrik onena" zor diela gaineratu. Haren esanetan, "ondo" saltzen dira baserrietik errotan dituen barazkiak, intxaurreak, odolosteak, txorizoak eta ogiak.

Santamas feria lehen sektorearentzat "bozgorailu txiki bat" dela uste du bedoñarrak. Biharkoa badaki ez dela horren ordezkapena izango; hala eta guztiz ere, jaiegunez euren "produktuak



FELIX ETXAGIBEL

dastatzeko aukera emango dio jendeari".

Ekoizle gehiagoren beharra
Baserritarren egungo egoerak kezka eragiten dio nekazariari, uste duelako ingurua mantentzeko eta kaletarren beharrak asetzeko "hobe" dela baserritar gehiago egotea.

Bestalde, Internet bidezko erosketen gorakadak tokiko ekoizleei "onurarik" eragiten ez diela nabarmendu du.

carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

**ZEURE NEURRIRA,
ZEURE GUSTURA**

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com
<http://carrascal.arotzgi.net/>

Uste herri on!

24/7 24 ORDUKO ZERBITZUA

GSM LARRIALDI TELEFONO INSTALAZIOA
ETA KUOTAN TELEFONO LINEA BARNE

LED ARGIEKIN ETA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOA

igogailuak | ascensores

PIEZAK BARNE

INDUSTRIAKO IKUSKAPENAK ANTOLATU
ETA ATENTZIOA EMATEA

ESKULANA ETA
JOAN-ETORRI GUZTIAK

OROTARIKO ZERBITZUA
100 €-tik / hileko
Arrunta 70€-tik / hileko

Euskal Herria hobetzeko prest?
Bertakan emakumezkoen kirola, gubdengoa, egokitua
eta inklusiozkoa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea erokituzko.

Garai Berrikuntza Gunea
20.500 Arrasate
943 903 450

info@bertako.eus

www.bertako.eus



Gabonetan edertasuna oparitu gehien maite dituzune

Hauetako edozein opari bikaina da; batez ere, orain, maskaragatik larruazala desberdin nabaritzen dugula eta begirada dela gure bereizgarri.

Zaindu eta gozatu
Gorputz-masaje lasaigarria
Bizkarreko eta buruko masajea

Berritu azala
Aurpegikoa eta gorputzekoa
Hidratatu, indarberritu, birsortu

Indartu zure begirada
Permanentea, betileak tindatzea
eta bekainak diseinatzea
Bekainen mikropigmentazioa

Azal argitsua
Laserra orbanak kentzeko eta
azala gaztetzeko
(aurpegia, bularraldea, eskuak...)

Etxean zaintzeko
%20 baino gehiagoko
deskontuarekin



*Zatoz eta informazioa emango
dizugu konpromisorik gabe*



Erabilera askotariko Olaran etxearen aurrealdea. MAIDER ARREGI

Malgutasun handiko aurrekontuak 2021erako

2.700.000 euro inguruko aurrekontua du esku artean Antzuolako Udalak. Inbertsioen diru partida handiena Olaran etxeko obrak eta herriko plan orokorrak eroango dute. Ogasun batzordean aztertu ostean, hilaren 29ko osoko bilkurara eroango dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

COVID-19aren egoerak eraginda ziurgabetasun handiko aurrekontuak izango direla 2021ekoak aurreratu dio GOIENARI Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak. "Pandemia dela-eta ez dakigu hemendik hiru hilabetera nola egongo garen, egoera zein izango den eta gure egunerokotasunak zein bilakaera izango duen. Horregatik, segurtasunez eta malgutasunez jokatzearen alde egin dugu. Gainera, gastu eta oreka arauak ez dira aplikatuko 2021ean. Hala, gainera edozein unetan erabiltzeko aukera izango dugu. Aurtengoa nola bukatzen den likidazioa martxoan jakingo dugu, baina 575.000-600.000 euro inguru izango ditugu erabiltzeko aukerarekin. Foru Funtsetik %15 gutxiago jasoko dugu, eta guztia hartu behar dugu kontuan".

2021ean zorrik ez du izango Antzuolako Udalak eta horrek ere eragingo du udal kontuak osasuntsuagoak izatea. "Gastu

arauetan ere asko eragingo du zorrik ez izateak. Zorpetzeko aukera izango genuke, horren beharra egongo balitz, noski. Gauzak gertatu ahala hartuko ditugu erabakiak", argitu du alkateak.

Inbertsio nagusiak

Plan orokorrak 250.000 euro inguruko aurrekontua du eta lau urtean egingo da. 2021ean, 90.000 euro bideratuko ditu Udala Gobernuak. "Herriko lur guztiak definituko ditugu eta lau urteko epean gauzatu, antolamenduak izan ditzakeen aldaketak kontuan hartuz. Plegua eginda dago, eta behin aurrekontuak onartuta lehiaketara aterako dugu urte hasieran".

2021EAN JARRIKO DA ABIAN LAU URTERAKO PLAN OROKORRA; 90.000 EURO BIDERATUKO DIRA

Erabilera askotariko Olaran etxeko lanak 2021ean egingo dira eta 180.000 euroko aurrekontua dute. "Igogailua jarriko dugu eta beste areto handi bat izango du, komunak ere berrituko dira eta margotu egingo da".

Egingo diren bestelako lanen artean hilerriko lanak daude -24.000 euro-. "Kolunbarioan apal berriak jarriko dira eta hezurtegiko lanak ere egingo dira. Baserrietara ura eramateko auzolanean egingo den azken fasea burutuko dugu; baita Narroala-testigantza proiektua ere".

Udalak energia berriztagarrien aldeko apustua egina dauka, eta, gaur egun martxan duen azterketaren emaitza jakitean, herriko argiteria sarea berritzea posible den erabakiko du.

Bestalde, COVID-19ak eragindako kalteak arintzeko beste 30.000 euro ere bideratuko dira. Eta jolasguneen egoera eta Errekalde auzoa duintzeko prozesua 2021ean gauzatu du Gobernu taldeak, eragileekin elkarlanean.

Urte berriko ongietorria bertan behera uztea erabaki du Arrolak

Arrola taldeak urte berriari ongietorria egiteko duen tradizioa eten du osasun krisiak; ez da saldarik izango

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pandemia egoeratik, Arrola mendizale taldeak Lizargaraten urtero legez egin ohi duen urte berriko ongietorria bertan behera uztea erabaki du. "Osasun egoerak eta jarritako neurriek hala eskatuta, aurten ezin izango dugu ospatu eta banatu tradizio handikoa den salda eta txistorra Lizargaraten", aitortu dute Arrolako kideek.

Federazio txartelak

Bestetik, Arrolak jakinarazi du federatzeko txartela eskuratu daitekeela jada. "Urtero bezala, federatzeko epea zabalik dago abenduaren 23ra arte. Federatzeko asmoa daukanak informazioa eskatu dezake, mezua idatzita arrolamt@gmail.com helbidera. Eskiera jaso bezain pronto, federatzeko aukera ezberdinak bidaliko zaizkie inte-



1985eko urtarrilean Argilekun. ARROLA

resa duten herritarrei", argitu dute. Aurrez aurre hitzorduak hartzeko egun bat ere jarriko dutela gaineratu dute, eta egun hori abenduaren 21a, astelehena, izango da, 18:30etik 19:30era bitartean, Arrolaren Olango bulegoan.

Gabonetako saskirik ez du kaleratuko AKEk aurten

Egoera kontuan izanda, Gabonetako saskia ez zozketatzea erabaki du AKEk. "Guretzako diru iturri ona izan arren, aurten bizi dugun egoerarengatik ez dugu Gabonetako saskirik kaleratuko", azaldu du Ibon Gezalagak. Bestalde, Eztalako aldagela berrien inaugurazio ekitaldiaren data atzeratu egin dute, eta ez da bihar egingo.

OHARRAK

Elkarretaratzea

Bateragune auziaren aurka elkarretaratzea bihar, 12:00etan, plazan.

'Erlauntza' filma

Hilaren 19an eta 20an. Sarrerak, alde zurretik.

Bertso saioa

Urtarrilaren 16an egingo da, Torresoroan, 18:00etan; sarrera aurrez erosi behar da.

Iturriak itxita udaberrira arte

Negua iristear dela-eta temperatura baxuak jada heldu dira bailarara. Horregatik, herriko iturriak itxi egingo dituzte, izozteen ondorioz matxurak saihesteko asmoz. Kalebarrango eta Ondarreko iturriek, ordea, zabalik jarraituko dute, eta matxurak konpontzen saiatuko dela adierazi du Udalak, herritarrentzako kaleratutako oharrean.



MAIDER ARREGI

Antzokira datoz Mari Domingi eta Olentzero

Hutsik egin gabe, eguaztenean, abenduak 23, izango dira Elgetan. Pandemia egoera dela-eta gonbidapenarekin eta taldeka elkartuko dira herriko neska-mutikoak haiekin. Adi, etxeko postontzietara bidaliko dituzte-eta gonbidapenak laster!

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Olentzero ez da bakarrik etorriko; izan ere, Mari Domingi ondoan izango du aurten. Elgetako neska-mutikoekin elkartu nahi zuten biek ala biek, eta bete beharreko neurriak nola bete luzaro aztertu ostean jakinarazi dute baietz, Elgetan izango direla eguaztenean. Ez ditugu Intxortatik jaisten ikusiko, ez dira plazan ilara luzeak egingo. Horren ordez, Espaloia kafe antzokian elkartuko dira ikazkina eta haren laguna neska-mutikoekin. "Zuzenean Espaloira joango gara", jakinarazi dute.

Gonbidapenarekin eta 16:00etan

Adinaren arabera txandetan eta talde txikietan sartuko dira neska-mutikoak Olentzerorekin eta Mari Domingirekin egotera, 16:00 eta 18:00 artean. Eta umeen gutunak jasoko dituzte. Postontzi handi bat izango dute horretarako; izan ere, propio prestatu dute seigarren mailako neska-mutikoek.

Beharrezkoa izango da ekitaldian zehar segurtasun neurriak betetzea. Hala, neska-mutikoek egunotan jasoko dute gonbidapen bana etxeko postontzian. Adi bertan datozen argibideei! Olentzerorekin eta Mari Domingirekin elkartzeko orduarekin ba-



Olentzero, iaz, Elgetako udaletxeko arkupean. L.Z.L.

tera etorriko baitira bete beharreko segurtasun eta higiene neurriak.

Bezperan, Gabon kantak

Herri Eskolara ere joango dira, aurten, Olentzero eta Mari Domingi. Gabonetako oporrak hartzeko egunean izango da, martitzenean.

Eskola egun berezia izango da, nahiz eta ezingo dituzten egin urteroko ekintzak. "Aurten, egoerara egokitu behar izan ditugu Gabonetako ekintzak, eta pena handia dugu, baina ez

dugu plazan urtero egiten dugun azoka egiterik izango. Buelta asko eman dizkiogu kontuari, baina jende pilaketak ekidin behar dira, eta azokarekin ezingo dugu hori saihestu", azaldu du zuzendaritzak. "Udalarekin batera adostu dugu azokarik ez egitea. Horren ordez, 09:00etatik 10:30era kantura irtengo dira eskolako umeak. Taldeka irten-go dira, eta herriko hainbat gunetan pare bat kantu abestuko ditu talde bakoitzak. Bizikidetzat talde egonkorak mantenduko ditugu, eta abestu ostean



Olentzeroren eta Mari Domingiren panpinak, eskolan. ELGETAKO HERRI ESKOLA

Gabonetako panpina lehiaketa

Udalak Olentzero eta Mari Domingi panpinen lehiaketa antolatu du aurten. Martitzenean, abenduak 22, aurkeztu beharko dira, kafe antzokian, 16:00ak eta 18:00ak artean, eta erakusgai ipiniko dituzte. Hiru sari daude eskuragarri: 80, 60 eta 40 euro.

eskolara itzuliko dira, bertan ditugun gainerako ekintzekin jarraitzeko. Helburua da herrian giro pixka bat sortzea". Neska-mutikoak baserritar jantzita joatea eskatuko diete familiei: "Ezingo ditugu familiak ekin-tzetara gonbidatu. Ulertzea espero dugu".

Opariak eskolara

Ikaskideekin txoripan-a jateko eguna izango da abenduaren 22a. Horretaz gain, Olentzero eta Mari Domingi ere bisitan izango dira eskolan. "Taldeka antolatu ditugu ordutegiak, eta hemen ere bizikidetzat talde egonkorak mantenduz joango dira umeak Olentzerorekin eta Mari Domingirekin elkartzen". Kantuan egin, berriketa apur bat egin eta opariak jasoko dituzte umeek. "Eguraldi ona bada, kanpoko espazioak erabiliko

ditugu, eta, eguraldi txarra bada, eskolako ganbara". Eskolan ere argi dute beste modu batekoak izango direla aurten Gabonak. "Egoerara moldatu behar dugu, eta kasu honetan ere ezingo ditugu gurasoak gonbidatu, baina grabatuko ditugu irudi batzuk eta bideoak bidaliko ditugu, gero, familietara", azaldu du Libe Inurriagarro zuzendariak.

Ikastetxeko sarreran ipinitako Olentzeroren eta Mari Domingiren panpinen ere ezaugarri bereziak dituzten aurten. Mas-kara dute bai bata bai besteak, eta distantzia dago bien artean.


ESKOLAKO BISITAN EZ EZIK, ESPALOIKO EKITALDIAN ERE IZANGO DA AURTEN MARI DOMINGI

Zeruak dituen mila koloreak

Goiena komunitatea

Nerea Villa / ELGETA

Zeru ikusgarriak ikusi ditugu egunotan. Zeru urdinak, moreak, gorriak... izan ditugu. Martitzeneko egunsentia, esaterako, berezia izan zen eta herritar batek baino gehiagok partekatu ditu argazkiak sare sozialetan. Zalantzarik gabe, zerura begira egoteko egunsentia eta ilunabarrak izan ditugu.



NEREA VILLA ARANTZETA

OHARRAK

Bateragune auzia

Zapatuan Bateraguneko alde mobilizatzerara deitu dute Elgetan ere. Elkarretaratzea 12:00etan izango da, plazan, *Demokrazia* lelopean.

Garraio zerbitzu berria

Eibar-Elgeta-Eibar zerbitzu berria dago martxan. Asteburuko egunetan 18:30ean abiatzen da Eibartik, eta 18:50ean Elgetatik.

Astelehenetik zabalik Bergarako gaueko larrialdi zerbitzua

Itxita egon da tarte batez, eta epe horretan Arrasatera jo behar izan dute elgetarrek. Debagoieneko Ospitaleko arduradunak hilaren 4an batzartu ziren Bergarako, Antzuolako eta Elgetako alkateekin. Azaldu zieten pertsonala birkokatu behar eragin zuela murrizketa, eta abenduaren 21etik aurrera berriz zabalduko dutela zerbitzua.



Bego Alabazan, eguaztenean liburutegian egindako tailerra gidatzen. L.Z.L.

Irakurzaletasuna sustatzeko hainbat gako

"Haur txikiei ipuinak kontatzeko ohitura handia dugu, baina irakurtzen ikasten dutenean alde batera uzten ditugu horrelakoak, eta hori akats handia dela uste dut", azaldu zuen Bego Alabazan ipuin kontalariak, eguaztenean, liburutegian

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Liburutegiak gonbidatuta izan zen Elgetan ipuin kontalari bizkaitarra, eta neska-mutikoen artean irakurzaletasuna sustatzeko hainbat gako eman zituen. Besteak beste, umeen adinaren eta zaletasunen arabera ipuin edo liburu aukeraketa egiteko gomendioak eman zituen. "6 bat urterekin hasten dira neska-mutikoak irakurtzen, eta asko zaindu beharreko etapa da hori. Irakurtzen dakitela pentsatuta beraien kabura uzten ditugu, sarri, eta hor galdu daiteke aurreko urteetan gurasoekiko zein liburuekiko lortutako giro goxo eta atsegina. Horri gehitzen badiogu irakurketak adin horretan eskatzen duen esfortzua eta gehiengoarendako eskolako lan bihurtzen dela, bada, nire ustez, etapa horretan galtzen ditugu irakurle asko. Irakurzaletasuna bultzatzeko nire gomendioa da neska-mutikoekin irakurtzeko eta, baita ere, kontatzen jarraitzeko".

Jolaserako tartea hartu

Liburu asko daude: testurik gabekoak, testuarekin eta irudiekin, testuarekin bakarrik... "Sarri, irudiek presentzia handia dute, eta testuarekin bakarrik geratzea da liburuaren zati handi bat galtzea. Irudiak hitzetan jartzea oso ariketa interesgarria da. Eta kontuan hartu liburuak, txikienendako, jostailu bat ere badela. Gogorak dira, koloretsuak, neurri jakin batzuetakoak... Ume batek ipuinekin dorre handia bat egin nahi badu, ba, oso ondo!".

Jolaserako tartea ere hartzea gomendatzen du ipuin kontalariak. "Gauza serioztat dugu irakurtzea, baina umorea da gehien erakartzen gaituena, eta jolasa

"UMEEI IPUINAK KONTATZEN JARRAITU BEHAR DUGU, ETA EUREKIN IRAKURRI BEHAR DUGU"

da ikasteko modurik eraginkorrenetako bat", gogorarazten du.

Libururik gabe kontatzea ere oso interesgarria dela azpimarratzen du. "Halakoetan umeek beraien irudiak sortu behar dituzte, eta irudimena lantzeko ariketa oso garrantzitsua da. Bestetik, egia da liburuek lana errazten dutela kontatzeko orduan; izan ere, bertan dago dena. Baina horrek badu bere tranpa, ezin baikara gidoitik atera. Kontalaria lotuta dago, nolabait".

Liburu sorta luzea eroan zuen kontalariak eta hainbat bilduma eta idazle gomendatu zituen.

Beste tailer bat astelehenean

Gurasoei zuzendua, helburua izango da pandemia garaioan ezinbesteko egin diren erreminta digitalen inguruko azalpen teorikoa ematea: Google kontuak, Classroom, Drive, Gmail, bideo-deiak... Saioa 17:30ean izango da, eta beharrezkoa da aurrez izena ematea. Online jarraitzeko aukera ere egongo da.

Esti Askasibarrek irabazi du azaroko argazki lehiaketa

Urtea amaitu aurretik Elgetako komertzioetan erabiltzeko 50 euroko erosketa bonua eskuratu du

L.Z.L. ELGETA

Lau gai ipini zituzten lehiaketarako *-Elgetan bizi, Udazkeneko iluntzeak, Irribarrea* eta *Kultura-*, eta Esti Askasibar elgetarrak bidalitako argazki sorta izan da saritua. "Beti gustatu izan zait argazkilaritza, eta horrekin batera mendia. Lehiaketa deitu aurretik ateratakoak dira lau argazkietatik bi", azaldu du. "Ilunabar batean ikusi nuen ze argi polita zegoen Baztarrikatik Anbotora begira, eta hurrengo egunean joan ginen umeekin argazkiak ateratzera.

Kultura eta *Elgetan bizi* gaietarako propio atera nituen argazkiak". Askasibarrek ez du argazki kamerarik. Mugikorrarekin ateratako argazkiak dira. "Eskolan ikasi nuen argazkilaritza apur bat, eta gustatuko litzaidake ikastaroren bat egitea, baina kamera eskatzen dute, eta ez dut, oraingoz". Eskerrak eman ditu ekintza antolatzeagatik. "Udalari eskertu nahi diot halako ekintzak antolatzea. Askotan, ez dute gugandik erantzun handirik jasotzen, baina esker-tzen dira halakoak".



Irribarrea gaira aurkeztutako argazkia. ESTI ASKASIBAR



Udazkeneko iluntzeak gaira aurkeztutako argazkia. ESTI ASKASIBAR

Bi astez eguaztena izango da trasteak botatzeko eguna

Debagoieneko Mankomunitate-tik esan dute Gabonetan aldatetako egongo direla hondakinen bilketa zerbitzuan. Bi asteotan, eguaztenean atera beharko dira traste zaharrak, ez eguaztenean. Hala, abenduaren 23an eta 30ean emango dute zerbitzua. Ohiko ordutegian atera beharko dira tamaina handiko hondakinak, aurrez 943 71 19 38 erantzun-gai-

luan mezua utzi ondoren. Baserriko plastikoen bilketa, berriz, hilaren 22an egingo dute. Kasu honetan ere aurrez deitu behar da, zerbitzua eskatu eta hondakinak nora atera adosteko. Telefonoa da 943 76 25 47. Zerbitzu honek balio du ateratzeko siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegietako plastiko zuria.

'Seminarixoa.eus' abian: kultura, komisiorik gabe

Webgune berriari esker sarreren salmentaren kudeaketa osoa Udalaren esku geratuko da eta, besteak beste, herritarrek ez dute gainkosturik ordaindu beharko sarreretan; abenduaren 23tik aurrera jarriko dira salgai sarrerak online, urtarileko emanaldietarako


Jokin Bereziartua BERGARA

Martxan da *Seminarixoa.eus*, Udalak kultura ekimenen kudeaketarako sortu duen plataforma berria. Udaleko ordezkarien arabera, "nortasun propioa" emango dio herriko kultura eskaintzari, eta ekitaldiak kudeatzeko gaitasuna hobetu egingo du; izan ere, Udaleko ordezkarien arabera, orain arte erabiltzen zen zerbitzuak baino "gaitasun handiagoa" izango du. Kultura Zerbitzuarendako buruhauste batzuk sortu izan ditu zerbitzu zaharrak, eta horregatik ere badator aldaketa.

Gainera, Seminarixoa aretoarekin lotutako informazio guztia ere jaso da atari berrian: "Aretoaren ezaugarri guztiak jasota daude bertan eta programatuta dauden ekitaldi guztien gaineko informazioa ere badago. Ikuskizun zehatz baten gainean informatzeaz gain, sarrerak erosteko aukera dauka erabiltzaileak", adierazi du Kultura teknikari Edurne Kortak.

"Gertutasun handiagoa"

Sarrerak eskuratzeko zerbitzuak hobetzera dator *Seminarixoa.eus* eta Kultura Zerbitzuko arduradunek diote "hilabete askotako" lana dagoela atzean. Udal ordezkari zein teknikariak "po-



Erabiltzaile bat *Seminarixoa.eus* webgune berria kontsultatzen. JOKIN BEREZIARTUA

zik" daude emaitzarekin, hainbat abantaila ekarriko dituelako eta herritarrei "zerbitzu osoagoa" eman ahal izango dietelako aurrerantzean. Besteak beste, Udalaren eta herritarren arteko gertutasuna ahalbidetuko duela deritza Kultura zinegotzi Kristina Markinak: "Udalari, baina bereziki herritarrei begira, gertutasun handiagoa ekarriko du zerbitzu berriak. Herritarren zaletasunak eta lehentasunak identifikatzeko aukera emango digu, gero herritarrei eskaintza zabalagoa ere eskaintzeko. Uste

dut alde horretatik aurrerapauso handia ekarriko duela zerbitzu berriak".

Herritarrek, komisiorik ez

Eta badago beste aldaketa esanguratsu bat, Markinak gogora ekarri duenez: "Egia da herritarrek hainbat alditan erakutsi izan digutela kezka edo haserrea komisioen kontuarengatik. Orain, plataforma berri honekin, lortuko duguna da sarreren salmentaren kudeaketa osoa guk egitea, eta, beraz, herritarrek sarrera erosterakoan ez

dute inongo gainkosturik ordaindu behar izango".

Harpidetzeko aukera

Aipatutako abantailaz gain, Udalari fidelizazio kanpaina egiteko aukera ere emango dio atari berriak. "Herritar bakoitzak harpidetzeko aukera izango du, eta, horren arabera, herritarren gustuak hobetu ezagutzeko aukera izango dugu", dio Kortak. Kontuan hartu behar da, adibidez, sarrerak behin eskuratuta, ezingo dela sarrera aldatu ezta dirua bueltan eskatu ere.

Ikusleak emanaldia hasi baino 15 minutu lehenago sartu ahal izango dira aretora eta ikusleei eskatzen zaie emanaldiak iraun bitartean erloju, mugikor eta beste dispositiboak isilarazteko.

Sarrerak salgai, hilaren 23tik

Seminarixoa.eus ataria dagoeneko erabilgarri dago, eta ikusgai daude urtarrilean Bergaran protagonista izango diren kultura hitzorduak. Hori bai, oraindik ezin da sarrerarik erosi; abenduaren 23an aktibatuko dute aukera hori. Online bidezko erosketarako egin beharreko urratsak honako hauek izango dira: gustuko ekitaldia aukeratu, bete beharreko datuak bete, eserlekua aukeratu eta txartelarekin ordaindu. Online salmentak ahalbideratzen du sarrera inprimatzea edo mugikorrean deskargatzea, gero Seminarixoko sarreren erakusteko.

Hori bai, orain arte moduan, Seminarixoko leihatilan ere eskuratu ahaliko dira sarrerak. Txarteldegian, sarrerak emanaldi egunean edota beste edozeinetan ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago erosi ahaliko dira; eguenero, 18:00etatik 20:00etara.

Elhuyar anaien panpina ebakigarriak salgai domekan Iralan

Aurten 20 urte bete ditu Bergarako Erraldoi Taldeak baina COVID-19ak ez die ezer ospatzetik utzi: "Ezin izan ditugu gure dantzak eta musika herriarekin partekatu, eta 20. urteurreneko ospakizunak 2021era atzeratuko ditugu". Eta erraldoiak berriro kalean dantzan ikusi bitartean, Kataluniatik inportatu duten ideia bat aurkeztuko dute etzi, domeka: Elhuyar anaien panpina ebakigarriak jarriko dituzte salgai, hamar eurotan, Irala kalean -12:00etatik 14:00etara-; panpinok Kataluniako aditu batek diseinatu ditu. Aurkezpena baliatuko dute konfinamendu sasoiko umeendako marrazki lehiaketako sariak banatzeko.

Napar Feria: zazpi postu egongo dira bihar San Antonion

Pandemiaren ondorioz ohikoa baino murriztagoa izango da Napar Feria. Bihar, abenduak 19, egingo da, San Antonioko plazatxoan, 11:00etatik 14:30era. Zazpi postu izango dira eta produktuen artean erosgai egongo dira gazta, askotariko hestebeateak, kontserbak, gozoak, txokolatea eta pateak. Hainbat herritarrek ohitura dute Gabonei begirako erosketak batzuk Napar Ferialan egiteko, eta, hain zuzen, saltzaileek eskatu dutelako, antolatzaileek azokari eutsi diote. "Zalantzak genituen azoka egin edo ez, baina saltzaileen nahia ikusita martxan jarri ginen", dio Gabiria San Antonio Gure Ametsa elkarte Patxi Uribesalgok.



MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa



Joan den urte hau markatu arren
pandemiaren izuak
urte berriak bereak ditu
esperantzaren mezuak
bero gaitzala babesak eta
elkar zaintzearen suak
zeren badaude laister emango
ditugunaren zantzuak
urtean zehar gorde ditugun
besarkada ta musuak

2021

Urte berri on!






www.maltuna.eus · info@maltuna.eus · 943 89 92 70 · 943 89 92 73

Jokin Bereziartua BERGARA

Euskal presoek bizi duten "egoera latza" salatu eta haien etxeratzea eskatzeko hainbat ekintza antolatu ditu Gure Artera Sarek Gabonetarako. COVID-19ak aurrez gogorra izaten zen espetxealdia are gogorrago egiten duela adierazi dute: "Horren adibide da aita, ama edo biak espetxean dituzten hainbat eta hainbat umetxikiladun bizitzen ari diren egoera, gurasoak ikusi eta besarkatu gabe dagoeneko bederatziz hilabetetik gora baitaramatzate. Urruntze politikari COVID-19a gehitzean, gaixotasunaren aurrean zaurgarriak diren senideek ezin dute bidaiarik egin". Diote bi horiek "adibide soilak" direla, "salbuespeneko espetxe politika" horri pandemia gehituzerakoan "egoera mingarriak" handitzen doazela iritzita.

Lau data mobilizazioetarako

Gabonetako mobilizazioetarako lau data zehaztu dituzte, bereziki: abenduaren 24a, abenduaren 29a, abenduaren 31 eta urtarrilaren 9a. Abenduaren 24an, Olentzerorekin eta Mari Domingirekin kantuan egingo

Birusari egokituta ere, presoan aldeko aldarria

Euskal presoak etxeratzeko Izan Bidea ekimenaren barruan, hainbat mobilizazio antolatu ditu Gure Artera Sarek Gabonei begira; urtero Bilbon egin ohi den manifestazioaren ordez, egun horretan Bergaran 500 herritar elkartzeko erronka ere zehaztu dute



Gure Artera Sareko ordezkarien agerraldia, asteon, Irizar jauregian. IMAIALEN SANTOS

dute euskal presoan alde, San Martin plazan (13:00): "Olentzero eta Mari Domingirekin euskal preso politikoen aldeko kantu batzuk abestuko ditugu".

Abenduaren 29an, *Burgosko auzia. Iraultza eta bizi!* liburuen aurkezpena egingo dute kartzela zaharrea eta Seminarixoa, Mikel Antzaren eta Adur Larraeren eskutik. Edukiera kontuak direla-eta alde aurretik eskuratu behar dira sarrerak: Jardun euskara elkartearen abenduaren 22ra arte; eta abenduaren 22an, Seminarixoko leihatilan, Arrano eta Pol-Pol tabernetan, eta Gure Arterako kideei eskatuta. Jardunekin eta Angiolillo liburute-

giarekin elkarlanean antolatu dute aurkezpena: "Antolatzen ditugun ekimenetan beti saiatzen gara herriko talde eta eragileekin elkarlanean aritzen".

Manifestazioa, eta Brigade Loco

Abenduaren 31n, "mosaiko erraldoia" egingo dute, Izan Bidea ekimenaren bereizgarria den gezia irudikatuta, eta sei gunetan bildu gura dituzte herritarrik: San Martin plaza, Muni-be, Ariznoa, Telesforo Monzon, Errekalde-Irazabal eta Madalena. "Sei eremu, sei ildo eta sei aldarrikapen: gaixoak, adinekoak, haur motxiladunak, zigor bikoitzak, urrunketa eta emakumeak", diote. Ekitaldi txiki bat ere egingo dute Ariznoa plazan, bertso eta guzti.

Bilbon egin ohi den manifestazioaren ordez, Bergaran manifestazioa egingo dute eta 500 lagun elkartzeko helburua zehaztu dute, Bilbora urtero joan ohi den bergararren kopurua; seminarioko patioan bukatuko da manifestazioa, Brigade Locoren kontzertuarekin: "Guztion bul-tzadaz soilik lortuko dugu. Izan zaitez zu ere bidearen parte".

GABONAK Haurrentzako egitaraua



ABENDUAK 18, ostirala,

18:00 Seminarixoa
OLENZERO KUTTUNA
ikuskitzuna.

ABENDUAK 20, igandea,

16:00 Seminarixoa
HAURRENTZAKO ZINEA
Trolls 2 gira mundial.

ABENDUAK 26/27,

larunbata eta igandea,
10:15-13:35 eta 16:00-18:45,
Agorrosin igerilekuan
URETAKO JOLAS PARKEA
Ikastetxeetako taldeak errespetatu
behar dira, informazio gehiago
www.agorrosin.eus webgunean.

ABENDUAK 26, larunbata,

18:00etan Seminarixoa
COTTON DARRAK
haurrentzako antzerkia.

ABENDUAK 27, igandea,

16:00etan Seminarixoa
HAURRENTZAKO ZINEA
Drogaicaren gidaria.

ABENDUAK 28 eta 29an,

astelehen eta asteartea,
17:00-20:00etara bitartean
EZ DADILA SUA ITZALI
ekimena gauzatuko da. Haur
eta familiei zuzendutako
pisto joko mitologiko honetan
parte hartzeri animatzen
zaituztegu.

Ekintza doakoa izango den arren,
afara mugatua du eta izena ematea
derrigorrezkoa izango da. Izan
ematea: www.jardun.eus-en
abenduaren 9tik 25ra.
Informazio gehiagorako
gaztejardun@topagunea.com
helbide elektronikoa edo
618070273 telefonara deituta.

ABENDUAK 30, asteazkena

12:00etan Seminarixoa
POTX ETA LOTX pailazoak.

URTARRILAK 2/3

larunbata eta igandea,
10:15-13:35 eta 16:00-18:45,
Agorrosin igerilekuan

URETAKO JOLAS PARKEA
Ikastetxeetako taldeak errespetatu
behar dira, informazio gehiago
www.agorrosin.eus webgunean.

URTARRILAK 2, larunbata,

18:00etan Seminarixoa
SAFARI ikuskizuna.

URTARRILAK 3, igandea,

17:00etan Seminarixoa
HAURRENTZAKO ZINEA



Udaletxeko aularian Olentzeroren eta Mari Domingiren
panpinek egongo dira, bertan utzi ditzakezue zuen
gutunak Olentzerok eta Mari Domingik jasotzeko.



Marije Ugalde soprano bergararra, Isabel Lacar eta Xabier Barriolarekin batera, Donostiako Trinitate plazako estreinaldian. EITB

Iparragirreraren ondareaz gozatzeko, eta gozarazten

'Urretxutik mundura' ikuskizuna helduko da bihar Seminarixora (19:00), duela 200 urte Urretxun jaiotako Jose Maria Iparragirre omentzea helburu duena; Gorka Hermosaren lana du oinarri obrak eta, tartean, Marije Ugalde soprano bergararrak hartuko du parte

Jokin Bereziartua BERGARA

Gabonetako kontzertua egiteko aukerarik ez izateak utziko duen hutsunea, hein batean bada ere, betetzeko asmoz dator *Urretxutik mundura* ikuskizuna Bergarara. Bihar, abenduak 19, izango da emanaldia, Seminarixoran (19:00).

Duela 200 urte Urretxun jaiotako Jose Maria Iparragirre musikagilearen omenez Urretxuko Udalak Gorka Hermosa musikari urretxuarrari enkarगतutako *Urretxutik mundura* obra handia da proiektu honen muina. Iparragirreraren melodia ezagunenaren orkestrazioa eta haren obrak fusionatu ditu Hermosak; Hermosarekin batera, Jon Maia bertsolari urretxuarra eta Lau Haizeetara ahots lauoketa izango dira, besteak beste.

Seminarixora egokituta

Marije Ugalde bergararra da, hain zuzen, Lau Haizeetara taldeko sopranoa, eta dio "oso pozik eta sekulako ilusioz" dagoela halako obra bat bere herrian

interpretatzeko aukera izango duelako: "Oso berezia da niretako, ilusio handiz igoko naiz agertokira. Donostiako estreinaldia formatu handian egin genuen, orkestra txiki batekin eta abesbatza handi batekin. Orduan, bakarlarari aritu nintzen beste hiru abeslariarekin batera [Isabel Lacar, Xabier Barriola eta Pablo Azpeitia]; Seminarixoran, ordea, ez da orkestrarik eta korurik izango, eta bakarlariorik kantatu beharko dugu abesbatzaren parte ere".

Ugalde: "Oso obra berezia da"

Atzean abesbatzarik ez izatea erronka handiagoa dela aitortu du Ugaldek, eta Iparragirreraren pieza horiek abesteko zailak direla ere badiu: "Erronka handia izango da".

DONOSTIAN AURKEZTU ZUTEN, IRAILAREN 12AN, ETA BIGARREN EMANALDIA IZANGO DA BIHARKOA

dia izango da, obra konplexua delako. Hala ere, entzuleak beharrezkoak dira Iparragirreraren abestiak direla". Ugalderi bereziki gustatzen zaion obra da: "Hermosaren akordeoak protagonismo handia dauka, eta, ni ere akordeoi-jolea naizenez, asko gustatzen zait hori. Horri gehitu behar badiogu Iparragirreraren abestiak direla eta umetan etxean entzundako abestiak ekartzen dizkidala gogora... Oso obra berezia da niretzat".

Seminarixoko akustika ez da onena, Ugalderen ustez: "Abesteko nahiko lehorra da eta entzuleengana behar den moduan heltzeko ahotsa anplifikatzeko bitartekoak beharko ditugu; eskolako emanaldietan ere egin izan dugu".

Bigarren emanaldia

Urretxutik mundura ikuskizuna Donostiako Trinitate plazan irailaren 12an estreinatu ostean, hurrengo emanaldia izango da Seminarixokoa, bihar (19:00).

GORA ETA BEHERA



Herritar baten kexa, etxe atariko zikinkeriatatik

Burdinate inguruan bizi den herritar batek ondoko argazkia bidali du, domeka goizean etxe atarian topatu zuen zikinkeria salatzen: "Eskerrik asko zapatu iluntzean bertan ibili ziren gazte taldeei, eta agur bat auzoa zeharo lagata daukan Udaleko garbiketari zerbitzuari".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA



DANOBATGROUP

Saria, euskaraz hausnartzearen

Danobatgroup taldeak Euskararen Egunaren bueltan antolatu ohi duen lehiaketako irabazleak dira goiko bi protagonistak: "Danobatgroupek euskararen erabileran eragiteko konpromiso irmoa du. Gizartera zabaldutako lehiaketan, euskararen inguruan hausnarketa bat egin behar zen, eta aurrean, Jaione Aranguren eta Irune Lopezek eskuratu dituzte Errigorako saskiak".


OHARRAK

Kirol jarduerak, Zoom aplikazioaren bidez

Urtariletik aurrera, kirol ikastaroak *streaming*-etik emango dituzte Agorrosinen, eta bihar, hilak 19, doako saioak egingo dituzte, herritarrek zerbitzu berria ezagutu dezaten. Izen-ematea zabalik dago: www.bergarakirola.eus edo 943 77 70 95.

BKE: Gabonetako inoizko zozketarik bereziena

Gabonetako saskia Depor taberna ondoko erakusleihoan dago ikusgai. Honako hauek dira sariak: lehen saria, otarre erraldoia eta iPad; bigarrena, patinete elektrikoa; hirugarrena, *B The Travel Brand* opari-txartela; laugarrena, telebista; eta bosgarrena, BKEko materiala. Bestalde, iragarri dute 2021eko egutegia Udaltaldeko argazki zaharrez osatuko dutela, egoerak behartuta.



HARPIDETU ZAITEZ GOIENAREN ASTEBURUKO BULETINERA!

ALBISTEAK, BIDEOAK, ARGAZKI GALERIAK...
HARPIDETU ZAITEZ ETA DOAN JASOKO DUZU ASTERO ZURE POSTA ELEKTRONIKOAN.

HARPIDETU ZAITEZ: GOIENA.EUS/BULETINA

goiena[“]
20 URTE ZUEKIN.

Euren ohiturak betetzen jarraitzen dute Gabon sasoiari, "ilusioarekin"

Aloñako gurutzean urtero Gabon sasoiari argia nork pizten duen eta Olakuako urmaeleko eta Udanako jaiotzak nortzuek jartzen dituzten jakiteko asmoz, hiru herritar horiekin egin du topo GOIENAK. "Ilusioz" bizi dute ohitura hirurek

Oihana Elortza OÑATI

Gabonak ohitura sasoiari izaten da. Oraindik oso errotuta dauden ohiturak errepikatzen dira urtero data horietan. Horietako batzuk, baina, badute euren xarma edo sorpresa puntua, gertatu egiten dira aurrez inork ez ez jakin arren. Horietako hiru dira Aloñako gurutzean jartzen duten argia eta Olakuako eta Udanako jaiotzak. Urteroko hiru misterio horien historia laburra dator lerrootan.

ANJEL MARI ARANGUREN OLAKUAKO JAIOTZA

"Donostian erositako irudiak jartzen ditugu urmaeleko jaiotzan"

Olakuako San Andres kooperatibako zuzendaritzan sartu zenetik jartzen du urtero-urtero jaiotza Olakuako urmaelean Anjel Mari Aranguren, duela 30 bat urtetik hona: "Gu zuzendaritzan izan ginenean hasi ginen auzoko jaiak egiten eta jaiotza jartzen. Harrezkero, ez dut hutsik egin. Rafael Zubia *Moño* eta biok ibili gara urteetan; berak ekarri izan du urtero menditik, adibidez, belarra. Baina utzi egin du, eta aurten kide berria topatu beharko dut. Ez da lan handia izaten, baina laguntzaile bat behar dut irudiak urmaelera sartzeko eta bakoitza bere tokian jartzeko. Ilusio handiarekin egiten dudana lan bat da hori".

Donostian erosi zituzten Olakuako jaiotzan jartzen dituzten irudiak. Jaiotza jartzeko euskarriak Aranguren egindakoak dira: "Udalari eskatu nion hormigoizko bloke bat jartzeko urmaelean. Zulo bat egin nion hari eta hantxe sartzen dut jaiot-

tzari eusten dion oinarria. Kapela ere geuk egindakoa da. Egurrezko bat egin nuen nik aspaldi, baina pisu handia zuen, hondatu ere egin zen denborarekin, eta aluminiozko batekin ordezkatu genuen. Irudi guztiak ondo lotuta egoten dira, birritan lapurtu dizkigute eta. Argia ere jartzen dugu, irudiak ikusi daitezten". Normalean, Gabon gauaren aurreko zapatuan jartzen dute; beraz, baliteke bihar bertan jaiotza jartzen aritzea.

JOSE LUIS ARZUAGA UDANAKO JAIOTZA

"Arotza naiz, eta neuk ilusioz egindakoak dira irudiak"

Legazpiarra da Jose Luis Arzuaga. Udana aldera korrika joaten zen aldiro jaiotza jartzeko toki apropos bila ibiltzen zen, baina ezin aurkitu, korrika Udanan behera jarraitzea erabaki eta hustuta dagoen enbor hori ikusi zuen arte; hirugarren errebueltan, Oñatitik igota. "Jaiotza egitea buruan nuen, eta tokia ikusi nuenean lanean hasi nintzen. Arotza naiz lanbidez, eta erraz egin nituen irudiak. Harrezkero, urtero jartzen dut, 2005etik. Urte batean markatuta ikusi nituen ondoko zuhaitzak, botatzeko asmoa zuten seinale, eta beldurtu egin nintzen pixka bat. Baina hau ez zuten bota, eta toki berean jartzen jarraitzen dut", dio, pozik, legazpiarrak.

Abenduko zubian jartzeko eta urtarrilaren 6an kentzeko ohitura du Arzuagak. Hilaren 7an jarri zuen aurtengoa, semeak lagunduta. Hurrengo astebururako, baina, falta ziren irudiak, lapurtu egin zituzten. "Aurretik,

beste bi urtetan ere eraman zituzten. Oraingoan ere pena hartu dut, bai, baina handiagoa da neuk jartzeko izaten dudana ilusioa, eta asko pozten nau jendeari entzuteak konturatu direla aurten ere norbaitek jarri duela jaiotza Udanako errepede ertz horretan. Horregatik, berriz ere jarriko dut aurten", dio, zintzo, Arzuagak.

PEDRO ZABALA ARGIA ALOÑAKO GURUTZEAN

"Azken 26 urte hauetan ez du hutsik egin Aloñako argiak"

Mendizalea da Pedro Zabala. Gogoan du lehen, Gabon gauean, nola Aloñara joaten ziren eta kantuan ere egiten zuten. Ordurako bazegoan jaiotza bat han, eta argi bat ere jartzen zuten, baina argi hura ez zen kaletik ikusten eta itzali ere askotan itzaltzen zen. "Ez dakit nork eta noiz jarritakoa izango zen orduko jaiotza, baina herdoilduta zegoen, hondatuta. Pentsatzen hasi, eta lehengo ohitura hura etorri zitzaidan burura, argiarena, eta lagunekin komentatu eta argia jartzea pentsatu genuen, Oñatitik ikusteko moduan. Bateria amaitzean, berriz igo eta berriro kargatu edo aldatzen genuen. Baina urte gutxi egin genituen horrela. Duela 26 urte, Patxi Irizar Elezarrek esan zidan berak lagunduko zidala argi indartsu bat eta behar bezalako bateria lortzen. Horrela, berak prestatu zuen kaxa bat, hainbat bateria dituen barruan, Cegasakoak; zirkuitua ere egin zuen. Harrezkero, argi eta kutxa bera jartzen dugu tontorrean, ez du inoiz hutsik egin urte hauetan guz-



Anjel Mari Aranguren, Olakuako gurutzean jartzen duten jaiotzak irudi batekin. O.E.



Jose Luis Arzuaga, Udanan jarri duen jaiotzaren ondoan. O.E.



Pedro Zabala, Aloñan jartzen duen argirako behar dituen gailuekin. O.E.

tietan", dio Pedro Zabala oñatarrak.

Azken 26 urte hauetan Zabala jartzen du argi ekipo hori Aloñako gurutzean; motxilan eramaten du, semeak lagunduta. "Gabon gaueko bezperako egunetan joaten gara, eguraldiaren arabera, eta Errege Eguna pasata kentzen dugu. Ilusio eta gogo bereziarekin jartzen dut, gustatzen zaidana ohitura bat da, eta, ahal dudana heinean, jartzen jarraituko dut; aurten ere badut asmoa", dio Zabalak.

Argiaren ondoan jaiotza bat ere jartzen dute. Lehen zeuden herdoildutako irudi haiek kendu egin zituzten, etxera ekarri,

berriz txukundu eta berriro jarri. Urte osoan egoten zen hori jarrita, baina, duela urte pare bat, beste zerbait okurritu zitzaien Pedro Zabalarari eta Jose Mari Narrasperi. "Urtero Gabonetan jarri eta kendu egiteko moduko jaiotza egitea pentsatu genuen. Lapiko herdoilgaitz bat hartu, eta haren barruan egin nuen jaiotza; margotu, berriz, *Pistolo*-k. Orain, horixe jartzen dugu; hilabetez egoten da gurutzearen hesian jarrita, abenduaren erdialdetik urtarrilaren erdialdera arte. Dagoeneko jarrita dago, martitzenean joan nintzen jartzera", azaldu du Narraspek.

"Migratzaileak ez dira arazo, aukera baizik"

SDENKA HUARANCA MIGRATZAILEA

Migranteen nazioarteko eguna da gaur eta Hotz Oñati, Auzoko, Txipistin, CEAR, ACESMA, ElkarZabal eta Cáritas elkarteek elkarrekin antolatu dute iluntzeko ekitaldia

Oihana Elortza OÑATI

Sdenka Huaranca Vaca Cortes (Bolivia, 1964) duela sei urte etorri zen Oñatira, hamar urte Madrilen eman ostean. Berdintasun Kontseiluko kide da.

Nola heldu zinen Oñatira?

Hemengo neska bat ezagutu nuen Bolivian, feminismoaren bueltan aritu ginen biok, eta feminismoari esker nago hemen.

Eta zer moduz zaude hemen?

Oso ondo. Bolivian ere herri batean bizi nintzen, eta herrietan elkarren arteko zaintza handiagoa da. Madrilen, esaterako, ez duzu bizilaguna ezagutzen. Feminista naiz ni, eta, Madrilen ere mugimendu horretan aritu arren, hemen herriko eta taldeko parte naizela sentitzen dut.

Nolakoa izan da integrazioa?

Ez da zaila izan, egia esan. Oñatiar baten eskutik iritsi nintzen eta hemen talde ezberdinetan sartu naiz, jendea ezagutu dut eta herrian integratu naiz. Adibidez, Caritas elkartearen hasi nintzen eta emakume emigranteekin batera hasi nintzen lanean.

Auzokon euskara ikasteko eta beste ekintza batzuk egiteko aukera izan dut. Udal liburutegira ere joaten naiz eta hango liburu irakurketa saioetan parte hartu, adibidez. Hor ezagutu ditut herriko talde feministak, eta eurekin batera dihardut orain. **Talde asko daude Oñatin migratzaileekin lanean.**

Bai; bakoitzak esparru ezberdina lantzen du, gainera, eta oso lagungarria da hori. ElkarZabalen, adibidez, lanaz hitz egiten dugu asko eta guztion artean eztabaidatzen eta erabakitzen dugu nork duen lana izateko lehentasuna. Auzokon herriko integrazioa lantzen da: geure argazkiak atera ditugu eta erakusketa jarri, adibidez, planak egin, hizkuntzara gerturatu... Eta horiek besteko garrantzitsua da Berdintasun Kontseilua. Ederra da hori. Guztiondako berdi-



Sdenka Huaranca, martitzen goizean, Oñatin. O.E.

"PANDEMIA EGOERAN ARGI IKUSI DA HAINBAT POLITIKA AZTERTU BEHARRA; ZAINZA, ADIBIDEZ"

nak izango diren politikak lantzeko eta orain artekoak aldatzeko gunea da, erakundeekin batera lan egiteko espazioa. Oso garrantzitsua da kanpotik gatzenok ahotsa izatea herriko erakunde lokallean.

Zer moduzkoa izan da oñatiarren erantzuna?

Jende zabala dela esango nuke. Hasieran, begira gelditzen dira, baina gero, ireki egiten dira, familian bezala nago ni hemen. Kanpotik datozenekin hitz egitean, denek diote harrera onena hemen, Oñatin, izan dutela.

Zein da migratzailearen profila?

Emakumea da. Euren seme-alabak jaioterrian utzita etorri dira emakume asko. Lan egin gura dute, eta, askotan, iruzur egiten diete. Esaterako, izen ospetsuko enpresak formakuntzak eskaintzen dizkiete, baina baliorik ez duten ikastaroak izaten dira.

Antzerakoa gertatzen da aseguruekin ere: hilero ordainarazi bai, baina ez dute esandako zerbitzua eskaintzen. Bestalde, topatzen dituzten lan gehienak etxe barruko lanak dira, zaintza arlokoak asko; justu, ezkutuan gelditzen den lan esparru batean aritzen dira.

Migratzaileen artean badago bata-sunik?

Bai; arazoei aurre egiten laguntzen diogu elkarri, bai.

Zein da borroka?

Politikak aldatu behar dira. Orain, gainera, pandemia egoera honetan, inoiz baino argiago gelditu da zaintza oso garrantzitsua dela, adibidez, eta zaintza, kontziliazio edo dependentzia politikak aztertzei aukera bistan gelditu da. Migratzaileak ez dira arazo, aukera bazik.

Egoera ikusaraztea da arratsaldeko jaialdiaren helburua?

Hori da. 17:30ean, mural bat egiten hasiko gara plazan; musikarako tartea ere egongo da. Manifestu bat prestatu dugu guztion artean, eta horixe irakurriko dugu. Migrazioa gizatiarra eta segurua izateko oraindik asko falta dela aldarrikatuko dugu testu horrekin.



NAGORE GOÑI

Kirolari buruzko mahai ingurua

Pandemiak kirolean izandako eraginaz mintzatu dira, lasai, kirolean eskarmentu handia duten hainbat herritar, Aratz Losada gidari dutela: Antton Inza, Asier Osinaga, Nerea Uriarte, Maite Anton, Jokin Atxaga, Rosa Mondragon, Joseba Azkarate, Josune Odriozola eta Saioa Varela. Ekitaldia gaur, egubakoitza, ikus daiteke osorik, Goiena telebistan, 22:00etan.

NIRE USTEZ



MIEL GURIDI

'Imagine'

Pasa den astean, Kontzepzio egunean, 40 urte bete ziren John Lennon hil zutela. Seguruenez, Lennonen abestirik ospetsuena *Imagine* izango da. Nork ez du ezagutzen? Hala ere, erreparatu diozue abestiaren letrari? Beno, zuetako askok bai, seguru. Gogora dezagun zer proposatzen digun: mugarik, erlijiorik, desberdintasunik eta jabetza pribaturik gabeko mundu batekin amets egitera gonbidatzen gaitu.

Bestalde, zenbatetan erabili da ekitaldiak, aurkezpenak, une hunkigarriak, eta abar girotzeko? Eta horietako zenbatetan ikusi ditugu guztiz kontrakoa pentsatzen duten politikariak eta pertsonak, oro har, hunkituta abestiarekin? Erreparatuko ote zioten letrari? Hitz potoloak dira, hori bai, musika suabe eta ahots gozoarekin esanda guztia. Batzuetan, batzuentzat, formak edukie gailentzen zaizkie.

Ameslaria naizela esan dezakezue, baina badut beste hausnarketa bat ere: gauzak gozo esanda urrutirago iristen ote dira?

Zuek ere imajinatu, amets egin, ondo bukatu eta hobeto hasi!

Ondo pasau Gabonak!!
Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44 • OÑATI

Xabier Urzelai BERGARA

Manu Diaz (Bergara, 1965) buru duen *Garai berriak* plataforma arduratuko da datoen lau urteotan Gipuzkoako Futbol Federazioa zuzentzeaz. Astelehenean egin zituzten hauteskundeetan 58-51 irabazi zuten, eta kargua, berez, gaur hartuko badu ere, atzo Txerloia futbol zelaian estreinatu zen bergararra; izan ere, Anaitasunako presidentek egindako gonbidapena onartu eta harmailetan ikusi behar zuen Kopako kanporaketa. Gaurtik aurrera izango du benetako lana.

Aurreikusten zenuten asteleheneko emaitza?

Guretako egoera zaila zen; izan ere, teknikarien estamentuko bozketan boto asko galdu genituen. Eta, egoera horri buelta emateko, klub askoren babes behar genuen. Horretarako, aste hauetan 25 laguneko lantaldea ibili gara batera eta bestera, Gipuzkoako klub guztietako ordezkariekin batzartu eta proiektua azaltzen. Hala, sentsazio ona geneukan, baina bagenekien irabazten bagenuen alde txikiarekin izango zela.

Zergatik jaso duzue klubaren babes?

Batetik, gure programatik. Proiektu berria eta bateragarria da, klubekin batera egindakoa; eta, bestetik, klub askok hasieratik esan ziguten gurekin zudela, azken urte luzeetako bilakaera aldatu gura zutela. Eta Realak konbentzitu izana ere oso garrantzitsua izan da.

Kanpaina luzea izan da...

Luzea, eta pertsonalki oso gogorra. Garbi daukat hurrengo hauteskundeak ezin direla horrelakoak izan. Norbaitek lau urte barru ni ordezkatu nahi banau, bidea askoz ere garbia goa izango da. Dena dela, egon dira gauza onak, jende mordo ezagutu dut, eta ikusi dugu Gipuzkoako klub txiki askotan zelako gauza apartak egiten dituen jendeak.

Debagoiena ez da izan, bereziki, zuen plataformak babes gehien jaso duen tokia. Eragina izango du horrek?

Ez. Azken batean, egoera historiko batetik genduzen, klub askok urteak egin dituzte Larrearen ondoan, eta Larreak berak aspaldi izendatu zituen ordezkari batzuk bailarako klubetan. Eta, normala den moduan, kide horiek fidelak izan dira Larrearekin. Baina garrantzitsuak klubak

"Denendako lan egiteko ordua da, ezer aurpegiratu barik"

MANU DIAZ GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Bergarakoak gaur, egubakoitza, hartuko du kargua. Dio ez dutela ezer aurpegiratzeko, amaitu dela kanpaina, eta guztiondako eta guztiekin lanean hasteko ordua dela



Manu Diaz, eguaztenean, Agorrosingo harmailetan. XABIER URZELAI

dira; pertsonak joan eta etorri egiten gara, eta gure ardurak izan behar da klubetako jendearekin harreman ona izatea. Debagoieneko klubak oso kontuan ditut nik, eta seguru nago berehala egingo dutela *Garai berriak* proiektuarekin bat.

Esandako moduan, aurrera begira jartzea tokatzen da.

Amaitu dira zerrendak, amaitu da gure alde ze klub zeuden zenbatzearena, eta zeintzuk zeuden kontratan. Lan egiteko ordua da, denekin eta denendako. Gipuzkoako futbolak sekulako osasuna dauka, baina ondo bideratu eta koordinatu behar da dena. Ez dago aitzakiarik eta ez dugu inori ezer aurpegiratzerik.

Zertan igarriko da Gipuzkoako futbolera garai berriak datozela?

Bereziki, hurbiltasunean igarriko da. Gu futbol zelaietan hazi den jendea gara eta bertan jarraituko dugu; hau da, aste bukaerako egongo gara klubetako ordezkariekin, dituzten ardurak partekatzeko... Hori izan behar da gure ezaugarri nagusia, gertutasuna. Horrekin batera, arlo soziala asko arduratzen nauen kontua da, eta uste dut Federazio moduan

"JOKALARI GAZTEEN FITXAKETEKIN JARDUNBIDE EGOKIEN PROTOKOLOA LANDU NAHI DUGU"

beste presentzia bat izan behar dugula gizartearen, futbol egokitu zabaltzen, emakumezkoen futbola indartzen.

Zeintzuk dira orain momentuan Gipuzkoako futbolaren indargune eta ahulguneak?

Kopuru aldetik pozik egoteko moduko datuak ditugu eta zaletasun handia dago. Bistan dago gazteek kirola egin nahi dutela, pilota, saskibaloia... Eta horren barruan futbolariek esparru zabala dauka. Bestetik, klubak geroago eta hobeto egituratuta daude, eta harrobiekin lanean dabilen formakuntza jaso duten pertsonak dira. Baina energia hori zuzendu egin behar da, eta futbol-zaleak ez diren horien aurrean gure irudia hobetu beharra dugu, gure kirolak izen txarra du eta. Bestalde, Gipuzkoako klubaren artean, eta bereziki jokalariek gazteen fitxaketek sortzen dituzten ezinegoren aurrean, jardunbide egokien protokoloa sortu nahi dugu, errespetuzko jarrera eta jokabideak egon daitezkeen.

Alde horretatik, batzuetan, klubek euren ziborrari begiratzeari utzi beharko liokete, eta beste batzuekin indarrak batu. Leintz Arizmendik da horren adibide egokia.

Hala da, baina, horretarako, nahiak eta beharrak aztertu behar dira. Egia da emakumezkoen futbolearen behar handiagoa egoten dela indarrak batzeko, eta, esaterako, bailaran beti egon da harreman ona emakumezkoen futbolearen. Hor gehiago sakondu behar da, eta, diodan moduan, klub bakoitzak ikusi behar du momentuan ze behar dituen. Bere garaian, esaterako, Bergara ez zen Leintz Arizmendik proiektuan sartu, klubean emakumezko mordoak egitea, eta bereziki mugikortasun arrazoiengatik guretako zailagoa zelako horra batzea, gure kontura taldeak sortzea baino. Baina momentu bakoitzean hartu beharreko erabakiak dira, eta, egoki ikusten bada, aurrera.

Euskal selekzioaren ofizialtasunaren alde urratsa egin dute aste barruan. FIFAk eta UEFAk badute eskari ofiziala. Horren aurrean, zein izango da Gipuzkoako Federazioaren jarrera?

Jarrera aktiboa izango dugu, gizartearen gehiengo handi baten nahia da eta klubetan ere babesten den ekimena da. Ofizialtasunaren alde egin duten urratsa txalotzen dugu.

Beste lau urtez triatloia sustatzeko lanean

TRIATLOIA Iban Perez oñatiarrak beste lau urte egingo ditu Gipuzkoako Federazioaren zuzendaritzan. Klubetatik gertuago egoteko helburuarekin jarraitzen du, eta pandemia egoerak baldintzatu duen azken urte hau ahalik eta ondoen gainditzea gura du

X.U. ARRASATE

Gipuzkoako Triatloi Federazioa zuzentzen jarraituko du Iban Perezek beste lau urtez. 2016an Federazioari "buelta bat" emateko helburuarekin hasi zen lanean, eta oñatiarrak onartu du azken urte honek gauza gutxirako aukera eman duela: "Zuzendaritzara iritsi ginenean, lehenengo lana izan zen klubekin hartu-emanetan jartzea, zein zen kontaktu egokia, ze egoeratan zeuden jakin... Eta, horrekin batera, Federazioari beste irudi bat ematen saiatu ginen, sare sozialetan presentzia izaten hasi... Ondoren, gazteekin hasi ginen lanean, eta hor, Ibon Romero triatletarekin



Iban Perez. X.U.

egin genuen topo. Eibarko triatleta gazteak entrenatzaile titulua dauka, eta, gurekin lanean has-teko gertu zegoela ikusita, haren eskutik hasi ginen gazteekin lanean; eskola mailako kirolean ere eskumena daukagunez, hor hasi ginen lanean".

Alde horretatik, bai Antxintxikak eta bai Oñatiko Triatloi Taldeak harrobian jarri dute indarra, eta azken urteotan triatloi txikiak antolatatu izan dituzte, gaztetxoei kirol jarduera hori ezagutarazteko: "Hor zelai handia dugu lantzeko. Kadete mailan -15 urterekin- da posible triatloian federatzea, eta adin horretarako gazteak triatloira

iristeko oso garrantzitsua da lehenago kirol jarduera hori probatu izana".

Eta hor, azken urteotan Federazioak antolatatu izan dituen teknifikazio saioek harrera oso ona izan dute: "Klubek asko eskertu dituzte halako ekimenak. Gure sentsazioa beti da gehiago egin beharko genituzkeela, ez direla nahikoa, baina egingako horiek oso ondo baloratu dituzte klubek".

Goia jo duen kirol jarduera da?

Euskal Herrian duatloiak eta triatloiak kirol jarduera moduan goia jo duen ala ez ere komentatu du Perezek: "Kirolarien fitxa kopuruak datu objektiboa dira, hor daude, eta ez dute gorakadarik erakusten. Eta, lasterketei dagokienez ere, tarteka azaltzen da berriren bat, baina Debako eta Pasaiaiko antolatzaileek, esaterako, herriko lasterketa antolatzeari utzi berri diote. Alde horretatik, geraldiki bat izan dugula esango nuke, baina, kontrara, esango nuke kirolarien mailan, eta antolatzen diren lasterketei dagokienez, kalitatean koska bat gora egin dela".



Talde argazkia. ARRASATE DRAGOI

AEROBIKA Espainiako Txapelketara doaz 'dragoiak'

Denboraldi zaila dabil izaten kirolariendako, baina, pandemia egoeran egonda ere, Arrasateko Dragoi gimnasia taldeko Nahia Irazolak, Izaskun Garciak eta Uxue Azkuenek Espainiako Aerobik Txapelketa prestatu dute, eta asteburuan izango dute hitzordua, Valentzian. Bihar, zapatua, lehiatuko dira, Valentziako Colonial Sport zentro nazionalan.

GOIENA
20 URTE
ALBISTE

EUSKARA ETA EUSKALGINTZA

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 18AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
AZKEN 20 URTEETAN EUSKALGINTZAK
BAILARAN IZAN DUEN BILAKAERA

goiena
20 URTE ZUEKIN.



"400dik gora musikari oñatiar daude liburuan"

IÑIGO BIAIN BERRAONDO KAZETARIA ETA MUSIKARIA

'Alanbre-hotsa eta jazbana' lana kaleratu berri du Iñigo Biain Berraondok. Azken 60 urteetako Oñatiko rockaren historia bildu du oñatiarrak anekdotaz beteriko liburuan

Josu Bilbao OÑATI

Rock musikak Oñatin utzi duen aztarna liburu batean bildu du Iñigo Biain Berraondo kazetari eta musikari oñatiarrak. Horrela, 60ko hamarkadatik abiatuz eta ia 60 urteko bidaia eginez, herriko rock taldeen historia, anekdotak eta herrian egin diren ekitaldiak batu ditu, besteak beste, *Alanbre-hotsa eta jazbana* liburuan. Oñatiko Udalak Ereiten argitaletxearekin elkarlanean argitaratu du liburua, Jerardo Elortza bildumaren baitan.

Nolakoa izan da liburua argitaratzerainoko prozesua?

Egia esan, orain dela hamabost urte inguru hasi ginen hainbat belaunalditako zenbait lagun egitasmo honekin. Baina bilera haiek ez zuten segidarik izan, eta neure kabuz jarraitu nuen datuak biltzen eta artxibatzen, *Alanbre-hotsa eta jazbana* gauzatu arte.

Alanbre-hotsa eta jazbana. Nondik dator liburuaren izenburua?

Lehen bilera haietan finkatu genuen gitarra elektrikoak eta bateria ezinbestekoak zirela talde bat rock esparruan kokatu ahal izateko, eta nik horri eutsi nion liburuari izenburua jartzeko orduan. Izan ere, gure etxean aitak beti deitu izan dio *alanbre-hotsa* gitarra elektrikoan

soinuari, eta *jazbana* aitaita Antoniori entzun nion lehenbizikoz, guk bateria esaten diogun instrumentua izendatzeko.

60ko hamarkadatik 2020ra arte, Oñatitik irten barik, 60 urte inguruko bidaia egiten duzu liburuan...

Bai, hala da. Lehen taldea, Los Culpables, 1965ean sortu zen, eta liburuan jasotzen ditudan azkenak 2019an sortuak dira, eta aurtien lanak kaleratu dituztenak: Larru Beltzak, Mila Modu, Tilikum... 55 urteko bidaia biltzen da liburuan, garai bakoitza bere berezitasunekin.

Izan ere, taldeak garaiko egoeraren bueltan kokatzeko, momentuan momentuko testuingurua ere azaltzen duzu liburuan, ezta?

Ahalegindu naiz garai bakoitzeko testuingurua azaltzen, baina lupa 60-70-80ko hamarkadetan jarri dut, bereziki, hainbat arrazoiengatik. Batetik, urte haie-tako protagonista gehienak oraindik bizi direlako, eta haien testigantzak orain jaso beharra zegoelako. Gainera, garai haie-

"1983KO APIRILEKO PUNK JAIALDI AITZINDARIAK HANKAZ GORA JARRI ZUEN HERRI OSOA"

tako egoera soziopolitiko oso bestelakoa zen: diktadura, trantsizioa, gainbehera ekonomikoa, punkaren eztanda... Gaur egungo belaunaldiei garai haiek azaltzea beharrezkoa iruditzen zait.

Rock taldeen uzta aparta egon da Oñatin. Izan ere, 120 proiektutik gora jaso dituzu liburuan. Zergatik izan da mugimendua hain bizia Oñatin?

Musikarako zaletasun handia egon da Oñatin betidanik. Rockari dagokionez, uste dut erabakigarria izan zela Udalak 80ko hamarkadaren erdialdera musikariei lagatako Herri Eskolako sotoa, gero *erROCKalde* izenez ezagutuko genuena. Soto umel hartatik sortu eta pasa ziren dozenaka talde, duela hiru urte lokal guztiak Eltzia eraikineren pasa ziren arte. Beraz, prekariora izanda ere, gutxienez, entseatzeko txoko bat izan dute taldeek Oñatin azken 35 urte hauetan.

Taldeen gain, herrian egindako ekitaldi batzuk ere aipatzen dituzu liburuan. Baten bat azpimarratuko zenuke?

Asko izan dira jaialdi bereziak, baina, batzuk esatearren, aipatuko nituzke 1983ko apirilko punk jaialdi aitzindaria –izan zuen oihartzunagatik, eta herri



Iñigo Biain Berraondo. GOIENA

osoa hankaz gora jarri zuelako–, 1998ko jaialdi zapatista –Chiapasera traktore bat bidaltzeko antolatu zena– eta Show Business taldeari laguntza emateko egin zen *Lapurrek ez dute rock'n'rolla isilduko!* jaialdia –furgonetatik musika-material ugari lapurtu zieten–.

Interes handia piztu du liburuak herrian. Oñatiko lagun asko daude, azkenean, liburuan nola edo hala, ezta?

Nolabait esateko, obra korala da, herriko izen asko baitira protagonista liburuan. Ez dut musikari kopuru zehatza zenbaitu, baina 400dik gora izango dira liburuan biltzen direnak. Eta hori, Oñati bezalako herri batean, oso kopuru handia da. Eta, noski, horrek sortzen dituen espektatibak ere handiak dira, guztiok baitugu lagun edo senitartekoren bat talde batean jotzen duena.

Jerardo Elortza bildumako hirugarren liburua da hau. Lehena ere zuk idatzi zenuen. Erabat ezberdinak izango ziren biak egiteko prozesuak...

Erabat. Izan ere, *Jerardo Elortzarekin berbetan* hutsetik abiatutako liburua izan zen, ordu askotako elkarrizketen fruitua; *Alanbre-hotsa eta jazbana*, aldiz, sintesi-ariketa handia izan da, argitaratu ahal nuena baino askoz material gehiago neukalako pilatuta. Izan ere, taldeengandik jaso dudana erantzuna itzela izan da, eta jaso dudana material kopurua ikaragarria. Eskerrak hemendik guztie!

Aurkezpena, kultura etxean

Bihar, 12:00etan, aurkeztuko dute liburua, Oñatiko kultura etxean, eta hitzaldirako sarrera guztiak agortu dira dagoeneko. *Alanbre-hotsa eta jazbana* liburuaren aurkezpenaren ostean egongo da salgai herriko liburu-denda eta ohiko tokietan.

MILA MODU TALDEAREN ZUZENKOA

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 20AN, DOMEKAN, 23:00ETAN
DURANGOKO AZOKAREN BAITAN PLATERUENAN
ESKAINITAKO KONTZERTUA

goiena
20 URTE ZUENIN.



Iruñera joan da Karmele Igartua lehiaketako saria

Juan Jose Pellejero nafarrak irabazi du Karmele Igartua sorkuntza lehiaketaren hamargarren aldia, 'Ondoko aldagelan' izeneko lanarekin. Hamasei narrazio aurkeztu dituzte sariketara, eta, epaimahaikideek adierazi dutenez, "oso maila ona" egon da

Karmele Urbesalgo ARETXABALETA
Karmele Igartua sorkuntza lehiaketaren hamargarren aldiko sari banaketa egin zuten zapatuan Aretxabaletako Arkupe kultura etxean, eta Juan Jose Pellejero izan zen irabazlea. *Ondoko aldagelan* izeneko lana aurkeztu zuen iruindarrak. Lagun baten semeak jasandako *bullying* kasua hartu zuen abiapuntu testua idazteko orduan: "Gogaitzen eta haserrarazten nauen gai bat da, eta horregatik aukeratu nuen gai moduan".

Guztira, hamasei lan aurkeztu dituzte aurtengo sariketara, eta Pellejero aitortu du "ikaragarritzko ezustea" izan dela saria irabaztea. Itziar Gomezek, Pako Aristik eta Iñaki Zumaldek osatu dute epaimahaia, eta, azaldu dutenez, parte hartzaileek oso maila ona erakutsi dute. Aristik zehaztu du azken erabakia hartu aurretik zazpi lan aukeratu zituztela. Gaineratu du Pellejeroaren narrazioa irakurtzea "plazer handia" izan dela, "duen hizkuntza mailagatik, tentsioari eusteko moduagatik eta narrazio teknikan erakusten duen trebeziagatik". Epaimahaian izan den Gomezek ere Pellejeroaren lanaren kalitatea azpimarratu du: "Lan irabazleak badu distira berezi bat



Sari banaketaren irudi bat; irabazlea, Pellejero, erdian. TXOMIN MADINA

bai hiztegi aldetik, baita ausart idazteagatik eta gaurkotasun handiko estiloa erabiltzeagatik ere". Sari banaketan, epaimahai-kideez gain, Idazle Eskolako kideak, Karmele Igartuaren senideak eta Aretxabaletako Udaleko ordezkariak izan ziren.

Pellejero ikasketaz nekazaritza ingeniaria da, eta enpresa munduan aritu da lanean. Iaz hasi zen Idazle Eskolan, eta lehenengoz aurkeztu da Karmele Igartua sariketara. Iruindarrak adierazi du irabazi izanak gehiago idaztera animatuko duela. Bere

lana *idazten.com* webgunean egongo da irakurgai.

Lehiaketa "berezia"

Duela bost urtetik babesten du lehiaketa Aretxabaletako Udalak. Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak adierazi duenez, "berezia" da sariketa, herritar baten omezez delako eta Euskal Herri eta bailara mailan lortu duelako bere izena. Igartua bera ere izan zuten gogoan: Idazle Eskolako kideek eta aretxabaletarraren ingurukoek haren hainbat testu irakurri zituzten.

Jokin Zaitegi sariketara aurkezteko azken egunak

Domekan amaituko da Louise Glück poetaren 'The Wild Iris' liburua itzultzeko proposamenak egiteko epea

K.U. ARRASATE

Domeka gauerdia arte dago zabalik 32. Jokin Zaitegi sariketan parte hartzeko epea. Suediako Akademiak Louise Glück poeta estatubatuarri eman dio aurtun Literaturako Nobel saria,

eta idazle horren *The Wild Iris* poema-liburua itzuli beharko du Arrasateko kulturagile eta itzultzailea omentzeko lehiaketaren aurtengo irabazleak.

AED elkarteak antolatzen du sariketa, Elkar argitaletxearekin

lankidetzan eta Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin.

Antolatzaileek proposatutako lagina euskaratu beharko dute parte hartu nahi dutenek, eta egindako lana aed@aedelkarta.eus helbidera bidali. Irabazleak 1.500 euroko saria irabaziko du liburua itzultzeko; diruren erdia jakinarazpena egitean jasoko du eta beste erdia, lana entregatu ostean. 2021eko irailaren 31 baino lehen amaitu beharko du itzulpena.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko abenduko sariak!

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

ERRIGORA



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OSTIAK O B A

www.arrikruz.com
Bazka: 688 69 00 07

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte hartzaileen artean egingo da azoketa. Irabazlearen izena 15/10/2021 egunera artean jakinaraziko da. Irabazlearen izena jakin ondoren, irabazleak irabazteko produktuak jasotzeko behar du. Irabazlearen izena jakin ondoren, irabazleak irabazteko produktuak jasotzeko behar du. Irabazlearen izena jakin ondoren, irabazleak irabazteko produktuak jasotzeko behar du. Irabazlearen izena jakin ondoren, irabazleak irabazteko produktuak jasotzeko behar du.

Irabazi tarta bat

GOXO-GOXUA GOZOTEGIARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: Urtarrilaren 4a

📞 943 25 05 05 📧 kluba@goiena.eus

📍 KLUBA Jotetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Txatxilipudi elkarteari esker

Txikilandia egitasmoan ikuskizunetako sarrerak ditugu.

Arrasate | Biteriko karpen | Urtarrilak 4 | 18:30ean

Txatxilipudi elkarteari esker

Gazteekin egitasmoan (9 urtetik gorako umeei zuzenduta) *serigrafia tailer*etako sarrerak ditugu.

Arrasate | Gaztekoan | Urtarrilak 4 | 17:00ean

PARTE HARTZEKO: AZAROAREN 26A

E-posta: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "ikusizuna / Serigrafia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte hartzaileen artean egingo da azoketa. Irabazlearen izena 15/10/2021 egunera artean jakinaraziko da. Irabazlearen izena jakin ondoren, irabazleak irabazteko produktuak jasotzeko behar du. Irabazlearen izena jakin ondoren, irabazleak irabazteko produktuak jasotzeko behar du. Irabazlearen izena jakin ondoren, irabazleak irabazteko produktuak jasotzeko behar du.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAINITZA BEREZIA!

Abenduan jaso Puntua doan, hurrengo urteko bazkideztza eginez
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Kaixo! Arrasateko familia gara eta etxebizitza bila gabilta. Erdigunean bada hobeto. Eskerrik asko! 688 71 09 54 edo 675 98 96 17

Oñati. Oñatin etxebizitza bila nabil, bi edo hiru logelarekin. Eskerrik asko! 679 62 69 64 (Jon)

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Umeak goizetan zaintzeko eta eskolara eramateko zaintzaile eskaldun baten bila gabilta. 618 79 47 48

Ordenagailuz idatzi. Liburu bat eskuz idatzi dut eta ordenagailuz idatziko didan norbaiten bila nabil, Bergaran. 688 66 38 54

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo inguruak. Mutila adinekoak zaintzeko eskaintzen da, orduka. 642 98 98 06

Arrasate eta inguruak. Gauetan nagusiak zainduko nituzke. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 642 41 72 62

